MONDRAGON UNIBERTSITATEA

HUMANITATEAK ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

# LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN

# TITULUA EGIAZTATZEKO MEMORIA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

Mondragon Unibertsitatea.

**MEMORIAREN AURKIBIDEA**


| | |
|---|---|
| **1. TITULUAREN DESKRIBAPENA** | **3** |
| **2. JUSTIFIKAZIOA** | **4** |
| **3. HELBURUAK** | **14** |
| **4. IKASLEEN SARRERA ETA ONARPENA** | **23** |
| **5. IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA** | **28** |
| **6. PERTSONAL AKADEMIKOA** | **172** |
| **7. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK** | **176** |
| **8. AURREIKUSITAKO EMAITZAK** | **179** |
| **9. KALITATE-BERMEAREN SISTEMA** | **180** |
| **10. EZARPEN-EGUTEGIA** | **185** |


## TITULUAREN DESKRIBAPENA

1.1 Tituluaren izena.

Lehen Hezkuntzako Gradua.

1.2 Unibertsitate eskatzailea eta irakaskuntzen ikastegi arduraduna.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

HUHEZI. Koop. E.

1.3 Irakaskuntza-mota (presentziala, urrutikoa…)

Irakaskuntza-mota presentziala.

*1.4* Plaza berrien kopurua.

150 plaza berri eskainiko dira. Kopuru horren barruan sartzen dira bai Batxilergoa egitetik datozen ikasleak, bai Goi Mailako Lanbide Heziketa egitetik

datozenak, bai Unibertsitate Ikasketak hasiak dituztenak edota bestelako tituluren baten jabeak direnak.

Estimazioa:

| 2009/2010 ikasturtea | 2010/2011 ikasturtea | 2011/2012 ikasturtea | 2012/2013 ikasturtea |
|---|---|---|---|
| 150 | 150 | 150 | 150 |

1.5 Matrikulako europar kredituen gutxieneko kopurua ikasle eta irakastaldi bakoitzeko, eta, hala badagokio, iraunkortasun-arauak.

- Kreditu-kopurua: 1939/2007 Errege Dekretuak eta ECI/3857/2007 Aginduak xedatutakoaren arabera, titulazioak 240 kreditu ditu, lau urtetan banatuta: 60 kreditu urteko.

  Kreditu bakoitzak 25 ordu izango ditu.

  Arduraldi osoko ikasleak ikasturte bakoitzari eskaini beharreko dedikazioa 38 astetakoa izango da.

- Ikasle berriak: Lehen urteari dagozkion kreditu guztietan matrikulatu beharko dira derrigorrez. Hala ere, hezkuntza-premia bereziekin zerikusia duten arrazoiak direla eta, edo ikaslearen egoera pertsonalari erantzunez, matrikulako gutxieneko kreditu-kopurua txikiagoa izan ahal izango da, ikasleak hala eskatuz gero. Nolanahi ere, kopuru hori inoiz ezingo da elkarren segidako matrikulen kasuan ikasleei eskatzen zaien gutxieneko kreditu-kopurua baino txikiagoa izan.

- Elkarren segidako matrikulak: Iraunkortasun-baldintza bete ondoren, ikaslea 30 kreditutan matrikulatu beharko da gutxienez, non eta titulazioa bukatzeko falta zaion kreditu-kopurua ezarritako gutxieneko kopurua baino txikiagoa ez den. Kasu horretan, kreditu horietan guztietan matrikulatu beharko da.

- Iraunkortasuna: Lehenengo aldiz sartzen diren ikasleek matrikula egindako kredituen %20 gainditu beharko dute gutxienez. Fase hori gainditu ondoren, ikasleak sei deialdi izango ditu gehienez ikasgai bakoitzeko.

1.6 Tituluaren Europar Osagarrirako beharrezkoa den gainerako informazioa:

- *Jakintza-adarra.*

  *Gizarte eta Lege Zientziak.*

- *Titulua eman duen erakundearen izaera.*

  *Instituzio pribatua, irakaskuntza kooperatiba, onura publikotzat aitortua.*

  *(2001.09.25eko Agindua. 2001.10.10eko EHAO)*

- *Ikasketak amaitu dituen unibertsitatearen izaera.*

  *Zentro propioa.*

- *Ikasketek zein lanbidetarako gaitzen duten tituluduna.*

  *ECI/3857/2007 Aginduan xedatutakoaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakasle lanbidean jarduteko gaitzen du titulazioak.*

- *Hezkuntza-prozesu osoan zehar erabilitako hizkuntza (k).*
  - *Euskara (%80)*
  - *Gaztelania (%10)*
  - *Ingelesa (%10)*

**2.- JUSTIFIKAZIOA.**

2.1 Tituluaren justifikazioa, interes akademiko, zientifiko edo profesionala argudiatuta.

Orain aurkezten dugun Lehen Hezkuntzako Gradu Titulazio hau Lehen Hezkuntzako Irakasle Diplomaturaren deitura berriari dagokio. Bere ezagutza zientifiko eta akademikoaren esparrua eta berari lotuta dagoen lanbidea aski ezagunak dira eta ongi finkatuta daude hala Espainiako estatuan nola munduko beste herrialde

guztietan, bai hezkuntzan, bai gizartean, bai politikaren alorrean betetzen duen zereginagatik. Zehatz esanda, gure Fakultatea 1976ko uztailaren 8an sortu zen (162 zenbakidun BOE), Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasleria Prestatzeko Unibertsitate Eskola ez estatal gisa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari atxikia dago, eta etengabe eskaini du Diploma hori, sorreratik beretik. 1997-1998ko ikasturtea arte Magisterio Eskola gisa jardun zuen, "Irakasle Eskola" izenarekin, Euskal Herriko Unibertsitateari atxikia. 1997-1998 ikasturtean beste unibertsitate bat sortu zen, "Mondragon Unibertsitatea" deitua, hiru unibertsitate-zentroz osatua. Hiru zentro horietako bat "Irakasle Eskola" zen, "Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educadión/Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea" deitua handik aurrera (HUHEZI Koop. E.). Hasieratik gaur egun arte hainbat ikasketa-plan diseinatu dira, eta mailaka ezarri dira Fakultateak egun eskaintzen dituen Maisu tituluak.

Egun, Fakultateak, hezkuntza-esparruan, honako titulu hauek eskaintzen ditu: Irakasle/Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea; Irakasle/Haur Hezkuntza Espezialitatea; Irakasle/Hezkuntza Berezia Espezialitatea, (179 zenbakiko BOE, 1998koa); Irakasle/ Gorputz Hezkuntza Espezialitatea (241 zenbakiko BOE, 2003koa); Irakasle/Lehen Hezkuntza Espezialitatea; eta Irakasle/ Entzumena eta Mintzaira Espezialitatea (143 zenbakiko BOE, 2005ekoa).

Irakasle Titulua orain arte indarrean egondako unibertsitate-titulu ofizialen katalogoan sartzen da. Espainiako Unibertsitate guztien artean eskaintzen diren 112 diploma eta lizentzia tituluetatik hori da, termino absolutuetan, eskaintza, eskari eta matrikula gehien dituen titulua (Liburu Zuria, 1. liburukia, 47. orrialdea). Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasle tituluek eskaintzen duten toki kopuru osoa kontuan hartuta, 118 unibertsitate-tituluetatik eskaintza handiena duten lehen hamabien artean daude ikasketa horiek: 8. eta 12. tokian, hain zuzen ere, hurrenez hurren. Gorputz Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza, Musika Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia tituluek 19, 25 eta 31. tokiak hartzen dituzte. Pedagogiaren eta Gizarte Hezkuntzaren ondoren, zeinak 38 eta 40. tokian baitaude, hurrenez hurren, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea dator, 56. tokian. Beraz, titulu horiek guztiak titulu-multzoaren lehen erdian daude (Liburu Zuria, 1. liburukia, 52. orrialdea). Mondragon Unibertsitateko tituludunen enplegu-tasari dagokionez, esan dezakegu Atzerri-Hizkuntza arloko tituludunen %94,1ek, Haur Hezkuntza arloko tituludunen %86,4k, eta Hezkuntza Bereziaren arloko tituludunen %89,3k lana aurkitu duela, LANBIDEk (Euskal Enplegu Zerbitzuak: http://www.lanbide.net/) emandako datuen arabera, eta gure fakultatean irakasle-ikasketak 2003an bukatu

zituzten ikasleak kontuan hartuta (informazio gehiago nahi duenak jo beza txosten honen 9.4 puntura).

Irakasleak prestatzeko ikasketak abian jarri zirenetik planak bata bestearen ondotik etorri ziren, baina haietako batek ere ez zuen lortu beste lanbide batzuek duten adinako errekonozimendua, ez gizartearen aldetik, ez mundu akademikoaren aldetik. Irakasle-ikasketek hainbat fase izan dituzte, inolako unibertsitate-titulurik behar ez izatetik hasi eta hiru urteko unibertsitate-prestakuntza eskatzen zuten azken ikasketa-planeraino. Irakasle-hezitzaileak aspaldidanik ari ziren errebindikatzen Irakasle ikasketak luzatzeko beharra, profesional horien prestakuntza hobetzeko asmoz. Hezitzaileak bat zetozen esatean ikasketa-plan horiekin irakasleek ez zutela behar besteko denborarik beren lanbidearen praktikan trebatzeko. Aurreko ikasketa-planetan aurkitutako hutsuneak betetzera dator, beraz, egungo ikasketa-plana. Alde batetik, ikasketa horien luzapenagatik, eta, bestetik, hainbat esparrutatik abiatuta, tituluan bat egiten duten ekarpenengatik. Hauek dira horrek guztiak tituluari ekarri dizkion abantailak:

- Practicumerako espazio zabala izatea.
- Ikasgaiak diziplinartekotasunetik planteatzeko aukera.
- Curriculuma ikaslearen jarduera oinarri hartuta garatzea.
- Lana gaitasunen garapenean oinarritzea.
- Ikaslearen lan autonomoa bultzatzea.
- Ikaslearen jarduerak zehaztu behar izateak zereginen dibertsifikazioa zehaztea dakar, bai eta ikaslearentzat zabalagoak eta garrantzitsuagoak diren helburuetan integratzea ere.
- Ikaslearen jarduerak irakaslearen lanarekin berarekin erlazionatzeko aukera (arazoei irtenbidea eman, auziak konpondu, proiektuak egin).
- Hezkuntzaren demokratizazioa, ikaslearekin partekatutako kontratu didaktiko bat sortzean, egin beharreko lanak eta ebaluazio-irizpideak direla eta.
- Denbora gehiago izatea profesional horiek hobeto trebatzeko eta haien prestakuntzan sakontzeko, ikasketaldia lau urtetara zabaltzean.

Azkenik, azpimarratu nahi genuke bai Departamentuek (Hezkuntza-prozesuen Departamentua, Hizkuntza Departamentua, Gizarte Zientzien Departamentua, Informazio eta Komunikazio Teknologien Departamentua) bai Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ICE (HEZI) Institutuak esperientzia zabala dutela, "Mendeberri" Hezkuntza Proiektuaren barruan egindako berrikuntzak direla eta. Proiektu hori 2003-2004 ikasturtean inplementatu zen. Hona hemen zehaztuta:

*Mendeberri Hezkuntza Proiektua (Mendeberri Proiektua. Hezkuntza Ereduaren Berringeniaritza, 2001eko ekaina).*

Mendeberri Proiektua Mondragon Unibertsitatean gauzatzen hasi zen 1998. urtean. Lehen dokumentua 2001. urteko irailean bildu zen eta hezkuntza-proiektu horren inplementazioa 2003-2004 ikasturtean hasi zen.

Batetik, gizartean gertaturiko aldaketek –aldaketaren azkarrak, globalizazioak, komunikazio unibertsalaren aroa teknologien eskutik, ezagutzaren gizartearen sorrera, XX. mendeko gizartea ezaugarri zuten besteren artean–, eta, bestetik, Mondragon Unibertsitatea Proiektuaren kokapenak eta egungo testuinguru aldakorra gorabehera indarrean dirauten gure balio kooperatiboek erronka berriak planteatu zizkioten Unibertsitate Hezkuntzari, eta honek helburu berriak ezarriz, antolakuntza-modu berriak sortuz, eta irakaskuntza-ikaskuntzarako bide eta baliabide berriak planteatuz erantzun zien erronka horiei. Aldaketa horien aurrean, Unibertsitateak alde batera utzi ordu arte indarrean egondako hazkuntza-eredua, ezagutzak eskuratzeari lehentasuna eman eta hezkuntza formala pertsonaren bizitzaren aldi jakin batera mugatzen zuena, eta hezkuntza-sistema berriak bultzatu zituen, hezkuntza bizitzan zehar garatzen den osotasun gisa ulertuta. Delors txostenaren (1996) gomendioei jarraituz, hezkuntza-sistema berri horrek **lau oinarri nagusi** izan behar zituen:

- **Ezagutzen ikasi:** Informazioa ulertzeko eta hura lortzen eta hautatzen jakiteko beharrezkoak diren tresnak eskuratzea, eta memoria biologikoa zein memoria artifiziala erabiltzea.
- **Egiten ikasi:** ezagutzak aplikatzea eta, hartara, norberaren ingurunean eragin ahal izatea.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** giza jarduera guztietan parte hartzen eta besteekin batera lan egiten ikasi.

- **Izaten ikasi:** aurreko hiruetatik hartutako elementuak dituen oinarrizko prozesua, pertsonari bere burua ezagutzeko eta askatasunean erabakitzeko tresnak ematen dizkiona.

Hori dela eta, honela definitzen dugu Mendeberri Proiektuaren helburu nagusia: *"Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza-proiektuaren berringeniaritza egitea, proiektu horretan sartuz bai tituluei dagozkien ezagutza tekniko espezifikoak, bai ekintza eta balio gaitasunekin zerikusia duten alderdiak, eta hori guztia gizartearen behar guztiei erantzuteko helburuarekin egitea, informazio eta komunikazio teknologia berrien ahalmen osoa erabiliz horretarako."*

Proiektuari Mondragon Unibertsitatearen erronka estrategikoekin bat eginda ekin asmoz, hona koadro honetan proiektuaren jardunbide nagusiak.




Proiektua barnean hartzen duen eredua irudikatzen saiatuko gara koadro honen bidez:

- Batetik, hor daude hezkuntza-proiektuak XXI mendeko hezkuntzaren testuinguruan oinarritzat dituen ardatzak: gaitasunen garapena, balioen garapena, eleaniztasunaren garapena.

- Bestetik, hor daude ere gure hezkuntza-ereduari eusten dion egitura osatzen duten elementuak: curriculumaren diseinua, prozesu didaktikoen antolakuntza edo metodologia, baliabide didaktikoak, unibertsitate-kudeaketa parte hartzailearen hobekuntza eta Unibertsitate Hedapenaren antolakuntza.

- Eta hori guztia Informazio eta Komunikazio teknologien garapenaren testuinguru batean, XXI. mendeko unibertsitatearen erronka nagusietako bat baita teknologia horien erabilera eta garapena.

Munduko hainbat unibertsitate hartu ditugu erreferentziatzat proiektua aurrera eramateko orduan. Horietako batzuk (Universidad de Monterrey, Arizona State University, Rose Hulman Institute of Technology, Texas A.M University, University of Massachusetts Darmoth…) curriculumaren antolakuntzan aldaketak eginez saiatu dira erantzuten erronka horiei, beste batzuk (University of Delaware, Maastricht University, Monash University, University of Newcastle, Samford University…) irakaskuntza-ikaskuntza metodologietan aldaketak eginez, edota baliabide didaktikoak hobetuz. Aldaketa horiek guztiek antolakuntza-sistema berrien garapena dakarte unibertsitatearentzat: departamentuen antolakuntza, ikasleekiko harremana, tutoretza-sistemak, ingurunearekiko harremana, etab. Hala, kudeaketa-sistema berriak bilatzea da unibertsitatearen beste erronketako bat. Memoria honetan zehar Mendeberri Hezkuntza-proiektua bereizten duten zenbait ezaugarri agertuko dira, Lehen Hezkuntzako Irakasle tituluarekin lotuak.

### 2.1.2. Tituluaren eskari potentzialari eta gizartearentzat duen interesari buruzko datuak eta azterketak.

Irakasle ikasketek pizten duten interesa eta, beraz, tituluak eskaintzen duen potentziala dela eta, kontuan izan behar da titulu honek eskari asko dituela bai, oro har, Espainiako unibertsitate esparruan, bai, bereziki, gure unibertsitatean, aurreko puntuan aipatu dugun bezala. Esan beharra dago titulu hori lortzeko eskari-kopuruak gora egin duela azkeneko urteotan. Azken bi ikasturteetan (2007-2008 eta 2008-2009) ikasle-kopurua inoizko handiena izan da, ondoko datu-taulak erakusten duen bezala. Hori dela eta, ikasturte honetan ezinezkoa izan zaigu jasotako eskari guztiei erantzutea. Egoera antzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko beste unibertsitate batzuetan.

Hona, taula honetan, azken 12 urteotan matrikulazio datuek izan duten bilakaera:

**1. taula. Mondragon Unibertsitateko Irakasle titulurako tokien eskariaren bilakaera (1997-1998 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera).**

| Ikasturtea | Atzerri Hizkuntza | Hezkuntza Berezia | Haur Hezkuntza | Gorputz Hezkuntza | Entzumena eta Mintzaira | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1997-1998 | 12 | 39 | 32 | …… | …… | 83 |
| 1998-1999 | 13 | 49 | 24 | …… | …… | 76 |
| 1999-2000 | 13 | 38 | 24 | …… | …… | 75 |
| 2000-2001 | 15 | 35 | 29 | …… | …… | 79 |
| 2001-2002 | 12 | 34 | 52 | …… | …… | 98 |
| 2002-2003 | 17 | 70 | 67 | …… | …… | 154 |
| 2003- | 18 | 43 | 71 | 32 | …… | 164 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2004** | | | | | | |
| **2004-2005** | **19** | **33** | **78** | **49** | **47** | **226** |
| **2005-2006** | **18** | **36** | **112** | **53** | **23** | **242** |
| **2006-2007** | **22** | **45** | **118** | **74** | **13** | **272** |
| **2007-2008** | **15** | **34** | **136** | **74** | **21** | **280** |
| **2008-2009** | **30** | **47** | **142** | **50** | **8** | **277** |

Adin goiztiarretan haurrek jasotzen duten hezkuntzaren (haur eta lehen hezkuntzak) garrantziak, hala eskola-esparruko oinarrizko hezkuntzari dagokionez, nola eskola-ikasleek beste alor batzuetan (herritartasuna, elkarbizitza, etab.) jasotzen duten hezkuntzari dagokionez, gizarte osoaren aitorpena du egun. Hori dela eta, irakasleak garai bateko eskolan lantzen ez ziren alorretan inplikatzea dakarten egiteko berriak egozten zaizkio eskolari. Administrazio publikoek, adibidez, prestakuntza-ikastaroak, hausnarketa-topaketak eta abar eskaintzen dituzte, "elkarbizitza", "genero berdintasuna" eta abar bezalako programa espezifikoen barruan. (http://www.convivencia.mec.es/ http://www.garatuentidadeak.net/ikastaroak/Cursos%202008_2009%20Garatu.pdf ).

Azkenik, azpimarratu nahi dugu ezen, irakaslana duinduko bada, gizartearen eskakizunekin eta hezkuntza-sistema orok jarrita dituen helburuekin bat etorriko den hezkuntza eskaini behar dela, herrialdeen %80aren iritziz.

Bestalde, hezkuntzarekin eta eskolarekin zerikusia duten alorren garapen zientifikoa eta ikerketa gero eta garrantzitsuagoak dira hezkuntza-zentroen berrikuntza-proiektuetan, besteak bestea ikerketak hezkuntzaren esparruan dagoeneko egina duen bidea dela eta: hala nola, material didaktikoei buruzko ikerketatik material horiek eskolan izandako funtzionamenduaren eta emaitzen inguruan egindako ikerketaraino; irakasleekin loturarik ez zuen ikerketatik profesionalek beren jardueraren inguruan egindako hausnarketarantz (inplikazioa);

hezkuntza-fenomenoren bat ezagutzeko helburuz egindako ikerketatik eskola berritzea helburu duen ikerketarantz. Horregatik, gaur egun, eskolan bertan gertatzen dena du jomuga ikerketak, eta hori gutxi balitz bezala, irakasleen beraien laguntza hartzen du.

### 2.1.3. Proposamenak inguruaren ezaugarri sozioekonomikoekin duen lotura eta tituluaren eragina

Gradu-titulu honek Euskal Herriko eragin-eremu sozioekonomikoa du erreferentzia nagusitzat. Azaldu nahi dugu, era berean, Mondragon Unibertsitatea Euskal Autonomi Erkidegoan dagoela, eta bi hizkuntz ofizial daudela bertan: euskara eta gaztelania. Bestalde, bere Hezkuntza Proiektuan (Mendeberri proiektuan) jasota dagoen bezala, bere ikasleen artean eleaniztasuna sustatzea da Mondragon Unibertsitatearen helburuetako bat: (Mondragon Unibertsitatearen Eleaniztasun Eredua, 2000), halako eran non bertan ikaste duten ikasle guztiek ulermen eta ahozko zein idatzizko adierazpen maila handia lortu behar baitute erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (C1/EGA), eta, era berean, tarteko maila (B1) ingeles hizkuntzan, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Batuaren arabera.

Bestalde, Irakasle Graduko Titulua titulu profesionalitzailea dela kontuan harturik, aintzat hartu dugu Autonomia Erkidego honetako eskolen 2008-2009. ikasturteko matrikulazio-tasa hizkuntza-eredu bakoitzean. Datu horiek erakusten dutenez, erkidego honetako unibertsitateek bertako bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) menderatuko dituzten irakasleak prestatzeko beharra dute. Hori dela eta, 1984. urtean itun bat izenpetu zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin. Itunaren arabera, irakasle ikasketak Mondragon Unibertsitatean bukatzen dituzten ikasleek EGA titulua eskuratuko dute automatikoki (hau da, Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolan irakasle gisa jarduteko euskara maila nahikoa dutela ziurtatzen da).

### 2.1.4. Proposamena bermatzen duten erreferente nazionalak eta internazionalak daudelako justifikazioa.

Haur eta lehen hezkuntzako irakasleen prestakuntza mundu osora zabaldutako jarduera da. Europar Batasunako 25 herrialdeei dagokienez, esan beharra dago denetan egin daitezkeela irakasle ikasketak, baina gorabehera handiak daudela batzuetatik besteetara (prestakuntza urteetan, lanbidea ulertzeko moduan, eta abar), eta ez dagoela besteetatik nabarmentzen den joerarik. Unibertsitate honetan ezarri nahi diren ibilbideak direla eta, azpimarratu nahi genuke ezen erabaki hori hartzeko egokitzat jo dela ikasleak, oinarrizko prestakuntza on bat izateaz gainera, irakasle-ikasketak egiten diharduten ikasleen aniztasuna islatuko duten ibilbide dibertsifikatuetan prestatzea bere burua, eta, etorkizunean, eskolak izendatuko dizkien zeregin profesionaletan osatzea bere prestakuntza.

Europan, irakasle-ikasketetan prestakuntza-ibilbideak ezarri dituzten herrialdeen artean Txekia, Txipre, Eslovenia, Finlandia eta Italia daude. Bestalde, azpimarratu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak positiboki baloratu duela ibilbideak ezartzea Irakasle Graduko ikasketen barruan. ("Aholku Foroaren Txostena", 2007/ "Informe del Foro de Consulta, 2007"-tik hartua).

Hautatutako ibilbideak bat datoz aurreko ikasketa-plangintzan eskaintzen ziren espezialitateekin, eta Arte Hezkuntzako ibilbidea gehitu zaie, ikasketa horietan duen garrantziagatik.

Hona hemen hautatuko ibilbideen zerrenda: Lehen Hezkuntza, Gorputz Heziketa, Hezkuntza Berezia, Arte Hezkuntza, Entzumena eta Mintzaira eta Atzerri Hizkuntza. Ibilbide bakoitzak 30 ECTS ditu, ikasketa-plangintzaren sailean zehazten den bezala.

**2.2. Eginiko proposamena gureen antzeko ezaugarri akademikoak dituzten tituluen irizpide nazional edo internazionaletara egokitzea bermatzen duten eta proposamena egiten duen unibertsitateaz kanpokokoak diren erreferentziak.**

*Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduko titulua prestatzeko, honako oinarrizko dokumentu hauek hartu ziren kontuan:*

- Urriaren 29ko 1393/2007 ERREGE DEKRETUA, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolaketa xedatzen duena (http:www.mec.es/)
- Maiatzaren 3ko 2/2006 LEGE ORGANIKOA, Hezkuntzakoa, bere 93. artikuluan hauxe xedatzen duena: Lehen Hezkuntzako Irakasle lanbidea lanbide arautua da eta hartan jarduteko Gradu tituluaren jabea izan beharra dago.
- 4/2007 LEGE ORGANIKOA, 2007ko apirilaren 13koa, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko Lege Organikoa (BOE-89) aldatzen duena.
- 3857/2007/ECI AGINDUA, abenduaren 27koa, Lehen Hezkuntzako Irakasle lanbidean jarduteko gaitzen duten unibertsitate-titulu ofizialak (BOE, 312/2007) egiaztatzeko baliabideak xedatzen dituena.
- Lehen Hezkuntzari buruzko dekretua (175/2007 Dekretua, urriaren 1ekoa) (2007ko azaroaren 13ko EHAO).
- Irakasle Graduko tituluaren Liburu Zuria (1 eta 2. liburukiak). Madril. ANECA, 2004.
- Graduko unibertsitate-tituluaren proposamenaren fitxa teknikoa, urtarrilaren 21eko 55/2005 Errege Dekretuaren araberakoa. Lehen Hezkuntzako Irakasle graduko irakaskuntza.
- ANECA: 2007ko abenduaren 21eko V.1 (Verifica Programa) Titulu Ofizialen Egiaztapena Eskatzeko Memoria egiteko laguntza-gida, (http://www.aneca.es).
- ANECA: 2007ko abenduaren 20ko V.5.0 (Verifica Programa) Unibertsitate Titulu Ofizialak Egiaztatzeko Ebaluazio Protokoloa, (http://www.aneca.es).
- Fakultateko Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren dokumentazioa: Kalitate eta Prozesuen Eskuliburua (2008).
- Eusko Jaurlaritza (2007). Aholku foroaren txostena. / Kontsulta Foroaren Txostena.

*Mendeberri Proiektuaren eraikuntzan erabilitako erreferente bibliografikoak.*

**OROKORRA**

Benito, A. Cruz, A. (2005) *Nuevas claves para la docencia universitaria.* Madril. Narcea Ediciones.

Biggs, J (2005) *Calidad del aprendizaje universitario.* Madril. Narcea Ediciones.

B. S. Bloom (Ed.) (1956) *Taxonomy of Educational Objectives: The Classification of Educational Goals*; David McKay Company, Inc.

Delors, J. (2006). La Educación encierra un tesoro, Santillana.

Gonzalez, J. y Wagenaar, R. (koord.). (2003). *Tuning. Tuning Educational Structures in Europe. Azken Txostena.* Deustuko Unibertsitatea/Groningengo Unibertsitatea/MEC/ANECA.

Monereo, C eta Pozo J.I. (2003) *La universidad ante la nueva cultura educativa.* Madril: Síntesis.

Monereo, C (koord.) Castelló, M; Clariana, M; Palma, M; Pérez, M.L. (1994) *"Estrategias de enseñanza y aprendizaje"* Bartzelona. Graó.

Monereo, C ; Castelló, M. (1997) " *Las estrategias de aprendizaje"* Bartzelona. Edebé.

Tapia Alonso (2005) *Motivar en la escuela, motivar en la familia.* Madril. Morata.

**ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA**

Rodríguez, J. (2004): *Arazoetan oinarritutako ikaskuntza.* Madril: Editorial Médica Panamericana.

Top L.Sage S. (1998) *"El aprendizaje Basado en Problemas.* Buenos Aires. Ediciones Amorrortu.

Van Til, C. eta Van Der Heijden, F. (1998). PBL Study Skills an overview, Maastricht: Universiteit Maastricht.

Woods, D. R. (1994): *Problem-based learning: How to Gain the Most form PBL*. McMaster University, Hamilton, Ontario, Canada.

**KASUEN AZTERKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA:**

Hezkuntza ikerketaren eta garapenaren zuzendaritza (2005): *El estudio de casos como técnica didáctica*. Monterreyko Teknologia eta Goi Ikasketetarako Institutuaren errektoreordetza akademikoa. Ekainaren 15eko kontsulta: http://www.sistema.itesm.mx/va/dide/inf-doc/estrategias/casos.

Erskine, J.A.; Leenders, M.R. eta Mauffette-Leenders, L.A. (1998): *Teaching with cases*. Richard Ivey School of Business Notario. Kanada: The university of Western.

Forteza, D. eta Ferrer, M. (2001): *El estudio de casos en la enseñanza universitaria. Una experiencia en la licenciatura de Psicopedagogía*. Bordón, 53 (4), 509-520.

López, E. eta Montoya, J. M. (1995). *El estudio de casos: fundamentos y metodología*. Madril: Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala.

López Caballero, A. (1997) *Iniciación al análisis de casos.* Bilbo. Ediciones Mensajero.

Martinez, A. eta Musitu, G. (Eds.). (1995): *El estudio de casos para profesionales de Acción social*. Madril: Narcea, S.A. de Ediciones.

Moreno, Mª D. (2001). *Gestión de la calidad y diseño de organizaciones: teoría y estudio de casos*. Madril. Ediciones Prendice Hall.

Reyes, E. (2005). *Introducción al estudio de casos como método de enseñanza*. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.

Wassermann, S. (2005). *El estudio de casos como método de enseñanza*. Ediciones Amorrotu.

**PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA:**

ITESM (Monterreyko Teknologia eta Goi Ikasketetarako Institutua) (1999): *El método de proyectos como técnica didáctica*. 1999ko kontsulta: http://www.sistema.itesm.mx/va/dide/documentos/inf-doc/proyectos.PDF.

Kolmos, A. Fink F; Krogh, L (2004) *The Aalborg PBL model.* Aalborg. Aalborg University Press.

Moursund, D. (1999): *Project-based Learning in an information Technology Environment*. Eugene, Oregon: ITSE.

Thomas, J.W. (2000): *A review of research on project-based learning*. San Rafael (Calilfornia): The Autodesk Foundation.

**ARTIKULUAK**

Andreu, Mª A.; Labrador, Mª J.; González-Escrivá, J. A.; Quintanilla, I. eta Ruiz, T. (2004). *Metodologías activas en la UPVLC: El método del caso como herramienta interdisciplinar*. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa. Nazioarteko III Biltzarra: Unibertsitate Irakaskuntza eta Berrikuntza. Bartzelona: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa.

Aparicio, P.; Castán, J. Mª.; Espluga, C. Mª.; Gallardo, E.; Guitart, L.; Miravitlles, P.; Núñez, A.; Rimbau, E.; Triadó, X. eta Viu, M. (2004). *Desarrollo de casos audiovisuales para el aprendizaje en organización de empresas.* Bartzelonako Unibertsitatea. Nazioarteko III Biltzarra: Unibertsitate Irakaskuntza eta Berrikuntza. Bartzelona: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa.

Matey de Antonio, J. eta Miera, K. (2004). *Aplicación práctica del método del caso en el proceso de enseñanza-aprendizaje de la dirección y administración de empresas*. UPV. Nazioarteko III Biltzarra: Unibertsitate Irakaskuntza eta Berrikuntza. Bartzelona: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa.

Mauri, T.; Coll, C.; Colomina, R.; Mayordomo, R. eta Onrubia, J. (2004). *Redefiniendo las condiciones de la metodología de análisis de casos para ajustar la ayuda pedagógica al alumno. Una experiencia de innovación educativa mediada por las TIC.* Bartzelonako Unibertsitatea. Nazioarteko III Biltzarra: Unibertsitate Irakaskuntza eta Berrikuntza. Bartzelona: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa.

## Barne-dokukmentuak (a), "Mendeberri" Hezkuntza Proiektuari buruzko Unibertsitateko artikulu eta argitalpenak (b) eta bestelako ebidentziak (c)

### (a) Barne-dokumentuak

- "Competencias transversales" (2/11/2000).
- "Zeharkako konpetentziak lantzeko proposamena" (2006ko ekaina).
- 2003ko Haur Hezkuntzako konpetentziak kudeatzeko unitateak/ Unidades para la gestión de las competencias en Educación Infantil 2003.
- Mendeberri Proiektuaren ebaluazio txostena/ Informe de evaluación del Proyecto Mendeberri (2003-2004).
- Mendeberri-HUHEZI. Lanbilera nagusia AOI-PBL metodologia sustatzeko/ Informe sobre la reunión general en el marco de Mendeberri acerca de la implementación de la metodología PBL (13/07/2004).
- Mendeberri ikasleen ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak/ Criterios de evaluación del alumnado en el marco Mendeberri (25/06/03).
- Mendeberri hobekuntzaren ardatzak/ Ejes de la mejora del Proyecto Mendeberri (2003).
- Mondragon Unibertsitateko Eleaniztasun Eredua, 2000.
- 2002ko Haur Hezkuntzako Curriculumaren antolaketa/ Organización del currículum de Educación Infantil, 2002.
- Haur Hezkuntzan eleaniztasuna suspertzeko behin-behineko proposamena/ Propuesta para la promoción del multilingüismo en la Educación Infantil (17/12/2001).
- Mendeberri adierazleak eta neurgailuak (2008), HUHEZI / Indicadores y criterios de evaluación. Mendeberri Proiektua (2008), HUHEZI.
- Mondragon Unibertsitateko Eleaniztasun Eredua, 2000.

### (b) Mendeberri Proiektuari buruzko Biltzarretako Artikuluak eta Argitalpenak

Erreferentzia hauetan HUHEZI Fakultateko irakasleek Mendeberri Hezkuntza Proiektuari egindako ekarpenak baino ez dira kontuan hartzen . Horiek denak proiektu horri buruzko hausnarketarako eta atzeraelikadurako balio izan dute.


Alzola, N., Arana, N. eta Sagasta, P. (2006). La tutorización en las Prácticas externas. Jardunbide Egokiak. Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Arregi, x., Bilbatua, M. eta Sagasta, P. (2004). Innovación curricular en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea: Diseño e implementación del perfil profesional del maestro de Educación Infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 18 (1): 109-129

Arregi, X. (2006). Proiecto globalizador (POPBL) en Educación Infantil (Didáctica en la Educación Infantil, Conocimiento del Medio y Lengua Escrita). Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Arregi, X. Zabala, J. eta Idigoras, A. (2006). Didáctica integrada (Didáctica de la Matemática, del Conocimiento del Medio y de la Lengua Oral). Metodología basada en el Estudio de casos. Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Barandiaran, A. (2006). Primer módulo. Metodología basada en Problemas. Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Barandiaran, A. eta Sagasta, P. ( 2004). Mondragon Unibertsitatea: organización e implementación de la metodología basada en problemas ( PBL) en la facultad de humanidades y ciencias de la educación. Unibertsitate Irakaskuntzaren III Iberoarmerikar Biltzarra. Deustuko Unibertsitatea.

Bilbatua, M. (2006). La mejora de la intervención de los tutores. Reflexión realizada desde la observación. Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Bilbatua, M. (M.) y Sagasta, P. (2006). Proceso de innovación en la titulación de maestro: metodologías implementadas, Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, Mondragon Unibertsitatea. (barne-dokumentua).

Galindez, E., Garcia, I., Mongelos, A., Sagasta, P. eta Sainz, M. (2006). Acercamiento a la medición de créditos ECTS en las titulaciones de Maestro y Psicopedagogía de M. U., Congreso II. Unibertsitateko Berrikuntza eta kalitateari buruzko Biltzarra. Jardunbide Egokiak. Deustuko Unibertsitatea.

Garcia, M., Barandiaran, A., Lopez de Arana, E., Martinez, A. eta Vitoria, J.R. (2008). El Aprendizaje basado en problemas en la formación inicial del profesorado: innovando para mejorar. Unibertsitate Irakaskuntzari buruzko V Biltzarra. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (aurkezteko). Martinez, A. (2006). El Prácticum basado en la metodología basada en Estudio de casos. Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Martinez, A., Larrea, I., Ramirez de Okariz, I., Vitoria, J.R., Bilbatua, M., Iñurrategi, N. (2008) La observación y reflexión sobre la práctica en el aula, eje de una experiencia interdisciplinar para la formación de futuros docentes. Unibertsitate Irakaskuntzari buruzko V Biltzarra. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (aurkezteko).

Ramirez de Okariz, I. (2006). La escuela y la Sociedad: primer módulo de los estudios de Maestro. Metodología basada en Problemas (PBL). Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremura Elkarganatzeko II Jardunaldiak: ikaskuntzan oinarritutako ereduak, Mondragon Unibertsitatea (argitaratu gabea).

Sagasta Errasti, Mª P. eta Barandiaran Arteaga, A. (2004a). Mondragon Unibertsitatea: organización e implementación de la metodología basada en problemas (PBL) en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. Unibertsitate Irakaskuntzaren III Iberoamerikar Biltzarra. Pedagogía universitaria: Hacia un espacio de aprendizaje compartido. Bilbo. Deustuko Unibertsitatea.

Sagasta Errasti, Mª P. eta Barandiaran Arteaga, A. (2004b). El aprendizaje basado en problemas (PBL). Organización y desarrollo en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea. Unibertsitate Irakaskuntza eta Berrikuntzari buruzko III Nazioarteko Biltzarra. Gironako Unibertsitatea. 2004ako ekainaren 30etik uztailaren 2ra.

Sagasta Errasti, M. P. (2005). Desarrollo y experimentación de un nuevo proyecto educativo: El proyecto Mendeberri en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad Mondragon. Mondragon Unibertsitatea. La Educación Superior hacia la Convergencia Europea: modelos basados en el aprendizaje. Mondragon: Mondragon Unibersitatea, 123-135. SS-827-2007.

Sagasta, P., Bilbatua, M. & Sainz, M. (2005). Curricular Innovation in the Faculty of Humanities and Educational Science at Mondragon University: Design and implementation of Problem-Based Learning. International workshop on Project Organized Problem Based Learning. Mondragon Unibertsitatea. Mondragon Goi Eskola Politeknikoa. ISBN 84-689-3901-3.

Sagasta Errasti, M.P. & Bilbatua Perez, M. (2006). La Titulación de maestro en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad Mondragón: Proceso de innovación educativa. *Educación Siglo XXI.* Murtzia. Murtziako Unibertsitatea. 77-95. ISSN: 1699-2105

Sagasta Errasti, M.P. y Bilbatua Perez, M. (2008) (prentsan). ¿Evaluación como herramienta o como obstáculo para el desarrollo del aprendizaje autónomo? In M. Castelló (ed.). *Evaluación auténtica*. Bartzelona: Edebé argilaletxea.

Sagasta Erraste, MP y Bilbatua Perez, M (2007). Análisis y reflexión sobre la práctica de un profesor de lengua vasca en un contexto de desarrollo de la conferencia plurilingüe, In: O. Guash y L. Nussbaum (eds). Aproximacions a la competencia multilingüe, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, 117-132.

Sainz, M. y Sagasta, P. (2004). Lo que los alumnos declaran que hacen, lo que valoran y lo que pueden hacer en lengua vasca y lengua inglesa. Eleaniztasuna, Eskola eta Irakasleriaren Prestakuntzari buruzko Jardunaldiak, 2004ko azaroa, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

Sainz, M. (2006). Euskarazko ikasleen hasierako formazioaren eragina: beren usteak eta konpetentziak/ La influencia de la primera formación de los alumnos en lengua vasca: sus creencias y competencias. In: J. Cenoz y Lasagabaster, D. *Hizkuntzak ikasten eta erabiltzen/ Apredniendo e usando las lenguas*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 137-156.

**(c) Beste ebidentzia batzuk**

Badira ere beste ebidentzia batzuk, aipatu bibliografia bezain nabarmenak ez izanik ere, 2003-2004. ikasturtean ezarri genuen Mendeberri Proiektuaren sendotasuna bermatzen dutenak, eta Espainiako eta atzerriko beste unibertsitate batzuen aitorpena jaso dutenak. Aitorpen horren erakusgarri gisa, hona hemen azken urteotan beste unibertsitate batzuetan emandako prestakuntza-ikastaroak eta, proiektu horrekin egindako berrikuntzak ezagutzeko asmoz, Fakultatean hartutako bisitak.

- *Unibertsitate-irakaskuntzari buruzko Prestakuntza Ikastaroak, honako unibertsitate hauen eskariz eginak. 20 eta 100 irakastordu bitarteko ikastaroak dira:*

  Murtziako Unibertsitatea: 2005-06.

  Rovira i Virgil Unibertsitatea: 2005-06 eta 2006-07.

  Euskal Herriko Unibertsitatea: 2006-07.

  Madrilgo Don Bosco Goi Mailako Irakaskuntza Zentroa: 2005-06.

  Itsaso Unibertsitatea (Valparaiso. Txile): 2006-07, 2007-08

  Los Lagosko Unibertsitatea (Osomo. Txile): 2006-07

  Artura Prat Unibertsitatea (Iquique. Txile): 2006-07 eta 2007-08.

- *Honako unibertsitate hauetatik etorritako irakasleen bisitak:*

  Santiago Compostelako Unibertsitatea. 2006-07.

  Valentziako Unibertsitatea: 2006-07.

  Euskal Herriko Unibertsitatea: 2006-07

  Gironako Unibertsitatea: 2006-07

  Rovira i Virgil Unibertsitatea: 2006-2007.

  Murtziako Unibertsitatea: 2006-07.

  Bartzelonako Unibertsitatea: 2006-07.

## 2.3. Ikasketa-plangintza prestatzeko erabilitako barne zein kanpo kontsultarako prozeduren deskribapena.

Fakultateak Kalitatearen Barne Bermeko Sistema bat (KBBS) ezarri du, ANECAren AUDIT programaren jarraibideen arabera egina (ikus memoria honetako 9 puntuko 02.1 prozesua). Prestakuntza-programa berrien onarpenaren diseinuarekin batera aurrera eraman beharreko prozesua jasotzen da bertan.

Erabilitako prozedurak honako hauek izan dira:

Barne-kontsultaren prozedura:

1. Diseinuaren koordinazioaz arduratzeko Talde Teknikoaren sorrera, honako hauek eratua: Hezkuntza Tituluen Zuzendaria, Sail Arduradunak, Irakasle Tituluen Koordinatzaileak, HEZIren Zuzendaria eta Idazkari Akademikoa.
2. Kontsulta, eztabaida eta kontrasterako bilerak Irakasle eta Ikerlariekin, Sailka eta koordinazio-organoka antolatua, bai eta irakasle-tituluarekin lotura zuzena duten Administrazioko eta Zerbitzuetako langileekin ere.

Proposamena prestatzeko prozesua bukatu ondoren, onarpena bi mailatan egiten da:

- Fakultatean: Zuzendaritza Batzordeak, Batzorde Akademikoak eta Errektore Kontseiluak bere onarpena eman behar du.
- Mondragon Unibertsitatean: Batzorde Akademikoan, Zuzendaritza Batzordean eta Errektore Kontseiluan onartzen da proposamena.

Kanpo-kontsultaren prozedura:

Iritzia eskatu zaie:

- Jardueran dauden profesionalei: irakasleak, pedagogoak…
- Bilerak egin dira egungo irakasle-ikasketen ikasleekin.

- Hezkuntza-zentroak.

## 3.- HELBURUAK.

3.1 Ikasleek beren ikasketa-prozesuan eskuratu beharreko gaitasun orokorrak eta espezifikoak, titulua emateko eska dakizkiekeenak.

### 3.1.1. Tituluaren helburu orokorrak

Lehen Hezkuntzako Irakasle tituluaren helburu nagusia da ikasleen hezkuntza-premia integralei aurre hartzeko eta, beraz, beren ikasleen egungo eta etorkizuneko premiei erantzuteko gai izango diren profesionalak prestatzea (ikasleen ingurune familiarra eta soziokulturala kontuan hartuta). Inguruabarrak kontuan hartuta eta eduki berriak, haiek antolatzeko modu berriak, metodologia berriak, tresna didaktiko berriak eta abar baliatuz, gizarte aldakor honi egokitzen jakingo duten profesional zuhurrak, sortzaileak eta konprometituak prestatzea. Horretarako ezinbestekoa da profesional horiek beren lanbidearen ikuspegi integratzailea eta orobiltzailea izatea eta argi edukitzea prestakuntza ez dela bizitzako jarduera puntual bat, baizik eta bizitzan zehar norberaren ahaleginez eta ohartuki haziz doan prozesua.

Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduak orotariko izaera izan behar duenez, ikasketa-plangintzaren helburua da balio anitzeko profesionalak eta, oroz gain, hezitzaile onak prestatzea, "jakin" eta "egiten jakin" gaitasunetan oinarri sendoak izango dituztenak, eta, gainera, "bizitzen eta besteekin lan egiten jakin"· eta "izaten jakin" gaitasunetan ongi prestatuta egongo direnak, irakaskuntzan lan egitera doan pertsonaren prestakuntza integral gisa ulerturik azken hori. Bestalde, zer ibilbide hautatzen duten, profesionalak hobeto prestatuta egongo dira beren ibilbidearen alor espezifikoarekin zerikusia duten jarduera didaktikoak behar bezala lantzeko.

### 3.1.2. Tituluaren profil profesionalak

Lehen Hezkuntzako irakasleek hezkuntza arautu eta derrigorrezko jarduera-esparruetan betetzen dute beren lana, 6tik 12 urtera bitarteko ikasleekin.

Profesional gehienek eskolaren esparruan dihardute, izan eskola publikoan, pribatuan edo itundutako eskolan. Bestalde, eskolatik kanpo ematen diren eskola-programak ere badira, eritasun kroniko eta luzeak dituzten, edota, beste edozergatik egoera berezietan dauden ikasleei zuzenduta.

Salbuespen gisa, profesional horiek material didaktikoak diseinatzen jardun dezakete, edota hezkuntzarekin zerikusia duen beste edozertan.

5.1.1. puntuan zehaztu dugun bezala, eta, hautatzen duen ibilbidearen arabera, profil orokor horretaz gainera, hautatuko ibilbideari dagokion profil espezifikoa garatu ahal izango du ikasleak. Hona hemen profil horiek zehatz azalduta:

*Lehen Hezkuntza Ibilbidea:* Ibilbide honen helburu orokorra da Lehen Hezkuntzako tutoreak prestatzea, adin horretarako Hezkuntza Proiektuak kudeatzeko gai izango direnak, eta hezkuntzaren inguruko hausnarketarako eta berrikuntzarako gaitasunak garatuko dituztenak. Aukera hori da egokiena titulu honetako ibilbideetan eskaintzen diren prestakuntza-bideetatik batek ere erabat bete ez eta lehen hezkuntzan eskolak eman nahi dituzten ikasleentzat.

*Hezkuntza Berezia Ibilbidea:* Ibilbide honen helburu nagusia da hezkuntzaren profesionalak behar bezala gaitzea lehen hezkuntzan esku hartzeko, curriculuma kudeatzeko, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntza espezializatua emateko balioko duten esku-hartze estrategiak garatzeko eskola-antolamenduaren maila desberdinetan, ikasleei egokitutako hezkuntza-erantzunak diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea erraztuko duten lankidetza-sareen sorrera bultzatuz.

*Gorputz Heziketa Ibilbidea:* Ibilbide honen helburu nagusia da etorkizuneko hezkuntzaren profesionalak gorputz heziketaren eta hezkuntza orokorraren arteko desberdintasunak ezagutzea, eta gorputz heziketaren berezitasunak kudeatzen jakitea hezkuntza integrala lortzeko mugimenduaren hezkuntzaren bidez.

*Atzerri Hizkuntza Ibilbidea:* Ibilbide honen helburu nagusia da hezkuntzaren profesionalak behar bezala gaitzea lehen hezkuntzako eskoletan esku hartzeko eta curriculuma kudatzeko, atzerri hizkuntza irakaskuntza-bitarteko gisa erabiliz hizkuntza gutxitu baten testuinguruan.

*Arte Hezkuntza Ibilbidea:* Ibilbide honen helburu nagusia da trebetasunak eta abildadeak garatzea bere baliabide sensoriomotore, kognitibo eta perzeptiboak, eta iritzia emateko, eta balorazio kritikoa eta adierazpenak egiteko baliabideak modu harmoniatsuan eta eraginkorrean erabili ahal izateko.

*Entzumena eta Mintzaira Ibilbidea:* Ibilbide honen helburu nagusia da hezkuntzaren profesionalak behar bezala gaitzea lehen hezkuntzako eskoletan esku hartzeko, curriculuma kudatzeko, eta komunikazioaren esparruan hezkuntza-laguntza espezifikoko beharrei erantzungo dioten esku-hartze estrategiak garatzeko. Esku-hartze logopedikoa sustatuko da, hizkuntza ikaskuntza-testuinguru naturaletan eta ikaskuntza-prozesu naturaletan erabiliz, eta ez hainbeste errehabilitazioa eginez. Esku-hartzea gela arruntean egingo da batez ere.

## 3.2. Ikasleek beren ikasketa-prozesuan eskuratu beharreko gaitasun orokorrak eta espezifikoak, eta titulua emateko eska dakizkiekeenak.

### 3.2.1. Mondragon Unibertsitateko zeharkako gaitasunak

Mondragon Unibertsitateak erabaki zuen 2000-2001 ikasturtean Mendeberri Hezkuntza Proiektuaren barruan hezkuntza-gaitasun komun batzuk garatzea ikasleen artean. Honako dokumentu honetan bilduta daude gaitasun horiek: “Zeharkako gaitasunak” (2000/11/02).

Hona hemen zehaztuta gaitasun horiek, bai eta haien definizioa ere:

**Talde-lana**

Helburu komunak lortzera zuzendutako lanetan beste batzuekin batera aritzea, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatuz, erantzukizunak nork bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoei aurre eginez.

**Komunikazio eraginkorra**

Han-hemen dagoen informazioa eskuratu, egiaztatu eta tratatzetik hasita, informazioa erabili, transmititu eta/edo sortu, dokumentazioa, gauzak egiteko modu berriak eta harreman errazak eta eraginkorrak sortuz egin beharreko lanen testuinguruan.

**Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua**

Proaktiboki jardun agertzen diren arazoen aurrean, erantzun alternatibo desberdinak planteatuz eta egin beharreko lanen testuinguruan aplikatzeko eta ebaluatzeko orduan erantzunik eraginkorrena hautatzeko aukera emango duten erantzun posible batzuk aurreratuz.

**Erabaki-hartzea**

Neurri bat, proposamen bat hautatu eta aplikatu, egin beharreko lanen testuinguruan planteatutako premiei eta/edo halabeharrei denbora eta modu egokian erantzuteko.

**Lanaren ikuspegi orokorra**

Ikasturtean zehar aurrera eraman beharreko zeregin eta jardueren irudi zabala izan, modu planifikatu eta antolatuan jokatu ahal izateko, baliabideak aurreratuz eta indarrak neurtuz, egin beharreko lanen arabera; heziketa-aldiak irauten duen bitartean irudi zabala eraikiz hautatuko lanbideaz, lanbidea horrek gizartean duen garrantziaz, eta denboran izan dezakeen bilakaeraz, irakaslea lan-munduan txertatzea errazteko eta haren karrera profesionala modu egokian planifikatu ahal izateko.

**Buruzagitza**

Beste pertsona batzuekin batera lan egiten jakin, pertsona horiek helburu komun bat lortzera zuzendutako dinamika batean inplikatzen eta gidatzen jakin, egin beharreko lanaren eta lan horrek dituen ezaugarrien (kalitatea, epeak, eta abar) ikuspegi orokorra eskainiz, norberaren eta taldearen interesak orekatuz.

**Ikasten ikasi**

Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko.

Horiek dira, beraz, titulu desberdinetan lantzeko asmoz oro har zehaztu ziren zazpi zeharko gaitasunak, baina esan beharra dago, ikasgai bakoitzetik xeheago eta zehatzago landu beharreko gaitasunak identifikatuko direla, ikasgaiaren eta aurrera eraman nahi diren agertoki metodologikoen arabera.

Gaitasun horiek lan-sistema desberdinen bidez lantzen dira, gradu-tituluaren aldi desberdinetan.

Planteamendu hau hiru ardatzen inguruan egituraturik dago:

1.- Inplikatutako eragileen sentsibilizazioa eta prestakuntza.

2.- Curriculumaren jarraipena eta koordinazioa.

3.- Ikasleen jarraipena eta koordinazioa.

Ikus dezagun, beraz, zertan datzan ardatz horietako bakoitza.

*1.- Inplikatutako eragileen sentsibilizazioa eta prestakuntza*

Lehen aldi honetan, sentsibilizazio eta prestakuntza lana egiten da ikasle eta irakasleekin, bi helburu hauek kontuan haturik:

a) Gaitasun horien garrantziaz eta etorkizuneko tituludunen lanaren proiekzioarekin duten lotura estuaz hausnartu.

b) Titulazioan zehar gaitasun horiek modu kontzientean eta eraginkorrean garatu eta landu ahal izateko behar diren ezagutza guneetan prestatu bai ikasleak bai irakasleak.

Helburu horiek lortzearekin batera, hauxe proposatzen da:

Ikasgaia: *Lehen Hezkuntzako irakasle lanaren definizioa eta kontestualizazioa eta gaitasun orokorren garapena:* Leku bat izango du titulazioaren hasieran, lehen ikasturtean, lehen ikasturteko lehen eta bigarren lau hilabeteetan, eta profil profesionalarekiko hurbilpen bat izango da, bere dimentsio guztietan: espezifikoak eta orokorrak. Halaber, hausnarketa egingo da profil horrek ikasketa-plangintzarekin dituen harremanez, eta titulazioan zehar aurkeztuko diren metodologia motez.

Heziketa-aioak ikasleekin: Aipatutako ikasgaiaren barruan heziketa-saio batzuk antolatuko dira, metodologia aktiboa erabiliko dutenak, ikasleek gero gaitasun orokorren garapenerako beharko dituzten ezagutzak barnera ditzaten. Garatu beharreko gaitasunak (talde-lanean aritzea, erabakiak hartzea, komunikazio eraginkorra lortzea, etab.) lantzeko helburuarekin ikasleek beren jarduerak eta zereginak aurrera eramateko behar dituzten eszenatokiak sortzen lagunduko digute metodologia aktibo horiek (Arazoetan Oinarritutako Metodologia, Kasuetan Oinarritutako Metodologia, edo Proiektuetan Oinarritutako Metodologia).

Heziketa-saioak irakasleekin: Koketibo horrek prestakuntza-saio batzuetan parte hartuko du, ikasleek jasotzen duten prestakuntzaren berri jakiteko, eta gaitasun horien jarraipen koherentea eta benetan zeharkakoa egin ahal izan izateko.

*2.- Curriculumaren jarraipena eta koordinazioa*

Gai guztietako zeharkako gaitasunak lantzeko orduan erredundantzia eta errekurtsibitatea funtsezkotzat jotzen bada ere, hori bezain garrantzitsua da curriculumaren bidez haien koordinazioa eta jarraipena egitea.

Zeharkako gaitasunen garapenari dagokionez, 3.1. taulan zehatzago ikus daiteke zer gaitasun orokor lantzen den modulu bakoitzean, bai eta gaitasun horien mapa orokorra ere.

Gainera, behar ziren neurri guztiak hartu dira (ikasgaien tutoreen mintegia, ikasgaien koordinatzaileen taldea, etab.), aipatu koordinazio eta jarraipen hori egiteko orduan honako hau jakiteko modua izateko:

- ikasgai bakoitzean zer zeharkako gaitasun lehenesten den;
- behar beste lantzen ez den gaitasunik ote dagoen;
- gaitasunak lantzeko moduan egiten den sekuentziazioa egokia ote den.

*3.- Ikasleen jarraipena eta koordinazioa.*

Adituek diotenez, gaitasunaren garapenari buruzko atzeraelikadura oinarrizko elementua da gaitasunetan oinarritutako curriculum batean (Monereo, 1994 eta 1996; Castelló, 1997). Hala, datu garrantzitsu hori kontuan harturik, tutoretza-sistema bat sortzea proposatzen dugu, ikasleak bere tutorearekin hausnartu eta ordu arte zeharkako gaitasunak egiaztatu ahal izan ditzan, zer neurritan, nolako oztopoak aurkitu dituen bidean, eta abar, eta gaitasun horiei eusteko behar duen laguntza jaso ahal izan dezan. Prozesu horretan ikasleak bere gain hartuko du bere portafolioa egiteko lana, eta bertan jasoko ditu bere gaitasun orokorren garapenaren inguruan antzemandako ebidentziak eta egindako gogoetak. Tutoreen, bere berdinen eta abarren gogoetak eta feedbacka jaso ahal izango ditu halaber portafolio horretan bertan.

### 3.2.2. Ikasleek beren ikasketa-prozesuan eskuratu beharreko gaitasun espezifikoak edo profesionalak, eta Lehen Hezkuntzako Irakasle titulua emateko eska dakizkiekeenak.

Gaitasun espezifikoak Lehen Hezkuntzako Irakaslearen profil profesionalari loturik daude. Hori dela eta, hezitzaile horren profil profesionala definituko dugu, beste ezer baino lehen.

Fakultateak Mendeberri Hezkuntza Proiektuaren barruan definitutako profil profesionala, "Mendeberri Proiektua Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean: Haur Hezkuntzako Irakaslearen Profil profesionala/ Proyecto Mendeberri: Perfil Profesional del maestro de Educación Infantil" izeneko dokumentuan jasoa, Lehen Hezkuntzako irakasle-profilari egokitu da, eta hainbat mailatan zehaztu: a) Profesional horrek betetzen dituen funtzioak eta b) Funtzio bakoitza behar bezala betetzeko gure ustez garatu beharreko gaitasunak.

Gaitasunak lau motatan bereiziko ditugu, Delors txostenean (1996) egindako planteamendutik aterata: gaitasun teknikoak (jakin), gaitasun metodologikoak (egiten jakin), gaitasun sozialak (egoten jakin) eta gaitasun pertsonalak (izaten jakin). "Jakin" eta "egiten jakin" inguruko gaitasunak Lehen Hezkuntzako Irakasle lana betetzeko baldintzak arautzen dituen abenduaren 27ko ECI/2007 Agindutik hartu ditugu, eta "egoten jakin" eta "izaten jakin" ingurukoak, berriz, guk hautatu eta txosten honetan bertan, dagokion sailean azaltzen ditugun metodologien bidez garatzen ditugu (ikus 5.1.2.).

***(a) Lehen Hezkuntzako Irakaslearen funtzioak:***

- Proiektu eta jarduera profesionalak koordinatzea.
- "Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektua" eta horri dagokion zikloari eta etapari buruzko jarduerak kudeatzea, garatzea, prestatzea eta ebaluatzea.

- Heziketa-jarduerak planifikatzea, diseinatzea eta garatzea.
- Ikasleriaren aniztasunari egokitutako heziketa-jarduerak sortzea eta ezartzea.
- Familiekiko harreman positiboak eta dinamikoak garatzea.
- Ikaskideekin eta beste instituzio batzuekin elkarlanean aritzeko moduak garatzea.
- Funtzio horiek garatzeko tresnaka garatzea: hizkuntzen eta teknologien garapena.
- Bizitzan zehar norberaren prestakuntza eguneratzea.

***(b) Gaitasun espezifikoak***

Sailkapen hori eraginkorra izan dadin, kasu batzuetan, gaitasun bat baino gehiago bildu dugu puntu berean.

**Jakin**

1.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen konplexutasuna eta aniztasuna ezagutu. Lehen Hezkuntzako oinarriak ezagutu.

1.2. Irakaslearen eta Hezkuntzaren garrantzia ulertu.

1.3. Irakaslearen profilaren gaitasun orokorren eta espezifikoen garapenaren azpian dauden oinarri teorikoak ezagutu.

1.4. 6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion irakaskuntza-ikaskuntza prozeduren inguruko didaktika eta ebaluazio ezagutzak ezagutu. Irakaslana ikasleen garapen integrala interakzionatzen eta estimulatzen jakitean datzala ulertu.

1.5. Lehen hezkuntzako eskolen osaketa eta antolaketa eta haien funtzionamenduak barne hartzen dituen ekintza guztiak ulertu. Kalitatea hobetzeko ereduak ezagutu eta hezkuntza-zentroetan aplikatu. Beste instituzio batzuekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutu.

1.6. Informazio eta komunikazio teknologiak ezagutu. Teknologia horiek (ikus-entzunezko hizkuntzak eta pantailak barne) gizartean eta hezkuntzan duten eragina ezagutu eta hartaz gogoeta egin.

1.7. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren eta curriculumaren ezaugarriak ezagutu. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua ezagutu. Lehen Hezkuntzako eskola-curriculuma ezagutu. Curriculumaren egokitze-prozesuak eta egokitze-estrategiak ezagutu.

1.8. Gizarte-zientziek, soziolinguistikak eta hezkuntzak testuinguruen analisiari eta hezkuntza-proiektuen diseinuaren azterketari egiten dizkieten ekarpenak ezagutu. Hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa ezagutu. Familiaren bilakaera ezagutu. Indarrean dagoen legedia ezagutu.

1.9. Errealitatea aztertzeko tresnak ezagutu.

1.10. Etengabeko prestakuntzarako dauden aukerak eta laguntzak ezagutu.

1.11. Lehen Hezkuntzako jakintza-arlo desberdinetako printzipio epistemologikoak eta haien arteko diziplinarteko lotura ezagutu (Matematika, Hizkuntza, Zientzia Esperimentalak, Gizarte-Zientziak, Musika-, plastika-, eta ikus-hezkuntza, Gorputz Heziketa, etab.).

**Egiten Jakin**

2.1. Ikasleriaren aniztasunari erantzungo dioten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatu, hala bakarka nola ikastetxeko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean.

2.2 Hizkuntza-ikaskuntzako egoerei eraginkortasunez heldu testuinguru kulturanitz eta hizkuntzanitzetan. Hizkuntza ofizialetan zuzentasunez eta egokitasunez hitz egin, irakurri eta idatzi eta atzerri hizkuntzan ahoz zein idatziz adierazteko gai izan.

2.3 Eskola-curriculumeko alor zientifiko eta kulturaleko testuen irakurketa eta iritzi kritikoa sustatu. Literatur heziketa eskuratu.

2.4 Ikasle guztien hezkuntza-premia espezifikoei, genero-berdintasunari, zuzentasunari eta herritartasun-hezkuntzaren balioak eratzen dituzten giza eskubideen errespetuari erantzungo dioten ikaskuntza-espazioak diseinatu eta arautu aniztasun-testuinguruetan.

2.5 Bizikidetza sustatu bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo, diziplina-arazoak konpondu, eta gatazkak modu baketsuan konpontzen lagundu.

2.6 Ikasleen ahalegina, iraunkortasuna eta diziplina pertsonala bultzatu eta aintzat hartu.

2.7 Tutoretza egiteko eta orientabidea emateko funtzioak behar bezala bete, bai ikasleekin bai haien familiekin, ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzunez. Familiak ulertzeko eta ulertarazteko trebetasun sozialak erakutsi.

2.8 Bizitzan zehar irakaslanak hobetzen eta aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitzen joan behar duela onartu.

2.9 Hezkuntza-komunitateko eta ingurune sozialeko sektore guztiekin elkarlanean aritu.

2.10 Irakaslanaren dimentsio hezitzailea onartu eta herritartasun aktibo baten aldeko hezkuntza demokratikoa sustatu. Hezitzailearen dimentsio guztiak garatu: zientifikoa, sinbolikoa, sortzailea, emozionala.

2.11 Jarrera kritikoa eta autonomoa izan jakintzarekiko, baloreekiko, eta instituzio sozial, publiko eta pribatuekiko.

2.12 Banakako eta taldekako erantzukizuna baloratu, etorkizun iraunkorra lortzeko bidean.

2.13 Gelako praktikez hausnartu irakaslana berritzeko eta hobetzeko.

2.14 Ikaskuntza autonomo eta kooperatiboaren aldeko ohiturak eta trebetasunak eskuratu eta ikasleen artean sustatu.

2.15 Ikaskuntzen, gizarte-hezkuntzaren eta kultur aberastasunaren aldeko informazioa (idatzizkoa, ikus-entzunezkoa) selektiboki bereizi.

2.16 Errealitate soziopolitikoak, soziolinguistikoak eta kulturalak eta haien konplexutasuna aztertzen jakin.

2.17 Hezkuntzak egungo gizartean betetzen duen funtzioa, eskaintzen dituen aukerak eta dituen mugak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen eta profesionalen oinarrizko konpetentziak ulertu.

2.18 Informazio eta komunikazio teknologiak ikasgelan aplikatu.

### 3.2.3. Gaitasunen prestakuntzaren banaketa ikasketa-plangintzako ikasgaietan.

**3.1. Taula**. Zeharkako gaitasunen presentziaren egiaztapena Lehen Hezkuntzako Gradu tituluaren ikasgaietan, profil profesionalaren arabera.

| MODULUA | *LA* | ***IO ER*** | *KO* | **K** | **GL** | **GI** | ***IK*** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. ikasturtea** | | | | | | | |
| 1.1. Lehen Hezkuntzako irakasle lanaren definizioa eta kontestualizazioa eta gaitasun orokorren garapena. | x | x | x | x | x | x | **x** |
| 1.2. Lehen hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak. | x | x | | | | | **x** |
| 1.3. Errealitatearen begirada orokorra: pertsona, gizartea eta natura | x | x | x | | | | **x** |
| 1.4. Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak. | x | x | x | | | | |
| 1.5. Hezkuntza-premia bereziko ikasleei emandako erantzuna esku-hartze esparru arruntetan. | x | | x | | | | **x** |
| 1.6. Eskola bat guztiontzat. | x | x | | | | | **x** |
| 1.7. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (I). | x | x | | | | | **x** |
| 1.8. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra I. | x | x | | | x | | **x** |
| 1.9. Hezkuntza Europan eta mundu globalean: jardunbide egokiak. | x | | | | x | | **x** |
| **2. ikasturtea** | | | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.1. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez L2 hizkuntza-curriculumeko testuinguruetan. | x | | | | | | **x** |
| 2.2. Matematiken irakaskuntza-ikaskuntza. | | x | x | | | | **x** |
| 2.3. Ahozko hizkuntzaren, hizkuntza idatziaren eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntza. | x | | x | | | | **x** |
| 2.4. Eskola-antolamendua eta familiaren parte-hartzea. | x | x | | | | x | |
| 2.5. Behaketa ikasgelan irizpide didaktiko orokorretatik abiatuta. | x | x | x | x | x | | **x** |
| 2.6. Hezkuntzaren erronkak eta funtzioak. | | | x | | | | **x** |
| 2.7. Kulturarteko hezkuntza eta balioen hezkuntza. | x | x | | | x | | |
| 2.8. Informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzan. | | x | | x | x | | |
| 2.9. Practicuma. | x | x | x | x | x | x | **x** |
| **3. ikasturtea** | | | | | | | |
| 3.1. Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren irakaskuntza-ikaskuntza eta bere zailtasunak II. | x | | | | x | | **x** |
| 3.2. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (II). | x | x | x | | | | **x** |
| 3.3. Gorputz-heziketa, osasuna eta ongizatea. | x | | x | | | | **x** |
| 3.4. Musika-, plastika- eta ikus-adierazpenaren oinarriak. | x | | x | | | | **x** |
| 3.5. Arte-hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua eta esku-hartzea. | x | x | | x | | | **x** |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.6. Jarduera soziokulturalak: proiektuen inplementazioa. | x | x | x | x | x | | |
| 3.7. Practicuma. | x | x | x | | x | x | **x** |
| **4. ikasturtea** | | | | | | | |
| 4.1. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra I. | x | x | | | x | | **x** |
| 4.2. Ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea Lehen Hezkuntzan. | x | | x | | x | | |
| 4.3. Practicuma. | x | x | x | x | x | x | |
| **4.4. Gradu amaierako lana.** | **x** | **x** | **x** | | **x** | **x** | **x** |

**3.2. Taula. Gaitasun espezifikoen presentziaren egiaztapena Lehen Hezkuntzako Gradu tituluaren ikasgaietan, profil profesionalaren arabera.**

| | **Gaitasun espezifikoak: JAKIN (1.1…1.11)**<br><br>**Ikus 3.2.2. puntua** | | | | | | | | | | | ***Gaitasun espezifikoak: EGITEN JAKIN (2.1. …2.18)***<br><br>***Ikus 3.2.2. puntua*** | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **G** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **1** | **1** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **1.1** | x | x | x | x | | | | | | | | | x | | | x | | | x | | x | | | x | | | | | |
| **1.2** | x | | x | | | | | x | | | | x | x | | x | | | | | | | | | x | | | | | x |
| **1.3** | | x | | | | | | x | | | x | | x | | | | | x | x | | | | | | | | | x | x |
| **1.4** | x | | | x | | | | x | | | | x | x | | x | x | | | | | | | | x | | | | | x |
| **1.5** | x | | | x | | | x | x | | | | x | | | x | | | x | | x | | | | | | | | | x |
| **1.6** | x | | x | x | | | x | | | | | x | x | | x | | | | | | | | | x | | | | | x |
| **1.7** | | | | | | | x | x | | | x | x | x | | x | | | | | | | x | | | x | x | x | | x |
| **1.8** | | | | | | | | | | | x | x | x | | | | | | | | | | | | x | | | | x |
| **1.9** | | | | | | | x | x | | | | x | x | | | | | | | | | | | x | | | x | | x |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **2.1** | | | x | x | | x | | | | | x | x | x | | | | | | | | | | | x | | | | | x |
| **2.2** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **2.3** | | | | | | x | | x | | | x | x | x | x | | | | | | | | | | | | | | | x |
| **2.4** | | | | x | x | | | x | | | | | | | | x | | x | | x | | | | x | | | | | |
| **2.5** | | x | x | x | | x | | x | | | | x | x | | | | | | | | | | | x | | x | | | x |
| **2.6** | | x | | | | x | | x | | | | | x | | | | | | | | x | x | | | | | | x | x |
| **2.7** | | | | | | | | x | | | | x | x | | | x | | x | | | | x | | | | x | | | x |
| **2.8** | | | | x | | x | | x | | | | | | | | | | x | x | | x | | | | | | | | x |
| **2.9** | | | | x | x | | | | x | | | x | x | | x | | x | x | | | x | | | x | | | x | | x |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **3.1** | x | | | x | | | x | x | | | x | x | x | x | x | | x | | | | | | | | | | | | x |
| **3.2** | | | | | | | x | x | | | x | | x | | x | | | | | x | x | x | x | | | | | | x |
| **3.3** | x | | x | | | | | | | x | x | x | x | | | | | | | | | | | x | | | | x | |
| **3.4** | x | | | x | | | | | | | x | x | x | | | | | | | | x | x | | x | | | | | |
| **3.5** | x | | | | | | x | | | x | x | x | | x | | x | | | | | x | | | | | | | | |
| **3.6** | | x | | | x | | | | | | x | x | x | | x | | | | | x | | | | | | | | | x |
| **3.7** | | | x | | | x | | | x | | x | x | x | | x | | x | x | | | | | | x | | | | | x |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **4.1** | | | | | | | | | | | x | x | x | | | | | | | | | | | x | x | | x | x | x |
| **4.2** | | | | x | | | | | | | x | x | x | | x | | | | | | | | x | | x | | | | x |
| **4.3** | | | x | x | x | | | | x | | | x | x | | x | | x | | | | | | | x | | | | x | x |
| **4.4** | | | | | | x | x | | x | | x | | x | | | | x | | | x | | x | | x | | x | x | | x |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

**Derrigorrezko ikasgaiak:**

1.1. Irakasle lanaren definizioa eta kontestualizazioa eta gaitasun orokorren garapena. 10 ECTS.

1.2. Lehen Hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak. 8 ECTS.

1.3. Errealitatearen begirada orokorra: pertsona, gizartea eta natura.

1.4. Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak. 6 ECTS.

1.5. Hezkuntza-premia bereziko ikasleei emandako erantzuna esku-hartze esparru arruntetan. 6 ECTS.

1.6. Eskola bat guztiontzat. 6 ECTS.

1.7. Gizarte Zientzien, Zientzia Esperimentalen eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (I). 6 ECTS.

1.8. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra. 6 ECTS.

1.9. Hezkuntza Europan eta mundu globalean. Jardunbide egokiak. 6 ECTS.

2.1. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez L2 testuinguruetan. 6 ECTS.

2.2. Matematiken irakaskuntza-ikaskuntza. 4 ECTS.

2.3. Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntza. 6 ECTS.

2.4. Eskola-antolamendua eta familiaren parte-hartzea. 6 ECTS.

2.5. Behaketa ikasgelan irizpide didaktiko orokorretatik abiatuta. 6 ECTS.

2.6. Hezkuntzaren erronkak eta funtzioak. 6 ECTS.

2.7. Kulturarteko hezkuntza eta balioen hezkuntza. 6 ECTS.

2.8. Informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzan. 6 ECTS.

2.9. Kanpo PRAKTIKAK. 8 ECTS (Behaketa ikasgelan).

3.1. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza eta zailtasunak (L1/L2) II.

6 ECTS.

3.2. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza II. 9 ECTS.

3.3. Gorputz-heziketa, osasuna eta ongizatea. 6 ECTS.

3.4. Musika-, plastika- eta ikus-adierazpenaren oinarriak. 6 ECTS.

3.5. Arte-hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua eta esku-hartzea. 9 ECTS.

3.6. Jarduera soziokulturalak: Diziplinarteko Proiektuen Kudeaketa. 6 ECTS.

3.7. Kanpo PRAKTIKAK (6 ECTS). (Didaktika espezifikoak).

4.1. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra II. 6 ECTS.

4.2. Ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea Lehen Hezkuntzan. 6 ECTS.

4.3. Kanpo PRAKTIKAK. 30 ECTS.

4.4. Gradu amaierako lana. 6 ECTS.

***(b) Gaitasun espezifikoak***

**Jakin**

1.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen konplexutasuna eta aniztasuna ezagutu. Lehen Hezkuntzako oinarriak ezagutu.

1.2. Irakaslearen eta Hezkuntzaren garrantzia ulertu.

1.3. Irakaslearen profilaren gaitasun orokorren eta espezifikoen garapenaren azpian dauden oinarri teorikoak ezagutu.

1.4. 6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion irakaskuntza-ikaskuntza prozeduren inguruko didaktika eta ebaluazio ezagutzak ezagutu. Irakaslana ikasleen garapen integrala interakzionatzen eta estimulatzen jakitean datzala ulertu.

1.5. Lehen hezkuntzako eskolen osaketa eta antolaketa eta haien funtzionamenduak barne hartzen dituen ekintza guztiak ulertu. Kalitatea hobetzeko ereduak ezagutu eta hezkuntza-zentroetan aplikatu. Beste instituzio batzuekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutu.

1.6. Informazio eta komunikazio teknologiak ezagutu. Teknologia horiek (ikus-entzunezko hizkuntzak eta pantailak barne) gizartean eta hezkuntzan duten eragina ezagutu eta hartaz gogoeta egin.

1.7. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren eta curriculumaren ezaugarriak ezagutu. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua ezagutu. Lehen Hezkuntzako eskola-curriculuma ezagutu. Curriculumaren egokitze-prozesuak eta egokitze-estrategiak ezagutu.

1.8. Gizarte-zientziek, soziolinguistikak eta hezkuntzak testuinguruen analisiari eta hezkuntza-proiektuen diseinuaren azterketari egiten dizkieten ekarpenak ezagutu. Hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa ezagutu. Familiaren bilakaera ezagutu. Indarrean dagoen legedia ezagutu.

1.9. Errealitatea aztertzeko tresnak ezagutu.

1.10. Etengabeko prestakuntzarako dauden aukerak eta laguntzak ezagutu.

1.11. Lehen Hezkuntzako jakintza-arlo desberdinetako printzipio epistemologikoak eta haien arteko diziplinarteko lotura ezagutu (Matematika, Hizkuntza, Zientzia

Esperimentalak, Gizarte-Zientziak, Musika-, plastika-, eta ikus-hezkuntza, Gorputz Heziketa, etab.).

**Egiten Jakin**

2.1. Ikasleriaren aniztasunari erantzungo dioten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatu, hala bakarka nola ikastetxeko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean.

2.2 Eraginkortasunez heldu hizkuntza-ikaskuntza egoerei testuinguru kulturanitzetan eta hizkuntzanitzetan. Hizkuntza ofizialetan zuzentasunez eta egokitasunez hitz egin, irakurri eta idatzi eta atzerri hizkuntzan ahoz zein idatziz adierazteko gai izan.

2.3. Eskola-curriculumeko alor zientifiko eta kulturaleko testuen irakurketa eta iritzi kritikoa sustatu. Literatur heziketa eskuratu.

2.4. Ikasle guztien hezkuntza-premia espezifikoei, genero-berdintasunari, zuzentasunari eta herritartasun-hezkuntzaren balioak eratzen dituzten giza eskubideen errespetuari erantzungo dioten ikaskuntza-espazioak diseinatu eta arautu aniztasun-testuinguruetan.

2.5. Bizikidetza sustatu bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo, diziplina-arazoak konpondu, eta gatazkak modu baketsuan konpontzen lagundu.

2.6. Ikasleen ahalegina, iraunkortasuna eta diziplina pertsonala bultzatu eta aintzat hartu.

2.7. Tutoretza egiteko eta orientabidea emateko funtzioak behar bezala bete, bai ikasleekin bai haien familiekin, ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzunez. Familiak ulertzeko eta ulertarazteko trebetasun sozialak erakutsi.

2.8. Bizitzan zehar irakaslanak hobetzen eta aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitzen joan behar duela onartu.

2.9. Hezkuntza-komunitateko eta ingurune sozialeko sektore guztiekin elkarlanean aritu.

2.10. Irakaslanaren dimentsio hezitzailea onartu eta herritartasun aktibo baten aldeko hezkuntza demokratikoa sustatu. Hezitzailearen dimentsio guztiak garatu: zientifikoa, sinbolikoa, sortzailea, emozionala.

2.11. Jarrera kritikoa eta autonomoa izan jakintzarekiko, baloreekiko, eta instituzio sozial, publiko eta pribatuekiko.

2.12. Banakako eta taldekako erantzukizuna baloratu etorkizun iraunkorraren eraikuntzan.

2.13. Gelako praktikez hausnartu irakaslana berritzeko eta hobetzeko.

2.14. Ikaskuntza autonomo eta kooperatiboaren aldeko ohiturak eta trebetasunak eskuratu eta ikasleen artean sustatu.

2.15. Ikaskuntzen, gizarte-hezkuntzaren eta kultur aberastasunaren aldeko informazioa (idatzizkoa, ikus-entzunezkoa) selektiboki bereizi.

2.16. Errealitate soziopolitikoak, soziolinguistikoak eta kulturalak eta haien konplexutasuna aztertzen jakin.

2.17. Hezkuntzak egungo gizartean betetzen duen funtzioa, eskaintzen dituen aukerak eta dituen mugak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen eta profesionalen oinarrizko konpetentziak ulertu.

2.18. Informazio eta komunikazio teknologiak ikasgelan aplikatu.

## 4.- IKASLEEN SARRERA ETA ONARPENA.

4.1. Matrikula egin aurretiko informazio-sistemak eta ikasle berriei harrera egiteko eta orientabidea emateko prozedurak.

Fakultateak Zentroen Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren (KBBS) eredua garatu du, ANECAren AUDIT programaren barruan. Informazio-, onarpen- eta orientabide-prozedurak, zeinek informazio-sistema bat, ikasle berriaren harrera, tutoretza eta prestakuntzarako laguntza hartzen baitute barnean, sistemaren parte bezala dokumentatuta agertzen dira.

Zehazki:

a) Informazio-sistemak: Titulazioaren Komunikazio Plana:

Hauek dira ikasle potentzialei titulazioari buruzko informazioa emateko erabiltzen diren zabalkunde-bideak:

- Batxilergoko ikastetxeetako bisitariak eta orientatzaileak.
- Titulazioaren aurkezpena Batxilergoko ikastetxeetan.
- Ateak zabaltzeko jardunaldiak.
- Feriak eta Foroak.
- Titulazioaren katalogoa.
- Web orria.
- Publizitate-kanpaina: prentsa, irratia, merchandising…
- Arreta pertsonalizatua, hala nahi duten ikasle eta gurasoei.

b) Sarrera eta onarpena:

Memoria honen hurrengo puntuan garatu da, 4.2. puntuan.

c) Prestakuntzari orientabidea eta laguntza emateko sistemak:

Fakultateak *Harrera Plan* bat dauka ikasle sartu berriarentzat, proiektu pedagogiko honen parte sentitu dadin, eta unibertsitate-bizitzako lehen uneetan bakarrik sentitu ez dadin. Programa honen helburua da ikasleak honako helburu hauek lortzea:

- Prestakuntza-prozesua egingo duen taldeko kide sentitzen hastea.
- Ikaslea bere prestakuntza-prozesuaren elementu giltzarriak aurkitzen parte hartzen hastea.
- Fakultateko zerbitzu guztietako langileekin (hau da, Liburutegi, Teknologia Berri, Kirol eta Osasun Zerbitzuetako langileekin), irakasleekin eta ikaskideekin harremanak sortzeko foroak izatea.

Xede horrekin, harrera jardunaldiak antolatzen dira ikasleekin, zeinetan beren garapen autonomoa lortzeko behar duten informazio garrantzitsuenaren berri ematen baitzaie ikasle sartu berriei:

- Unibertsitateari eta titulazioari buruzko informazioa. Kudeaketaren ardura Gradu Tituluaren Zuzendaritza Batzordeak hartzen du bere gain.
- Unibertsitatearen eta Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen aurkezpena, bere kultura kooperatiboa, zerbitzuak, titulazioa eta Mendeberri hezkuntza proiektua.
- Hautatutako Graduaren Ikasketa-Plangintzaren aurkezpena, bere egitura akademikoa eta bere ibilbidea hasteko aukera metodologikoa.
- Profil profesionalaren aurkezpena, garatu beharreko gaitasunak eta ikus-entzunezko sektoreko profesionalekiko lehen harremana.
- Fakultateko zerbitzuen aurkezpena.

4.2. Sarrera eta onarpena.

O2.2 prozesuak ikasle berrien sarrera eta onarpenerako eman beharreko urratsak ezartzen ditu. Horren arabera:

1. Sarrera-profila zehazten da eta argitaratzen da.
2. Hautapen, onarpen eta matrikulazio prozedurak zehazten eta komunikatzen dira.
3. Izen-ematea egiten da.
4. Izena emanda daudenen hautapen-prozesua egiten da.
5. Onartutakoen zerrenda argitaratzen da.
6. Matrikulazioa egiten da.

<u>Unibertsitatean sartzeko betebehar akademikoak:</u>

Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasle guztiak sar daitezke Unibertsitate honetan:

- LOGSE Batxilergo tituluaren edo baliokidearen jabe izan eta unibertsitatera sartzeko probak gainditu dituztenak.
- Goi Graduko Lanbide Heziketako titulu baten jabe direnak.
- Indarrean dagoen legediaren arabera Batxilergoko edo Goi Mailako Lanbide Heziketako tituluarekin homologa daitekeen atzerriko titulu baten jabe direnak.
- 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko tituluaren jabe direnak.

Aurreko betebehar horietako bat bete ondoren, plaza batzuk gordeko dira:

- Lanbide Heziketatik datozenentzat: plaza guztien %7, gehienez ere.
- 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko probetatik datozenentzat: plaza guztien %3, gehienez ere.
- Ezinduentzat: plaza guztien %3, gehienez ere.
- Gainerako plazak: LOGSE Batxilergoa eta dagokion sarrera-proba (selektibitatea) gainditu dutenentzat.

4.3. Matrikula egindako ikasleei orientabidea eta laguntza emateko sistemak.

Memoria honetako 4.1. atalean azaldutakoaz gainera, Fakultateak sistemak hauek ditu ikasleei orientabidea eta laguntza emateko:

1*. Ikasleei laguntza ematen laguntzen duten alderdi metodologikoak.* Erabiltzen diren metodologiek, zeharkako gaitasunen garapenarekin batera, ondorio prebentiboa izan dezakete ikaslearengan, eta gatazka pertsonalak saihesten lagun dezakete, edo gutxiagotzen, behintzat. Alderdi akademikoari dagokionez, unibertsitate-ikasketak aurrera eramateko behar diren ikasketa eta lan ohiturak eta estrategiak garatzen lagun dezakete. Horren haritik, eta 3.2 eta 5.1.2 ataletan azaldu dugun bezala, zeharkako gaitasunen garapena ahalbidetzen eta ikasleari bere ikasketaz arduratzen laguntzen dioten metodologiak erabiltzen ditugu. Gaitasun horiek curriculumeko ikasgai guztietan lantzen dira, batzuetan intentsitate handiagoz, beste batzuetan gutxiagoz, kasu bakoitzerako ezarritako helburuen arabera. Hona hemen ikasleari laguntza ematen laguntzen duten alderdi metodologikoak:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, zeinean ikasleak paper aktiboa hartzen baitu bere ikaskuntza-prozesuan.
- Irakasleriaren rol-aldaketa: irakasleak rol desberdinak hartuko ditu, ikaskuntza-helburuen eta ikaskuntza-espazioaren arabera. Hala, lan-saioen tutorea izango da batzuetan, hitzaldi magistraletan aditua besteetan, eragilea edo bideratzailea beste batzuetan, etab.
- Gardentasuna ikaskuntza-helburuen definizioan, banakako ikaskuntza eta etengabeko jarraipena behar duten gaitasun batzuen mailakako eskuratze prozesuan oinarrituta.

Aipatutako alderdi metodologiko horiek kontuan harturik (informazio gehiago 5.1.2. atalean), honela sailkatzen ditugu ikasleari laguntza eta orientabidea emateko

sistemak: a) erdietsi nahi dituzten helburuen arabera b) prestakuntza-plangintzan hartzen duten tokiaren arabera. Esparru pertsonalari eta akademikoari heltzen diete denek:

.- Harrera-unea eta lehen urtea (4.1. puntuan zehaztua).

.- Titulazioan zehar.

.- Azken urtea.

*2. Taldekako eta, hala badagokio, bananako tutoretza-saioa:*

Ikasturtea hasi eta hiru aste geroago tutoretza-saioak hasten dira, honako helburu honekin: Harrera-saioan orokorrean eskaini diren informazioetako batzuetan sakondu (araudia, ikasleak parte hartzeko dituen bideak, etab.), eta talde-jarraipena egin, bai gure proiektuan izandako hasierari dagokionez, bai sortutako zailtasunei eta zailtasun horien zer-nolakoei dagokienez. Zuzendaritzaren koordinazioan, zailtasunik arruntenak aztertu eta hobekuntza-plangintza bat diseinatuko da, datorren ikasturteari begira.

3. *1.1. Ikasgaia. Lehen Hezkuntzako irakasle lanaren definizioa eta kontestualizazioa eta gaitasun orokorren garapena:*

Ikasgai hau titulazioaren hasieran ematen da (lehen ikasturtean), eta hiru helburu nagusi ditu: 1) ikasleari laguntza ematea irakasle-lanbidearen profil profesionala imajinatzeko gauza izan dadin; 2) gaitasunen garapenerako plan bat zehaztea eta garapen horri hasiera ematea eta 3) ikasleei unibertsitatean erabiliko dituzten metodologiak azaltzea eta entrenamendu soil bat egitea. Ikasgai hau bi zatitan ematen da a) lehena, ikasturtearen hasieran eta b) bigarren, bigarren lauhilekoaren hasieran. Bi-biek helburu bera dute: garatu beharreko gaitasunen prestakuntza-sentsibilizazioa. Ikaskuntza horri jarraipena emango zaio hurrengo ikasturteetan talde txikitan egingo diren jarraipen-mintegien bidez. Horiek izango dira erreferentzia-taldeak gainerako ikasgaientzat, ikasleriaren jarraipena erraztearren eta tutore nagusiaren eta ikasgaiaren tutorearen arteko koordinazioa hobetzearren.

4. Hiru orientabide mota aurreikusten dira titulazioan zehar: (a) taldekako tutoretza, (b) jarraipen akademikoa eta (c) banakako tutoretza.

*(a) Taldekako tutoretza*

Gradu koordinatzaileen esku dago. Hona hemen zehaztuta jarraitu beharreko prozesua.

Koordinatzailea:

-*Koordinazio lana egiten du* ikaslea ikasgaietan eta ebaluazio-saioan gidatu duen irakasle *tutorearekin*, sor daitezkeen arazoak detektatzeko.

-*Koordinazio lana egiten du ikasleriaren ordezkariekin*, Fakultatearen funtzionamenduari eta ikasketa-plangintzaren jarraipenari buruz dituzten iritziak biltzearren. Ikasleak talde txikitan elkartzen dira eta haien koordinatzaileak urtean bi aldiz biltzen dira gradu horretako zuzendaritza-taldearekin. Talde horiei "Jarraipen Taldeak" esaten zaie. Azken helburua da ikasleak bere gain hartzea titulazioaren antolakuntza-kudeaketaren eta akademia-kudeaketaren jarraipenaren eta hobekuntzaren erantzukizuna.

-*Taldearekin elkartzen da* talde-dinamikaren jarraipena egiteko. Beste erantzukizun batzuk: kanpo praktikei eman beharreko orientabidea, ERASMUS, hautapen libreko kredituak, jarraipen-taldeetan egindako proposamenei buruzko atzeraelikadura, gaitasunen ikaskuntza aurrera eramateko orientabide orokorrak, eta abar.

*(b) Jarraipen Akademikoa:*

Gure proiektu pedagogikoan ikaslearengana hurbiltzeko aukera ematen diguten estrategiak lehenetsi ditugu, haren ikaskuntza eta garapen-prozesua erraztearren. Hori dela eta, taldeak txikiak dira, eta haietako bakoitzean bada tarte bat jarraipen-saioa izenekoa, ordutegian kontuan hartzen dena. Saio horietan irakasleek aukera dute ikasgaietako bakoitzean lantzen diren gaitasunen jarraipena egiteko. Horretarako, ikasleen banakako eta taldekako hausnarketatik abiatzen da. Saio horien helburua da ikasgaia lantzeko orduan sor daitezkeen zailtasunak detektatzea eta haiek gainditzeko hartu beharreko neurriak hartzea (programazioaren egokitzapena, errefortzu-ariketak, azalpenak banakako tutoretzetan, etab.).

*(c) Banakako tutoretzak*

Taldearen tutoreak beharrezko deritzon banakako jarraipen guztiak egingo ditu, ikasleen eskaeren arabera, edo irakasleekiko koordinazio-saioetan haiengandik bildutako informaziotik abiatuta.

*5. Titulazioaren bukaeran –Orientabide Jarduerak-*

Aipatutako jarduera horiez gainera, graduaren zuzendaritza-taldeak aste beteko plangintza antolatuko du ikasten jarraitu nahi duten ikasleei ikasketa-orientabidea emateko eta ikasleak lan merkatuan txertatzeko egin beharreko urratsei begira. Orientabide hori "Orientabide Jarduerak direlakoen bidez ematen da. Jarduera horien dinamizazio-lana koordinazio-taldearen esku dago, eta txostengile gisa parte hartzen dutenen artean Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sareetako enplegu-emaileak eta hezkuntza-jarduera ez-formalak kudatzen dituzten beste eragile batzuk izaten dira.

Azkenik, tutore-koordinatzaileak orientabide akademikoa eta pertsonala eskaintzen du talde horietako bakoitzean, taldean zentratuagoa eta pertsonalizatuagoa, era horretan ikasleen eta taldearen aukerak, zailtasunak, egoera pertsonalak eta abar aztertzeko.

4.4. Kredituen transferentzia eta onarpena.

**Mondragon Unibertsitatean edota beste Unibertsitate batean ikasketa ofizialak hasiak dituzten ikasleen sarrerarako eta onarpenerako kredituen onarpen-sistemaren eta transferentzia-sistemaren araudi-esparrua.**

**<u>Kredituen onarpena</u>**

Ikasleak Mondragon Unibertsitatean edo beste edozein unibertsitatetan egindako irakaskuntza ofizialetan lortu eta, titulu ofiziala lortzearren, Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduaren irakaskuntzetan zenbatzen diren kredituak onartzeari esaten zaio kredituen onarpena.

a) Ikasketa-espedientea Unibertsitate batetik Mondragon Unibertsitatera lekualdatzean, edo Unibertsitate honen barruan irakaskuntza ofizialez aldatzean, ikasleak lortu nahi duen titulua jakintza-alor berekoa baldin bada, automatikoki onartuko zaizkio ikasleari adar horretako oinarrizko prestakuntzaren gaiei dagozkien kredituak, aurreko ikasketetan lortu izana egiaztatzen duen kreditu-kopuruaren antzeko irakas-karga batekin.

b) Ikasketa-espedientea Unibertsitate batetik Mondragon Unibertsitatera aldatzeko eskatzean, edo Unibertsitate honen barruan irakaskuntza ofizialez aldatzean, ikasleak lortu nahi duen titulua beste jakintza-alor batekoa baldin bada, orobat onartuko zaizkio ikasleari aurreko ikasketetako oinarrizko prestakuntzaren gaiei dagozkien kredituak, baldin eta lortu nahi duen tituluaren jakintza-alor berekoak baldin badira, aurreko ikasketetan lortu izana egiaztatzen duen kreditu-kopuruaren antzeko irakas-karga batekin.

c) Fakultateak bere onespena eman ahal izango die gainerako kredituei, ikasleak egindako gainerako ikasketekin loturiko gaitasun eta ezagutzak ikasketa-plangintzan aurreikusitakoekin ongi egokitzen badira, edo zeharkako izaera badute, eta baldin eta irakas-karga, ECTS kredituetan, antzekoa baldin bada.

d) Aurreko ataletan adierazitakoaren arabera onartutako kredituak zenbakizko kalifikazio baten bidez baloratuko dira, 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Kreditu transferentzia.**

Ikasleak Mondragon Unibertsitatean edo beste edozein Unibertsitatetan aldez aurretik egindako ikasketa ofizialetan lortu, baina bere ikasketa-ibilbidea frogatzen duten dokumentu akademiko ofizialetan inongo titulu ofizialik eman ez dioten kreditu guztiak aintzat hartzeari esaten zaio kreditu-transferentzia.

## Ikasketa-espedientea.

Ikaslearen ikasketa-espedientean ikasleak Mondragon Unibertsitateko edo beste edozein Unibertsitateko irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guzti-guztiak jasoko dira, izan transferituak, onartuak edo gaindituak, kasu bakoitzari dagokiona zehaztuz. Onartutako kredituen kasuan, informazio hau adieraziko da: atxikita dauden unibertsitatea, irakaskuntza ofizialak eta adarra; lortutako gaiak eta irakasgaiak, kreditu-kopurua eta lortutako kalifikazioa.

## Tituluaren Europar Gehigarria

Tituluaren Europar Gehigarriak ikasleak Mondragon Unibertsitateko edo beste Unibertsitate bateko irakaskuntza ofizialetan titulua eskuratzeko lortutako kreditu guztiak islatuko ditu, izan transferituak, onartuak edo gaindituak, ikasketa-espedienterako zehaztu diren espezifikazio berberekin.

## 5.- IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA.

5.1. Irakaskuntzen egitura..

### 5.1.1. Gaiak eta irakasgaiak

Mondragon Unibertsitateko Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduaren titulua irakaskuntza-ikaskuntza unitate akademiko zabalen bidez antolatzen eta egituratzen da: guk **gaiak** deitzen ditugun matrikulako administrazio-unitateen bidez, hain zuen.

Gaiek diziplinarteko izaera dute eta irakasle-tituluaren profil orotarikoa eratzen duten gai-multzo handien arabera definitzen dira ikasketa-plangintza honetan. ECI/3857/2007 (BOE 312/2007) AGINDUAN jasota dagoen modulukako sailkapen-proposamenaren arabera sailkatzen eta banatzen ditugu: Oinarrizko Prestakuntza (Hezkuntza-prozesuak eta hezkuntza-testuinguruak, Nortasunaren ikaskuntza eta garapena, Gizartea, familia eta eskola), Prestakuntza didaktiko diziplinarra (Zientzia esperimentalen irakaskuntza-ikaskuntza, Matematikak, Hizkuntza, Musika-, plastika- eta ikur-hezkuntza, eta Gorputz Heziketa), Practicuma eta Gradu amaierako lana. Agindu horretan proposatzen diren modulu gehienak bat datoz gaiak diziplinarteko esparru desberdinetan banatzeko Mendeberri Proiektuan egindako sailkapenarekin (Gizartea, familia eta eskola; irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta ikerketa-prozesuak eskolan; Didaktika espezifikoak eta Informazioa eta komunikazioa). Gu, hemen, sailkapen horri lotuko gatzaizkio, ondoko taulan zehaztu dugun bezala.

Irakurketa errazteko, bi taula aurkezten ditugu: lehenengoan (5.1.) ibilbide guztientzat komuna den curriculuma agertzen da, eta bigarrenean (5.2.), berriz, ibilbideetako bakoitzaren hautazko gaiak eta ibilbide guztientzat komunak diren hautazko gaiak zehazten dira.

**5.1. taula.** ECTS kredituen banaketa Lehen Hezkuntzako Irakasle GRADUaren ikasketa-plangintzaren modulu eta ikasgaien arabera.

| Modulu mota<br>ECI/3857/2007 AGINDUA | ECTS | Ikasgai-mota diziplinarteko esparruen arabera |
|---|---|---|
| **Oinarrizko prestakuntza** | 60 | |
| Hezkuntza-prozesuak eta hezkuntza-testuinguruak | | 1.1. Lehen Hezkuntzako irakasle lanaren definizioa eta kontestualizazioa eta gaitasun orokorren garapena.<br>1.2. Lehen Hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak<br>1.6. Eskola bat guztiontzat<br>2.5. Gelako behaketa irizpide didaktiko orokorretatik |
| Ikaskuntza eta nortasunaren garapena | | 1.4. Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak<br>1.5. Hezkuntza-premia bereziko ikasleei emandako erantzuna esku-hartze esparru arruntetan |
| Gizartea, familia eta eskola | | 1.3. Errealitatearen begirada orokorra: pertsona, gizartea eta natura<br>2.4. Eskola-antolamendua eta familiaren parte-hartzea<br>2.6. Hezkuntzaren erronkak eta funtzioak |
| **Hezkuntza didaktiko** | 100 | |

| **diziplinarra** | | |
|---|---|---|
| Zientzia esperimentalen irakaskuntza-ikaskuntza<br><br>Matematikak<br><br>Gizarte zientziak | | 1.7. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (I)<br><br>2.2. Matematiken irakaskuntza-ikaskuntza<br><br>2.7. Kulturarteko hezkuntza eta balioen hezkuntza<br><br>3.2. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (II)<br><br>2.8. Informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzan |
| Hizkuntzak | | 1.8. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra<br><br>2.1. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez L2 hizkuntza-curriculumeko testuinguruetan<br><br>2.3. Ahozko hizkuntzaren, hizkuntza idatziaren eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntza (I)<br><br>3.1. Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren irakaskuntza-ikaskuntza eta bere zailtasunak (II)<br><br>4.1. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra (II)<br><br>1.9. Hezkuntza Europan eta mundu globalean Jardunbide egokiak |
| Musika-, plastika- eta ikus-hezkuntza | | 3.4. Musika-, plastika- eta ikus-adierazpenaren oinarriak<br><br>3.5. Arte-hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua eta esku-hartzea |
| Gorputz heziketa | | 3.3. Gorputz-heziketa, osasuna eta ongizatea |

| | | |
|---|---|---|
| Hezkuntza didaktiko diziplinarraren modulu komuna | | 3.6. Jarduera soziokulturalak Diziplinarteko Proiektuen Kudeaketa<br>4.2. Ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea Lehen Hezkuntzan |
| **Practicuma eta Gradu Amaierako Lana** | 50 | |
| | | 2.9. Practicuma (I)<br>3.7. Practicuma (II)<br>4.3. Practicuma (III)<br>4.4. Gradu amaierako lana |
| **Hautazko gaiak** | 30 | |
| Hezkuntza-ibilbideetako hautazko gaiak (ikus 5.2. taula) | | - Lehen Hezkuntza<br>- Atzerri-hizkuntza<br>- Arte-hezkuntza<br>- Hezkuntza Berezia<br>- Gorputz Heziketa<br>- Entzumena eta Mintzaira |
| Hezkuntza-ibilbide guztientzat komunak diren hautazko gaiak | | Euskaldunak munduan zehar<br>Haur liburuen animazioa<br>Gizarte-aldaketa eta informazioaren aroa<br>Erlijio katolikoa Kristautasuna egungo munduan<br>Ikus-entzunezko bitartekoak gelan |

| | | |
|---|---|---|
| | | Soziolinguistika<br><br>Garapenerako lankidetza<br><br>Giza garapena ikus-entzunezkoaren gizartean<br><br>Astialdirako hezkuntza<br><br>Frantsesa<br><br>Euskal kultura: eraikuntza eta transmisioa<br><br>Idazketa sortzailerako tailerra |

**5.2. taula. ECTS kredituen banaketa Lehen Hezkuntzako Irakasle GRADU tituluaren IBILBIDE desberdinen ikasketa-plangintzaren modulu eta gaien arabera.**

| IBILBIDEA | | | |
|---|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zaintzearen eta Autonomiaren Pedagogia** | HLH 4.1. Bizitza, ikasteko lekua (6 ECTS)<br><br>HLH42 Ikerketa gelan (6 ECTS) | HLH 2.1. Kalitatezko bizitza baterako hezkuntza: norberaren zaintza, bestearen zaintza eta elkarbizitzarako hezkuntza (6 ECTS) | HLH 3.1. Kultur ondarearen azterketa (6ECTS)<br><br>HLH32 Astialdirako hezkuntza (6 ECTS) |
| **Gorputz heziketa** | HGH 4.1. Gorputz heziketa bere didaktika (II) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen diseinua<br><br>(12 ECTS) | HGH 2.1. Sarrera-modulua Gorputz Heziketaren kontestualizazioa (6 ECTS) | HGH 3.1. Gorputz heziketa eta bere didaktika (I) Curriculuma (6 ECTS)<br><br>HGH 3.2. Haurraren garapena eta motrizitatea (6 ECTS) |
| **Arte-hezkuntza** | HAHe 4.1. Arte-adierazpenerako proiektu didaktiko interdiziplinarrak<br><br>(12 ECTS). | HAHe 2.1. Arte-hizkuntza-, estetika eta sormena<br><br>(6 ECTS) | HAHe 31. Arte-adierazpenaren oinarri psikopedagogikoak Lehen Hezkuntzan (6 ECTS)<br><br>HAH 3.1. Arte-adierazpenerako prestakuntza teknikoa eta instrumentala (6 ECTS) |
| **Atzerri Hizkuntza** | HAHi 4.1. Hizkuntza-hezkuntzaren garapenerako ikerketa eskolan (6 ECTS) | HAHi 2.1. Informazio eta komunikazio teknologien ekarpena eleaniztasunaren | HAHi 3.1. Eleaniztasunaren garapena hizkuntza gutxituen testuinguruetan (6 ECTS) |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | HAHi 4.2. Bizitza, ikasteko lekua (6 ECTS) | garapenari (6 ECTS) | HAHi 3.2. Hirugarren hizkuntzen didaktika: Hizkuntza eta curriculuma (6 ECTS) |
| **Hezkuntza Berezia** | HHB 4.1. Laguntza behar espezifikoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna (II)<br><br>HHB 4.2. Ikasteko zailtasunetan esku-hartzeko estrategiak (6 ECTS) | HHB 2.1. Laguntza-sistema XXI. mendeko hezkuntzan. Esparru barne-hartzailea, esku-hartze esparruak, zereginen profilak (6 ECTS) | HHB 3.1. Laguntza behar espezifikoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna (I) (9 ECTS)<br><br>HHB 3.2. Autodeterminazioa eta bizi-kalitatea (3 ECTS) |
| **Entzumena eta Mintzaira** | HEM 4.1. Ordezko komunikazio-sistemak<br><br>HEM 4.2. Zailtasunak eta tratamendua irakurketa-idazketa trebetasunen garapenean (3 ECTS)<br><br>Entzumen-aparatuaren anatomiaren oinarriak, entzumen-arazoen patologiak eta hezkuntza-tratamendua (6 ECTS) | HEM 2.1. Laguntza-sistema XXI. mendeko hezkuntzan Esparru barne-hartzailea, esku-hartze esparruak, profilak eta zereginak (6 ECTS) | HEM 3.1. Pentsamenduaren eta hizkuntzaren bilakaera-alderdiak eta hizkuntza-arazoen hezkuntza-tratamendua (6 ECTS)<br><br>HEM. 3.2. Aparatu fonoartikulatorioaren anatomiaren oinarriak, mintzatzeko zailtasunen patologiak eta hezkuntza-tratamendua (6 ECTS)<br><br>(6 ECTS) |

240 ECTSak 60na kredituko lau ikasturtetan banatzen dira. Titulua moduluka eta gaika antolatzen da, eta gai bakoitzean gaitasun jakin batzuk eskuratu behar dira ("jakin" eta "egiten jakin"), gai bakoitzari dagokion fitxan zehaztu ditugunak (ikus 3.2. taula).

ECI 3857/2007 Aginduari jarraituz, modulu hauetan banatua dago titulua:

**5.3. taula. Modulukako egitura.**

| IZAERA | OINARRIZKO PRESTAKUNTZA | DIDAKTIKO DIZIPLINARRA | HAUTAZKOAK |
|---|---|---|---|
| MODULUAK | Gizartea, familia eta eskola | Hizkuntzak | Ibilbideak |
| | Hezkuntza-prozesuak eta hezkuntza-testuinguruak | Zientzia esperimentalen, Matematikaren, Gizarte zientzien eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza | |
| | Ikaskuntza eta nortasunaren garapena | Musika-, plastika- eta ikus-hezkuntza | |
| | | Gorputz heziketa | |
| | | Prestakuntza didaktiko diziplinar guztientzat komunak | |

Gai bakoitza dagokion moduluari atxikitzen zaio.

Oinarrizko hezkuntzako ikasgaiek eta derrigorrezkoek (Practicuma eta Gradu amaierako lana barne) ikasleak egin beharreko ECTS guztien %88 hartzen dute. Derrigortasun maila handi hori ECI/3857/2007 Aginduan jasota dagoen proposamenari zor zaio.

Kasurik gehienetan, gai bakoitzak 6 ECTS ditu, adituen uste hori delako curriculuma eta bere inplementazioa behar bezala banatzeko kreditu-kopuru egokiena. Dena dela, badira salbuespen gutxi batzuk. Aparteko kasutzat daukagu azken ikasturteko Practicuma, 30 ECTS dituena.

Oinarrizko heziketaren 60 ECTSak sarrera-gaietan eta ibilbide guztientzat komunak diren gaietan banatuta daude. Ikasgai horiek guztiak lehen eta bigarren ikasturteetan ematen dira eta 6 ECTS kredituz osatuta daude, bi izan ezik: “Irakasle-lanbidearen definizioa eta kontestualizazioa” sarrera-gaia (10 kreditu) eta “Lehen Hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak” ikasgaia (8 kreditu).

Prestakuntza didaktiko diziplinarreko gaiak intentsitate txikitik handirako hurrenkeran banatzen dira lehen ikasturtetik laugarrenera bitarteko ikasturte guztietan Interesgarritzat jo da ikasleak hasieratik ezagutzea didaktika diziplinarrak eskaintzen duen zehaztapena eta espefizikotasuna, eta, horregatik, gai didaktiko diziplinar batzuk sartu dira lehen eta bigarren mailan (18 eta 28 ECTS dituztenak, hurrenez hurren).

Ibilbideei dagokienez (ibilbideko hautazko gaiak), eta lehen esan dugun bezala, hona hemen gure aukera: Lehen Hezkuntza, Gorputz Heziketa, Hezkuntza Berezia, Arte Hezkuntza, Entzumena eta Mintzaira eta Atzerri Hizkuntza. Ibilbide bakoitzak 30 ECTS ditu. Ibilbideei dagozkien moduluak bigarren, hirugarren eta laugarren mailan ematen dira.

Derrigorrezko gaien arteko bik oinarrizko funtzio praktikoa betetzen duten gaitasunen garapenean: Practicumak (44 ECTS: (8 bigarren mailan, 6 hirugarren mailan eta 30 laugarren mailan) eta Gradu amaierako lanak (6 ECTS laugarren mailan). Laugarren mailako Practicumak eta Gradu amaierako lanak ikasketa-

plangintzan hartzen duten kokapenari dagokionez, biak ala biak ikasketen azken lau hilabeteetan ematen dira. Izan ere, gradu ikasketetan zehar garatutako gaitasun nagusien laburbiltze, laburpen eta aplikazio lanak dira.

5.4. taulan zehaztu ditugu Practicumaren eta Gradu amaierako Lanaren helburuak.

**5.4. taula: Practicumaren eta gradu amaierako lanaren helburuak.**

| Practicuma IKASTURTEA | ZER GAIREKIN DAGOEN LOTUA | HELBURUAK |
|---|---|---|
| **2. ikasturtea** | Oinarrizko Hezkuntzako moduluak | Gelaren behaketa irizpide didaktiko orokorretatik abiatuta |
| **3. ikasturtea** | Didaktika espezifikoen moduluak | Aztertu, didaktika espezifikoen esparruan berritzeko helburuarekin |
| **4. ikasturtea** | Diziplinarteko moduluak | Ikerketa eta berrikuntza gelan |
| **Gradu amaierako lana** | Graduan zehar landutako curriculuma eta gaitasun guztiak | Ikasketetan eta praktiketan eskuratutako gaitasunetan trebatzeko lana |

Taulan zehazten den bezala, kreditu horiek lotura zuzena dute gai jakin batzuekin, eta ikasleak Practicumak eta dagokion gaiak komunean dituzten jarduerak eta lanak egin behar ditu. Hona hemen zehaztuta:

- 2. ikasturteko Practicuma: Eskolan informazioa modu sistematikoan biltzeko eszenatoki egokia eskaintzen du. Zenbait bitarteko erabiltzen ditu horretarako (behaketa, egunkaria, portafolioa etab.). Horren helburua da ikasleak irizpide didaktiko orokorren inguruan eta ikastetxearen antolaketaren eta kudeaketaren inguruan behatzeko, aztertzeko eta hausnartzeko gaitasunak garatu ahal izatea. Kanpo Praktika hauek bigarren mailako Oinarrizko Prestakuntzako gaiekin loturik daude.

- 3. ikasturteko Practicuma: Alor diziplinar egokiak, haien diziplinarteko harremanak, haietako bakoitzaren printzipio epistemologikoak, ebaluazio-irizpideak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozedurei dagozkien ezagutza didaktikoen multzoa ezagutzeko eszenatoki egokia eskaintzen du. Halaber, gela-praktikez, irakaslana berritzeko eta hobetzeko moduaz, eta ikaskuntza autonomo eta kooperatiborako trebetasunak eskuratzeko eraz hausnartzeko aukera eskaintzen du. Kanpo Praktika hauek hirugarren mailako Prestakuntza Didaktiko Diziplinarreko gaiekin loturik daude.

- 4. ikasturteko Practicuma: Ikasleak bere irakaslanaz hausnartzeko (autoebaluazioa) eta praktika profesionalaz gogoeta egiteko (ikastetxea, programak, profesionalak eta erabiltzaileak) eszenatoki egokia eskaintzen du, hobetzeko dauden gauzak identifikatuz eta praktika hori hobetzeko estrategiak planifikatuz. Horretarako, hobekuntza-proiektu bat egingo du, arazoak identifikatzeko eta zehazteko behar diren gaitasunak garatzeko, eta arazo horiei irtenbidea emateko behar diren estrategiak lantzeko. Kanpo Praktika horiek laugarren mailako Diziplinarteko Proiektuekin loturik daude.

- Gradu Amaierako Lana: Lan honek aukera ematen du hezkuntza-teoria eta hezkuntza-praktika harremanetan jartzeko, ikerketak egiteko, beste irakasle batzuen praktikaz hausnartzeko, eta, halaber, hobekuntza-proposamenak egiteko. Hezkuntza komunitateko eta gizarte inguruneko eragileen arteko elkarlana errazten du, gainera. Azkenik, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua sakon ezagutzea sustatzen du, bai eta ikasketetan eskuratutako gaitasunak ebaluatzeko modua ere, era horretan norberaren eta lanbidearen ezagutza hobetuz.

### 5.1.2. Prestakuntza-jarduerak eta lan-karga

Kreditu bakoitzari ikaslearen 25 lan orduko balioa ematen zaio. Beraz, ikasturte oso batek 1.500 orduko dedikazioa eskatzen du. Gaien programazioak eta ikasturtekako koordinazioak ordu horiek egutegi akademikoaren 38-40 eskola asteetan zehar uniformeki banatzen direla bermatu beharko dute.

Prestakuntza-jardueren tipologiari eta lan denbora presentzialen antolakuntzari dagokionez, eredu orokor bat ezartzen da titulaziorako, Mondragon Unibertsitatearen araudiarekin bat datorrena.

Jarduera presentziala, oro har, lan-karga osoaren %40 izango da, gehienez ere. Salbuespen gisa, Practicumean, alderantzizkoa izango da proportzioa: lan-kargaren %60 izango da presentziala. Jarduera presentzial horretarako, zer metodologia aplikatzen den (Arazoen bidezko ikaskuntza, Proiektuen bidezko ikaskuntza, Kasuen azterketa edo antzeko metodologiak), ikasle-taldeak interakzioa eta ikaskuntza bermatuko duten talde txikiagotan banatu ahal izango dira. Kasu bakoitzean zer metodologia erabiltzen den, jarduera presentzial jakin batzuk ezarriko dira, ikasleak gai bakoitzaren barruan landu beharko dituenak.

Hona hemen metodologia horiek gaingiroki azalduta:

- *Arazoetan oinarritutako ikaskuntza.* Maastrichteko Unibertsitateak garatutako ereduan oinarritua (PBL) (Schmidt, 1983; Van Til eta Van Der Heidden, 1998; Rodríguez, 2004; Top L. Sage, 1998; Woods, 1994). Eredu honetan ikasleak lau ikaskuntza eszenatokitan egingo du lan astean zehar: PBL saioetan, hitzaldian, saio praktikoan eta jarraipen-saioan. Lau eszenatoki horiek elkarren osagarriak dira eta ardatz bat dute elkarrekin: arazoa. Arazoak, gainera, akuilu gisa balio du ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzera bultzatzeko, eta arazoetan oinarritutako

prozesu horren zikloari hasiera ematen dion elementua da, gainera. (Arregi, Bilbatua eta Sagasta, 2004).

- *Kasuetan oinarritutako ikaskuntza.* Metodologia hori Harvardeko Unibertsitatean erabili zen lehen aldiz, zuzenbide-ikasketetan. Kasua egoera erreal baten deskribapen gisa defini daiteke, eta eskola antolakuntzari, familiarekiko harremanei, arazo indibidualei edo gelako egoerei egin diezaieke erreferentzia, helburua zein den. Ikasleek ikuspegi desberdinetatik aztertzen dituzte kasuak, moduluaren helburua zein den. Jardunbide egokien kasuak, zeinetan deskribatutako egoerak irakasleek ikastetxeko antolakuntzaren inguruan, irakaslearen esku hartzeko moduaren eta abarren inguruan hartutako erabakiak aztertzeko balio baitu, erabaki horien funtsa hobeto ulertze aldera. Egoera arazotsuen edo irekien kasuak, zeinetan ikasleek konponbide alternatiboak bilatzen baitizkiete kasuan aurkeztutako arazoei. (Wassermann, 1994; Bilbatua eta Sagasta, 2005, 2006)

- *Proiektuetara zuzendutako arazoetan oinarritutako ikaskuntza (POPBL).* Aalborgeko Unibertsitatearen eredua hartu da erreferentziatzat (Rosenorn, 2003; Kolmos, A, 2004; Moursund. 1999; ITESM, 1999). Ikaskuntza-prozesua ikastetxe batean ikusitako edo irakasleriak proposatutako arazo erreal baten inguruan egituratzen da. Ikasleek, talde txikitan antolatuta, arazoa aztertu eta arazo horri erantzuteko proiektu bat egiten dute. Maisu graduaren titulazioan, POPBL metodologia irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat da, zeinean ikasleek, talde txikitan antolatuta (hiru ikasle, gehienez ere) proiektu bat planifikatzen eta garatzen baitute, egoera arazotsu baten azterketatik sortutako galderetako batzuei erantzuna ematen saiatzeko. Egoera arazotsu hori erreala izan daiteke kasu batzuetan, eta itxurazkoa, beste batzuetan. Ikasleek tutorea izango dute lagun prozesu osoan zehar. (Bilbatua eta Sagasta, 2005, 2006).

Gaien sekuentziazioaren puntuan aipatu genuen bezala (5.1.3), gure ustez halako progresio bat dago hiru metodologia horien artean (Sagasta eta bilbatua, 2005), helburuetatik (1), trebetasunen garapenetik (2), ikasleak kudeatzen duen informazio kopurutik (3), zeregina egiteko behar duen denboratik (4) eta irakasleak jokatzen duen paperetik (5) eratortzen baita sekuentziazioa. Hona hemen

zehaztuta (ikus 5.5. taula), metodologia horien sekuentziazioaren inguruan egindako hausnarketa:

**5.5. taula**. Hartutako metodologien arteko sekuentziazioa (Bilbatua eta Sagasta, 2006).

| **Aztertutako faktoreak** | **Metodologiak eta inplementatutako estrategia didaktikoak: progresioa** | | |
|---|---|---|---|
| | **Arazo konponketa** | **Kasu azterketa** | **Arazo konponketa eta proiektuetan oinarritutako antolakuntza** |
| **Helburua: ikaslearengandik espero dena** | Egoerak ulertu, arazoa identifikatu eta interpretatu | Irtenbideak baloratu edo egoera espezifikoetarako alternatibak aurkitu | Egoera konplexuen aurrean irtenbideak diseinatu |
| **Ikasleak garatutako trebetasunak** | Ikasten ikastearekin eta lan kolaboratiboarekin zerikusia duten trebetasun oinarrizkoak | Behaketarekin eta egoera konplexuen azterketarekin zerikusia duten trebetasunak | Alternatibak bilatzearekin eta prestatzearekin zerikusia duten trebetasunak |
| **Ikasleak kudeatzen duen informazio kopurua** | Informazio mugatua<br><br>Irakurketa ulerkorra | Azterketara eta haren oinarrietara zuzendutako informazioa | Informazio bilaketa Iturri desberdinak erabiltzea |
| **Ikasleak kudeatu beharreko denbora** | Oso denbora mugatua modu autonomoan kudeatua izateko | Denbora gehiago kudatzeko | Taldearen lan autonomoa |
| **Irakaslearen papera** | Tutorea eta irakaslea | Azterketa eta hausnarketa | Taldearen prozesua |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | bideratzeko tutorea | bideratzeko tutorea |

Hala ere, metodologia horiek era askotara konbinatu daitezke, dagoeneko aipatutako faktoreen arabera eta sekuentziazioaren atalean (5.1.3.) nabarmendutakoen arabera.

### 5.1.3. Irakaskuntzen denborazko plangintza eta sekuentziazioa

Gaiak planifikatzeko eta sekuentziatzeko orduan, bi irizpide orokor hartu dira kontuan:

Lehena 1393/2007 Errege Dekretuan zehaztuta dago, zeinaren bidez oinarrizko irakaskuntzak Graduaren lehen bi ikasturteetan emateko, praktiken parte bat laugarren mailan eskaintzeko eta Gradu amaierako Lana ere ikasketak amaitzean egiteko nahitaezkotasuna ezartzen da.

Bigarrena, berriz, txosten honetan dagoeneko zehaztu den profil profesionaletik eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak gaien sekuentziazkoari eta erabili beharreko metodologiei buruz finkatutako irizpideetatik datozen sekuentziazio-irizpideek markatua dago. Hona hemen zehaztuta, a grosso modo, kontuan hartu diren faktoreak:

1) Ikasi beharreko edukiek berek eta haiekin loturiko gaitasunek duten konplexutasuna, edo, bere kasuan, ikasleak aldez aurretik izan beharreko ezagutza. Konplexutasun horretan hainbat faktorek dute eragina: edukiari berari dagokion konplexutasuna (abstrakzio maila handia duelako, ikaslearentzat arrotza gertatzen delako, etab.), eta eduki horren izaera diziplinar edo diziplinartekoari berari zor zaiona.

2) Ikasleak eginkizun duen zereginetik eta ematen zaion laguntzatik, eta bi elementu horien konbinaziotik eratortzen den konplexutasun kognitiboa (Bloom, 1956; Biggs, 2005). Konplexutasun horrek egitekoaren ezaugarrietan du jatorria: kontzeptuak ulertu, kontzeptuak deskribatu,

teoriaren eta praktikaren arteko erlazioa bilatu, fenomenoak identifikatu, sailkatu, orokortu, zereginarekin zerikusia duten testuak erlazionatu, etab.

3) Erabilitako metodologiatik eratortzen den konplexutasuna, 5.5. taulan zehaztua duguna.

Hiru faktore horiek, edukien konplexutasuna, zereginaren konplexutasuna, eta erabilitako metodologiatik eratortzen dena, gai bakoitzaren proposamen didaktiko guztietan konbinatzen dira, eta elkarrekin lotzen. Halako moduan non gai bakoitzeko "ikaslearen gida didatikoa" prestatzeaz arduratzen den *tutore-taldeak* (ikus 5.1.6. puntua) edukiaren konplexutasun-mailaren arabera egokitzen baitu metodologia eta, hala badagokio, zeregin mota, ikaslearentzat potentzialki eskuragarri (ikasgarri) bihurtzeko. Tutore-mintegiek gai guztietan egiten dute egokitzapen-prozesu hori (ikus 5.1.6.). Gai beraren inguruko tutore-mintegietan hartutako erabakiak Tutore guztien Mintegian kontrastatzen da gero eta Titulazio Zuzendaritzan aurkezten dira oniritzia jasotzeko.

Metodologien sekuentziazioari dagokionez, metodologiak irakaskuntza-ikaskuntza helburuetara egokituko dira, eta baita gai bakoitzean agindutako zereginen aurrean ikasleak erakusten duen eskuragarritasunera ere. Nolanahi dela ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikasleek arrakasta izango dutela ziurtatu beharko dute tutoreek, era honetara: (a) "ikaslearen gidan" jasotako zeregin eta jardueren bidez, eta (b) tutoreak berak eta taldeko kideek (berdinen arteko interakzioari esker) ikasgai horretako ikaskuntza-saioetan eskainitako interakzio eta prestakuntzari esker.

Bestalde, azpimarratu beharra dago ezen, alde batetik, duten izaera instrumentalagatik, eta, bestetik, profil profesionalean ematen diegun garrantziagatik, Informazio eta Komunikazio Teknologiekin eta Lehen Hezkuntzako irakaslearen hizkuntza eta komunikazio gaitasunen garapenarekin zerikusia duten gaitasunak sartu ditugula zeharka. Hori dela, sekuentziazio bat ezarri da bi jakintza-arlo horien barruan, eta, gero, bi alor horiei dagozkien gaitasunak curriculumeko gai guztietan sartu dira. Dagokion atalean aurkeztu ditugun gaien

fitxetan ikus daitekeen bezala, gauza bera gertatzen da gaitasun espezifikoekin eta zeharkakoekin (ikus 3.2.3 atala eta 3.1. eta 3.2. taulak).

Azpimarragarria da heziketa-taldeak egin duen hausnarketa zeharkako tratamenduaren egokitasunaz eta eraginkortasunaz gaitasun batzuen curriculumaren barruan, hala nola hizkuntza gaitasunen eta informazio eta komunikazio teknologiei buruzko gaitasunen barruan. Gauza jakina da bi gaitasun-talde horiek (hizkuntza eta komunikazio gaitasuna, batetik, eta gaitasun teknologikoak, bestetik) erabiltzaileak (ikasleak, kasu honetan) ematen dien erabilgarritasunaren eta erabileraren esker garatzen direla: zenbat eta gehiago erabili testuinguru adierazgarrietan, orduan eta gehiago garatzen dira. Bestalde, hizkuntza-erabileren eta teknologia-erabileren testuinguruak askotarikoak dira (ahozko azalpena auditorio batean, ahozko parte-hartzea mintegi batean, proiektu baten idatzizko aurkezpena, bilaketa bibliografikoa interneten, blog didaktiko baten eraikuntza, etab.) eta testuinguru horiek erabilerak aldatzen dituzte (tresnak, formak, edukiak, etab.). Hori dela eta, gaitasun horiek curriculumeko gaien barruan eta haien bidez zeharka garatzeko beharra ikusten dugu. Haien erabileran eta haien egokitzapenari eta egokitasunari buruzko hausnarketan garatuko ditu ikasleak gaitasunok.

Dagoeneko aipatu ditugun sekuentziazio faktoreak kontuan hartuta, hona hemen zehaztuta gaien sekuentziazioa Lehen Hezkuntzako Irakaslearen curriculumean zehar. Gai bakoitzak profil profesionalari egiten dizkion ekarpenak bildu dira.

**Lehen ikasturtea** programatzean hauek dira ikasleei jartzen zaizkien helburuak:

- Irakaslearen profilaz, gaitasunez eta funtzioez hausnartzea.
- Lehen Hezkuntzako etaparen ezagutzara eta etapa horren curriculuma funtsatzen duten oinarri psikopedagogikoetara hurbiltzea.
- Egungo gizartea aztertzeko, interpretatzeko eta ulertzeko behar diren ezagutzak eta tresnak eskuratzea, eztabaida-jarduera desberdinen bitartez.
- Ikasleen garapen ebolutiboaren eta nortasunaren ezaugarriei buruzko ezagutzak garatzea, haien aniztasuna kontuan hartuta.

- Ikasleen aniztasunari emandako erantzun egokiarekin zerikusia duten gaitasunak garatzea, bai irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren azpian bai aniztasunarekiko arretarako neurri arrunten azpian dauden printzipio pedagogiko eta estrategia metodologiko desberdinen ezagutzan eta aplikazioan jarririk arreta.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragina duten faktoreak ezagutzea, ikasle guztien parte-hartzea eta garapena sustatzea helburu izango duen hezkuntza-esparrua eraikitzeko.

- Premia espezifikoak dituzten ikasleen aldeko hezkuntza-laguntzako neurriak garatzeko eta kudeatzeko gaitasunak lantzea, familiarekin eta beste profesional batzuekin elkarlanean.

- Bizi garen errealitatearen ikuspegi kritikoa garatzea, curriculumaren bidez egungo gizarte-arazoak eta ingurugiro-arazoak lantzeko beharraz sentsibilizatzeko eta kontzientzia hartzeko.

- Oinarrizko komunikazio-trebetasunak garatzea curriculumeko hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa), eta hizkuntza horietako alderi literario, soziolinguistiko eta kulturalei buruzko ezagutza izatea.

- Irakasle-lanean berrikuntzak duen garrantzia ezagutzea eta hartaz hausnartzea.

**Bigarren ikasturtean** helburua hau da: aurreko ikasturtean jasotako prestakuntzan oinarri hartuta ikasleak oinarrizko gaiei buruzko ikuspegi zabalagoa eta integratzailea izatea eta didaktika espezifikoekin trebatzen hastea. Bestalde, lehen harremana izango du eskolarekin, Practicumaren bidez. Lehen esperientzia horrek aukera emango dio hezkuntza-praktika aurretiko irizpide batzuen arabera behatzeko eta aztertzeko. Bestalde, prestakuntza eta hausnarketa horrek irakasle profila eratzen lagunduko diotela espero da. Hauek dira ikasturte honetako helburu nagusiak:

- Familiekin harreman positiboak eta dinamikoak sortzeko eta mantentzeko ezagutza eta gaitasunak eskuratzea.

- Familiak eta hezkuntza-komunitatea haurren heziketan eta ikastetxeko jarduera orokorrean inplikatzeko gaitasunak eta metodologiak garatzea, kalitate-kudeaketako irizpideak kontuan hartuta.

- Erreferentzia instituzionalei buruzko ezagutza eskaintzea.
- Gelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzeko eta diseinatzeko irizpideak garatzea. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak behatzeko metodologia eta baliabideak eskuratzea.
- Eskolak lehen mailako gizarte eragile gisa jokatzen duen paperaz hausnartzea eta hezkuntzan eragina duten faktore sozioekonomikoak eta kulturalak aztertzea.
- Pentsalari eta hezitzaile nabarmenek hezkuntzari egindako ekarpenez hausnartzea.
- Hezkuntza egoera desberdinez kontzientzia hartzea, hezkuntza-testuinguru kulturanitzak eta eleanitzak kudeatzen jakitea, eta balioen hezkuntzaren garrantzia ikasleengan sustatzen jakitea.
- Ikaslea prestatzea Informazio eta Komunikazio Teknologien eraginaz gogoeta egin dezan eta gaitasunak garatzea hezkuntza-praktikan sar ditzan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aberaste aldera.
- Ezagutzak eta estrategiak eskuratzea eraginkortasunez heltzeko hizkuntza-ikaskuntzako egoerei testuinguru kulturanitzetan eta eleanitzetan.

**Hirugarren ikasturteak**, orotariko irakaslearen prestakuntzara zuzenduta, helbururik diziplinarrenetan jartzen du arreta. Ikasturte honetan oso ongi ezagutu behar ditu Lehen Hezkuntzako ikasleek ikasten dituzten jakintza-arloen didaktika espezifikoak: Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen, matematiken, hizkuntzaren, gorputz heziketaren eta arte hezkuntzaren (musika-, plastika- eta ikus-hezkuntzaren) irakaskuntza-ikaskuntza. Ikasturte honi aipatutako didaktika espezifikoekin lotzen diren kanpo praktiketako batzuk atxikitzen zaizkio. Bestalde, ikasleek Lehen Hezkuntzako ikasleei eta haien familiei zuzendutako jakintza-arlo desberdinen ikaskuntza-testuinguruak kudeatu, diseinatu, arautu eta ebaluatuko dituzte, "Jarduera soziokulturalak. Diziplinarteko Proiektuen Kudeaketa" izeneko gaiaren barruan garatuko diren eskolaz kanpoko testuinguru sozialetan. Beste gai eta jakintza-alor batzuk biltzen dituen gai globalizatzaile bat da, izaera sozializatzaile handikoa, bere azken helburua jolas eta hezkuntza jarduera batzuk antolatzea baita, irakasle-ikasketak egiten ari diren ikasleen ardurapeko eskola dagoen tokian. Hirugarren ikasturteko helburuak dagoeneko aipatu ditugun

ibilbideen hautazko gaiekin osatzen dira. Hauek dira ikasturte honetako helburu nagusiak:

- Lehen Hezkuntzako ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin zerikusia duten printzipio psikopedagogikoak ulertzea ahalbidetzea.
- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak testuinguru eleanitzetan ulertu, diseinatu, aztertu eta ebaluatzeko ezagutzak eta trebetasunak eskaintzea. Aniztasuna tratatzeko ezagutza sustatzea. Ezarritako helburuekin ongi egokitzen diren baliabideak bereizteko eta justifikatzeko ezagutza eta trebetasunak eskaintzea.
- Ikasleak Ingurumenaren Ezagutza alorraren irakaskuntza-ikaskuntzarako gaitzea.
- Gizarte zientziak, zientzia esperimentalak eta teknologia beste gai batzuen (batez ere matematikaren, ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren) osagarri izateko bitartekoak jartzea. Beraz, Lehen Hezkuntzako etapa honetan ikasleak irakaskuntza-ikaskuntzaren ikuspegi globala eta diziplinartekoa izatea da helburua.
- Ikaslea lehen hezkuntzako haurren pertzepzio-, adierazpen- eta sormen-gaitasunen garapenean oinarrizkoa den dimentsio artistikoaren azterketara hurbiltzea.
- Informazioaren teknologien bidez ikaslea informazio eta komunikazio gaitasunetan gaitzea.
- Ikaslea lehen hezkuntzako haurren pertzepzio-, adierazpen- eta sormen-gaitasunen garapenean hain oinarrizkoa den dimentsio artistikoaren azterketara hurbiltzea.
- Ikaslea jarduera fisiko desberdinak praktikatzearen eragina ezagutzeko eta horren inguruan hausnartzeko gaitzea, jarduera fisikoari buruzko jarrera egokia eta proaktiboa izateko esperientzia eta tresnak eskuratuz, ikaslearen beraren ohiturak praktika fisiko osasungarrietara bideratu, eta beste pertsona eta/edo taldeetan bizitzaren kalitatea hobetzera zuzendutako programak sustatu.

- Etorkizuneko irakaslea ingurunearekiko konpromiso soziokulturala hartzearen alde eta bere hezkuntza-baliabide integralak erabiltzearen alde prestatu.
- Lehen Hezkuntzako curriculum-alorrak, haien arteko diziplinarteko harremana, ebaluazio-irizpideak eta dagozkien irakaskuntza-ikaskuntza prozeduren inguruko ezagutza didaktikoen multzoa ezagutzea.
- Irakaslana berritzeko eta hobetzeko eta ikaskuntza autonomo eta kooperatiborako trebetasunak eskuratzeko gela-praktikez hausnartzea.

**Azkenik, laugarren ikasturtean, Gradu prestakuntza burutzen da, zenbait alderditan:** Azkenik, laugarren ikasturtean buru ematen zaio Gradu prestakuntzari, zenbait alderditan: 1) Bi gai didaktiko diziplinar lantzen dira, hirugarren ikasturteko helburuen osagarri; (2) Dagozkion ibilbideak osatzen dira, zeinetan ikasleak hautazko gaiak aukeratzeko aukera baitu; (3) Ikasturte honi atxikitzen zaizkio kanpo-praktika guztiz gehienak, zeinak funtsezkoak baitira gradu profesional batean eta gradu amaierako lanean, ikasleek tituluari loturiko gaitasunen eskuratze-maila froga dezaten. Hauek dira ikasturte honetako helburu nagusiak:

- Irakaslanaz gogoeta egitea, hobetu beharreko alderdiak identifikatuz, eta hutsuneak hobetzeko estrategiak planifikatuz.
- Hobekuntza-proiektu bat egitea haren bidez arazoak identifikatzen eta haiei aurre egiteko estrategiak aukeratzen ikasteko, eta Lehen Hezkuntzaren esparruan irtenbideak bilatzeko eta lehenesteko.
- Aurreko ikasturteetan landutako dimentsioetatik (zientziak, adierazpen artistikoa eta hizkuntza) egindako ekarpen teoriko eta praktikoak laburbiltzea eta haien inguruan hausnartzea. Hezkuntza-etapa honetan hain garrantzitsua den ikuspegi globalizatzaile eta integratzailearen ikuspegiaren garapenean eragiten saiatzea.
- Ezagutza, garapena, kontsolidazioa eta oinarrizko komunikazio-trebetasunen ebaluazio-gaitasuna eskaintzea curriculumeko hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa), bai eta hizkuntza horietako alderdi literario, soziolinguistiko eta kulturalei buruzko ezagutza ere.

- Hezkuntza-teoria eta hezkuntza-praktika elkarrekin lotzeko, irakaslanaz eta norberaren praktikaz ikertzeko eta hausnartzeko, eta hobekuntza-proposamenak egiteko gaitasuna erraztea.
- Hezkuntza komunitateko eta gizarte inguruneko eragileen arteko elkarlana erraztea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ezagutza sakonagoa sustatzea.

### 5.1.4. Ebaluazio-prozedurak eta ebaluazio-teknikak

Ebaluazioa egiterakoan aintzat hartuko da bai errendimendua bai ebaluazio-jarduera desberdinen arteko konbinazio orekatu baten bidez egindako ikaskuntzak. Eskuratuko ikaskuntzez gainera, beste zenbait alderdi ere ebaluatuko dira, hala nola informazioaren tratamendua, prozesuari buruzko gogoeta, talde-lanean izandako parte hartzea, ahozko eta idatzizko komunikazioa, analisirako zein sintesirako gaitasuna, eta arrazoibide kritikoa. Hori guztia egiteko ebaluazio-mota desberdinak erabiliko dira: masa kontzeptualak prestatzea, gogoeta-egunkariaren erredakzioa, erakusketa eta eztabaidetan parte hartzea, teoria eta praktika elkarrekin lotzen duten proposamenen aurkezpena, etab.

Ikasleak ikasten duen gai bakoitzaren etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa egingo da. Bestalde, Practicuma eta Gradu Amaierako Lana ebaluatuko dira. Azken hori ahoz azaldu beharko da eta epaimahai baten aurrean defendatu.

Ikasturtean bi ebaluazio-deialdi egitea erabaki da: lehena, ikasgaia bukatu bezain laster, eta bigarrena, uztailean.

### 5.1.5. Ikasketa-plangintzaren koadro-laburpena (moduluak, gaiak, kredituak, ikasturtea)

**5.6. Taula.** Curriculumaren antolamendua gaika eta ikasturteka.

| MODULUAK | GAIAK | ECTS | IKASTURTEA |
|---|---|---|---|
| **OINARRIZKO PRESTAKUNTZA** | | **60** | |
| | 1.1. Irakasle lanaren definizioa eta kontestualizazioa eta gaitasun orokorren garapena | 10 | 1 |
| **Gizartea, familia eta eskola** | 1.3. Errealitatearen begirada orokorra: pertsona, gizartea eta natura | 6 | 1 |
| | 2.6. Hezkuntzaren erronkak eta funtzioak | 6 | 2 |
| | 2.4. Eskola-antolamendua eta familiaren parte-hartzea | 6 | 2 |
| **Hezkuntza-prozesuak eta hezkuntza-testuinguruak** | 1.2. Lehen Hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoa | 8 | 1 |
| | 2.5. Behaketa ikasgelan irizpide didaktiko orokorretatik abiatuta | 6 | 2 |
| | 1.6. Eskola bat guztiontzat | 6 | 1 |
| **Ikaskuntza eta nortasunaren garapena** | 1.4. Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak | 6 | 1 |
| | 1.5. Hezkuntza-premia bereziko ikasleei emandako erantzuna esku-hartze esparru arruntetan | 6 | 1 |
| **PRESTAKUNTZA DIDAKTIKO DIZIPLINARRA** | | **100** | |
| **Hizkuntzak** | 1.8. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra (I) | 6 | 1 |
| | 2.3. Ahozko hizkuntzaren, hizkuntza idatziaren eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntza | 6 | 2 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | 3.1. Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren irakaskuntza-ikaskuntza eta bere zailtasunak | 6 | 3 |
| | 4.1. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra (II) | 6 | 4 |
| | 2.1. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez L2 hizkuntza-curriculumeko testuinguruetan | 6 | 2 |
| | 1.9. Hezkuntza Europan eta mundu globalean | 6 | 1 |
| **Zientzia Esperimentalen, Matematiken, Gizarte Zientzien eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza** | 1.7. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (I) | 6 | 1 |
| | 2.2. Matematiken irakaskuntza-ikaskuntza | 4 | 2 |
| | 3.2. Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (II) | 9 | 3 |
| | 2.8. Informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzan | 6 | 2 |
| | 2.7. Kulturarteko hezkuntza eta balioen hezkuntza | 6 | 2 |
| **Musika-, plastika- eta ikus-hezkuntza** | 3.4. Musika-, plastika- eta ikus-adierazpenaren oinarriak | 6 | 3 |
| | 3.5. Arte-hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua eta esku-hartzea | 9 | 3 |
| **Gorputz Heziketa** | 3.3. Gorputz-heziketa, osasuna eta ongizatea | 6 | 3 |
| **Prestakuntza Didaktiko Diziplinar osoak batera duen modulua** | 3.6. Jarduera soziokulturalak. Diziplinarteko Proiektuen Kudeaketa | 6 | 3 |
| | 4.2. Ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea Lehen Hezkuntzan | 6 | 4 |
| **PRACTICUMA ETA GRADU AMAIERAKO LANA** | | **50** | |
| | 2.9. Kanpo-praktikak | 8 | 2 |
| | 3.7. Kanpo-praktikak | 6 | 3 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | 4.3. Kanpo-praktikak | 30 | 4 |
| | 4.4. Gradu amaierako lana | 6 | 4 |
| **Hautazko gaiak:**<br>**IBILBIDEAK** | | **30** | |
| **ZAINTZEAREN ETA AUTONOMIAREN PEDAGOGIA** | HLH 2.1. Kalitatezko bizitza baterako hezkuntza: norberaren zaintza, bestearen zaintza eta bizikidetzarako hezkuntza Lehen Hezkuntzan. 6 ECTS | | 2 |
| | HLH 4.1. Bizitza, ikasteko lekua (6 ECTS) | 6 | 4 |
| | HLH 4.2. Ikerketa gelan (6 ECTS) | 6 | 4 |
| | HLH 3.1 Kultur ondarearen azterketa (6ECTS) | 6 | 3 |
| | HLH 3.2. Astialdirako hezkuntza (6 ECTS) | 6 | 3 |
| **GORPUTZ HEZIKETA** | HGH 2.1. Sarrera-modulua Gorputz Heziketaren kontestualizazioa | 6 | 2 |
| | HGH 3.2. Haurraren garapena eta motrizitatea | 6 | 3 |
| | HGH 3.1. Gorputz heziketa eta bere didaktika (I) Curriculuma | 6 | 3 |
| | HGH 4.1. Gorputz heziketa eta bere didaktika (II) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen diseinua | 12 | 4 |
| **ATZERRI HIZKUNTZA** | HAHi 2.1. Informazio eta komunikazio teknologien ekarpena eleaniztasunaren garapenari | 6 | 2 |
| | HAHi 3.2. Hirugarren hizkuntzen didaktika: Hizkuntza eta curriculuma | 6 | 3 |
| | HAHi 3.1. Eleaniztasunaren garapena hizkuntza gutxituen testuinguruetan | 6 | 3 |
| | OEP 4.2. Bizitza, ikasteko lekua | 6 | 4 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | HAHi 4.1. Hizkuntza-hezkuntzaren garapenerako ikerketa eskolan | 6 | 4 |
| **HEZKUNTZA BEREZIA** | HHB 3.2. Autodeterminazioa eta bizi-kalitatea (3 ECTS) | 3 | 3 |
| | HHB 2.1. Laguntza-sistema XXI. mendeko hezkuntzan Esparru barne-hartzailea, esku-hartze esparruak, zereginen profilak (6 ECTS) | 6 | 2 |
| | HHB 3.1. Laguntza behar espezifikoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna (I) (9 ECTS) | 9 | 3 |
| | HHB 4.2. Ikasteko zailtasunetan esku-hartzeko estrategiak (6 ECTS) | 6 | 4 |
| | HHB 4.1. Laguntza behar espezifikoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna (II) (6 ECTS) | 6 | 4 |
| **ARTE HEZKUNTZA** | HAH 2.1. Arte-hizkuntzak, estetika eta sormena | **6** | 2 |
| | HAH 3.2. Arte-adierazpenerako prestakuntza teknikoa eta instrumentala. | **6** | 3 |
| | HAH 3.1. Arte-adierazpenaren oinarri psikopedagogikoak Lehen Hezkuntzan (6 ECTS) | **6** | 3 |
| | HAH 4.1. Arte adierazpenerako proiektu didaktiko interdiziplinarrak | **12** | 4 |
| **ENTZUMENA ETA MINTZAIRA** | HEM 2.1. Laguntza-sistema XXI. mendeko Hezkuntzan Esparru barne-hartzailea, esku-hartze esparruak, profilak eta zereginak | **6** | 2 |
| | HEM. 3.2. Aparatu fonoartikulatorioaren anatomiaren oinarriak, mintzatzeko zailtasunen patologiak eta hezkuntza-tratamendua | **6** | 3 |
| | HEM 3.1. Pentsamenduaren eta hizkuntzaren bilakaera-alderdiak eta hizkuntza-arazoen hezkuntza-tratamendua | **6** | 3 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | HEM 4.3. Entzumen-aparatuaren anatomiaren oinarriak, entzumen-arazoen patologiak eta hezkuntza-tratamendua | **6** | 4 |
| | HEM 4.1. Ordezko komunikazio-sistemak | **3** | 4 |
| | HEM 4.2. Zailtasunak eta tratamendua irakurketa-idazketa trebetasunen garapenean | **3** | 4 |
| **Ibilbide guztientzat komunak diren hautazko gaiak** | | | |
| | HIK Euskaldunak munduan zehar | **2** | Irakaslearen nahierara |
| | HIK Haur eta gazteentzako liburuaren animazioa | **3** | |
| | HIK Gizarte-aldaketa eta informazioaren aroa | **3** | |
| | HIK Erlijio katolikoa HIK Kristautasuna egungo munduan | **3** | |
| | HIK Ikus-entzunezko bitartekoak gelan | **3** | |
| | HIK Soziolinguistika | **3** | |
| | HIK Garapenerako lankidetza | **3** | |
| | HIK Giza garapena ikus-entzunezkoaren gizartean | **4** | |
| | HIK Astialdirako hezkuntza | **4** | |
| | HIK Frantsesa | **4** | |
| | HIK Euskal kultura: eraikuntza eta transmisioa | **4** | |
| | HIK Idazketa sortzailerako tailerra | **4** | |

### 5.1.6. Plangintza eta kanpo-praktikak (Practicuma) bermatzeko mekanismoak

Ikasleek egiten dituzten kanpo-praktikak hezkuntza-programari eusten dioten zutabe nagusietako bat dira. Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduaren plangintzak 44 ECTS ditu derrigorrez egin beharreko kanpo-praktiketarako (8 kreditu bigarren mailan, 6 kreditu hirugarren mailan, eta 30 kreditu laugarren mailan), "Kanpo praktikak" izeneko gaiaren barruan sartuta denak. HUHEZI Fakultateak esperientzia handia du praktika horien antolakuntzan, ikasketa hauek sortu ziren urtean bertan (1976) antolatu baitzituen lehenak.

Harrezkero HUHEZIk Lehen Hezkuntzako ikastetxe-sare bat sortu du, Irakasle ikasketak egiten ari diren ikasleek Practicuma bertan egin ahal izan dezaten. Era berean, ikasleek hezkuntza-lana edo prestakuntza-lana egiten duen edozein erakundetan egin ditzakete praktikak (eskoletan, espetxeetan, helduentzako hezkuntza-zentroetan, ospitaleetan, eskolatik kanpoko ekipamenduetan, astialdirako hezkuntza-jardueretan, etab.).

Esan beharra dago HUHEZIk garrantzi handia eman diola hasieratik bertatik Unibertsitatearen eta Eskolaren arteko harremanari. Izan ere, bistan denez, etorkizuneko irakasleen hezitzaileek ongi ezagutu behar dute eskola eta bere garapena, premia aldakor horietara egokitzeko ikasleen prestakuntza. Hori dela eta, HUHEZIren hezkuntza-eskaintzen artean jardunean dagoen irakaslearen Etengabeko Prestakuntza dago, bai Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren GARATU izeneko eskaintzaren bidez, bai eskuarki parte hartu ohi dugun beste bide batzuen bidez. Horrek Unibertsitate-Eskola arteko harremana indartzen du, eta gure ikasleen komunikazioa eta praktikak egiteko eskoletarako sarbidea errazten.

2008ko urria bitartean, 523 itun izenpetu dira eskolekin (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 300 bat ikasleentzat), 2008-2009 ikasturteko daturen arabera. Eskola horietako gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hiru eskola-sareetako batekoak dira: eskola publikoa, eskola itunduak (ikastolak eta Eskola Kristauen Elkartea) eta eskola pribatuak. Itun horiez gainera, badira Espainiako, Europako eta Ameriketako eskolekin egindako beste batzuk ere. Horrek gure

Unibertsitateko ikasleen mugikortasuna bermatzen du, bai nazioko erakundeetan bai nazioarteko erakundeetan (ikus 5.2.).

Kanpo-praktikek mugikortasuna ematen die titulazioko ikasleei, nazio barruko erakundeetan zein naziotik kanpoko erakundeetan, bai eta gauzen ikuspegi desberdina izateko eta beren prestakuntza-programa osatzeko aukera ere, memoria honetako 5.2. puntuan azaltzen dugun bezala. Mugikortasun-mekanismoak prestakuntza-programaren helburuetara egokitzen dira. Europakoen artean aipagarriak dira ETEN (European Teacher Education Network) izeneko unibertsitate-sareko eskolak, NETT (Network for the education and training of teachers) sarekoak eta Eskoziako eta Galeseko beste eskola batzuek egindako itunari atxikitakoak. Ameriketako eskolei dagokienez, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako zenbait herrialderekin dugu egina ituna, hala nola Venezuela, Nikaragua, Guatemala eta Brasilekin.

Beren praktikak atzerrian egin nahi dituzten ikasleen baldintza batzuk bete behar dituzte aurretik. Garabidean dauden herrialdeetara joan nahi duten ikasleek (Venezuela, Brasil, Guatemala, Nikaragua, etab.) egina behar dute izan "Garapenerako lankidetza" izeneko hautazko ikasgaia. Praktikak egiteko aukeratutako herrialdearen errealitate kulturala, ekonomikoa eta soziala ezagutaraztea da ikasgai horren helburua. Praktikak ingelesez egitera doazen ikasleei ingelesezko B1 maila izatea eskatzen zaie.

Fakultateak araudi espezifiko bat du praktikak antolatzeko, kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko, bai eta praktiketarako ikastetxeak aukeratzeaz eta haien jarraipena egiteaz arduratzen den batzorde bat ere. Ikastetxeak aukeratzeko prozesua honela egiten da: praktikak egin aurreko ikasturteko apirila eta maiatza artean, praktiken koordinatzaileak libre dauden ikastetxe eta plazen zerrenda aurkezten die ikasleei. Ikasleek eskainitako plazak aukeratzen dituzte. Praktikak fakultateak katalogatu gabeko eskola batean egiteko aukera ere bada, ikasleak hala nahi izan eta batzordeari eskaria eginez gero. Iraila eta urria bitartean jakinarazten zaie ikasleei zer eskolatan egin beharko dituzten praktikak. Praktikak egin aurretik ikasleak eskolara joan behar du tutorea ezagutzeko eta harekin eta ikastetxearekin harremanetan hasteko.

Bada, bestalde, base-datu bat, proiektuan parte hartzen duten eskola guztiak biltzen dituena, bai eta praktiketako ikasleak eta praktikak egiteko aukeratutako eskolak ere.

Unibertsitateko tutorea eta eskolako tutorea arduratzen dira Practicumaren jarraipena egiteaz. Lehenago ere esango dugu Practicumaren helburuak, jarduerak eta zereginak Ikasketa Plangintzan haien aurretik dauden gaietan tartekatuta daudela. Horrek esan nahi du ikasleak heziketa-jarduerak egiten dituela bai praktiketako ikastetxera joan aurretik (dagokion gaian), bai praktikak egin bitartean (aldizka, Unibertsitateko tutorearekin egin behar dituen tutoretza presentzialen bitartez), bai praktiken ondoren (proiektu, memoria, ahozko azalpen eta abarren bidez).

Tutore akademikoak honako hau guztia hartuko du kontuan ebaluazioa egiteko orduan: (1) proiektuaren, memoriaren, azalpenaren kalitatea; (2) tutore kolaboratzaileak ikaskuntza-helburuak lortzeari buruz egindako informea; (3) ikasleak bere betebehar akademikoak bete dituen edo ez (hau da, dagokion gaian egindako heziketa-jarduerak, mintegietan eta tutoretzetan izandako asistentzia eta parte hartzea, etab); eta (4) ikaslearen autoebaluazioa.

Practicumaren tutoreen unitateak eta Practicumaren kudeaketa-unitateak prozesu guztia gainbegiratzen du, eta bere gain hartzen du Practicumeko parte hartzaileetako bakoitzaren (Practicumarekin loturiko gaiaren koordinatzailearen, tutore akademikoaren, eskolako tutorearen eta ikaslearen) aldeko eta kontrako txostenak biltzeko ardura.

Graduaren ikasketa-plangintzan, laugarren mailako Practicuma ikasketak amaitzean egingo da, GRADU amaierako lanarekin batera. Dena dela, Practicum honek aldizkako izaera izango du zenbait unetan, eta mintegi-saioak eta tutoretza-saioak tartekatuko ditu.

Bigarren eta hirugarren mailako Practicuma dagokion gaiarekin koordinatuko da; ikasgaia Irakaskuntzen Plangintza eta Sekuentziazioa atalean zehaztu da (5.1.3.).

Hona hemen egindako itunen zerrenda:

**5.7. Taula.** Hezkuntza-erakundeekin egindako Praktika Hitzarmenen zerrenda:

| PRAKTIKA-HITZARMENAK |
|---|
| **Lehen Hezkuntzako eskolak** |
| Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren bidez eskola publiko guztiekin egindako hitzarmena. |
| ERKIDE elkartearen bidez Euskadiko irakaskuntza-kooperatiba guztiekin egindako hitzarmena. |
| Arizmendi KOOP.E. |
| Kristau Eskolaren barruko eskola itundu guztiekin egindako hitzarmena |
| Ikastolen Konfederazioko eskola guztiekin egindako hitzarmena. |
| L'ecole de design-Nantes Atlantiquez |
| **Premia bereziko ikasleen arretarako elkarteak** |
| ASPACE |
| GAUTENA |
| Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioa |
| ARANSGI |
| **Kirola jardueretarako elkarteak** |
| Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkartea |
| ATHLON |

| **Astialdiko elkarteak** |
|---|
| Txatxilipurdi Elkartea |
| **Garabidean dauden herrialdeetako elkarteak** |
| MUNDUKIDE (praktikak garabidean dauden herrialdeetan) |
| Mundu solidario baten aldeko ekinbideak |
| GARABIDE |
| **Beste erakunde kultural batzuk** |
| TOPAGUNEA Euskara Elkarteen Federazioa |

Hitzarmen horiei 5.2. puntuan aipatutakoak gehitu behar zaizkie.

**5.1.7. Prestakuntza-plana koordinatzeko plangintza eta mekanismoak.**

Fakultateko Kalitatearen Barne Bermearen Sistemak ikasketa-plangintzaren koordinazioa aurreikusten du prozesu hauetan:

02.1 Prozesua. Prestakuntza-programen kalitatea bermatzeko prozesua.

02.3. Prozesua. Ikasleari orientabidea emateko eta irakaskuntzaren garapena bideratzeko prozesua.

Horietan guztietan Errektore Kontseiluaren, Fakultatearen Zuzendaritza Kontseiluaren, Batzorde Akademikoaren eta Titulazioaren Zuzendaritza Kontseiluaren koordinazio funtzioak hartzen dira kontuan.

Azpimarratzekoa da, gure ustez, Mendeberri Hezkuntza Proiektuak kudeaketa-organo berriak garatzeko beharra sortu izana. Organo horiek eta haiek sortutako testuingurua gaien eta, beraz, prestakuntza-programaren diseinu, koordinazio eta

ebaluaziorako testuinguru bihurtu dira. Gainera, plataforma "natural" ezin hobea gertatu dira titulazioko irakasleriaren prestakuntzarako.

"Gaien tutoreen mintegia", "Gaien koordinatzaileen mintegia" eta "Titulazioko tutore guztien mintegia" organismoak hiru organo aholku-emaile dira, Mendeberri Proiektuarekin batera eratuz joan direnak, eta kudeaketa-organo berriak sortzeko beharrari erantzuten diotenak, berrikuntza-proiektu baten barruan erantzuteko. (Sagasta, P. eta Bilbatua, M., 2006).

Hona hemen zehaztuta **kudeaketa-organoetako bakoitza eta bere funtzioak**:

<u>*Ikasgaia diseinatzeko eta kudeatzeko ardura duten tutoreen mintegia:*</u> Mintegi hau gai bat diseinatzeaz, kudeatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen diren 5/6 tutoreez osatua dago. Tutore horiek adituak dira gaiak bere baitan hartzen dituen jakintza-arlo guztietan. Tutoreetako batek gaiaren koordinatzaile lana betetzen du. Hauek dira mintegi honen betebeharrak:

- Gai horretako ikaslearen eta irakaslearen irakas-gida prestatu.
- Ezarritako helburuak lortzeko estrategia didaktikoak hautatu.
- Dokumentazioa hautatu.
- Ebaluazio-frogak diseinatu.
- Tutoretza eta gaiaren jarraipena egin.
- Azken txosten bat prestatu ikasgaiaren garapenaren berri emateko, eta tutoreen mintegian aurkeztu eztabaidan jartzeko.
- Gaia egokitu jasotako feedbackaren arabera.

*<u>Ikasgaien koordinatzaileen mintegia:</u>* Ikasgaien koordinatzaile guztiek eta titulazioaren zuzendaritza taldeak (hau da, hezkuntza-proiektuaren arduradun nagusiak) osatzen dute mintegi hau. Hauek dira mintegi honen betebeharrak:

- Tutoreen mintegiak sortzen diren zailtasunak, iradokizunak eta proposamenak kudeatu.
- Gaiak eta haien inplementazioa kudeatu.
- Curriculumeko edukien koherentzia zientifikoa ziurtatu.
- Hobekuntza-esparruak detektatu, proposatu, kudeatu.
- Prestakuntza-premiak detektatu.
- Profil profesionalaren jarraipena egin.
- Hezkuntza-proiektuaren osoko ikuspegia sustatu.
- Gaiaren jakintza-alor desberdinen ezagutza erraztu tutoreen artean.

*<u>Titulazioko tutore guztien mintegia:</u>* Titulazioan lan egiten duten irakasle guztiek hartzen dute parte. "Ikaskuntza unitate" bat bezala eratzen da eta honako helburu hauek ditu:

- Irakasleriaren premia psikopedagogikoei erantzuteko espazio bat eskaintzea.
- Irakasleriaren garapen profesionala sustatzea.
- Hezkuntza-proiektuari buruzko hausnarketa erraztea.
- Behar diren irakas-gaitasunak garatzea.
- Irakasleak estrategia didaktiko berrietan prestatzea: arazoetan, kasuetan, proiektuetan… oinarritutako ikaskuntza.
- Metodologia horietan oinarritutako irakaskuntzan tutoreak duen zereginaren gainean hausnartzea.
- Irakasleen arteko lankidetza eta talde-lana sustatzea.

*<u>Titulazioaren koordinazio-taldea:</u>* Lehen Hezkuntzako Irakasle titulazioaren koordinazio-taldea Hezkuntza Proiektuaren garapenaren bermatzailea da, titulazio hori koordinatzen duten kide guztiez osatua dago, eta honako helburu hauek ditu:

- Hezkuntza-plangintza definitu, kudeatu eta ebaluatu.
- Plangintzatik sortzen diren jarduera guztiak koordinatu.
- Ikasketa-plangintza antolatu.
- Gaien jarraipena egin (programak, gaiak, koherentzia zientifikoa, profil profesionalarekiko egokitasuna, gaitasunen jarraipena, etab.).
- Profil profesionalaren jarraipena egin.
- Sailekiko harremana areagotu.
- Zeharkako gaitasunen eta gaitasun espezifiko edo profesionalen jarraipena egin.
- Araudi akademikoa definitu, idazkaritza akademikoarekin batera.
- Ikasleen jarraipena egin eta irakasleak koordinatu espezialitate bakoitzeko koordinatzaileen bidez.
- Hezkuntza-plangintzaren hobekuntza sustatu eta kudeatu idazkaritza akademikoarekin eta "Gaien koordinatzaileen batzordea", "Gaien tutoreen batzordea" eta "Gai beraren tutoreen batzordea" izeneko mintegiekin elkarlanean.

Gainera, bada beste Batzorde bat, "Jarraipen taldeak" (ikus 4.3. puntua) izenekoa, ikasleek abian jarria, titulazioko ikasle guztiek osatua, eta ikasturteka eta talde txikietan antolatua. Talde horietako bakoitzak ordezkari bat du batzordean, eta batzordea aldian-aldian elkartzen da Zuzendaritza Taldeko ordezkariekin, hau da, zuzendariarekin eta kurtsoko koordinatzaileekin. Taldeak honako betekizun hauek ditu:

- Fakultatearen eta Hezkuntza Programaren funtzionamendua ebaluatu.
- Hezkuntza Proiektuaren, funtzionamendu akademikoaren, eta zerbitzuen eta, oro har, eskaintzaren funtzionamenduaren hobekuntzan eragin eta parte hartu.
- Ikasleak proiektu komun baten barruan sartu, eta proiektuan parte hartzea sustatu.
- Ikasleen eta ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotu.

5.2. Bertako eta kanpotik etorritako ikasleen mugikortasuna antolatzeko prozedurak.

Fakultatearentzat garrantzi handia du bertako ikasleen mugikortasunak eta beste unibertsitate batzuetatik etorritako ikasleen harrerak. Horretarako filosofia baten barruan biltzen du helburu hori. Filosofia horren ildo nagusiak bat datoz:

- Goi Hezkuntzako Europar Eremuaren filosofiarekin, eta Ikaskuntza Iraunkorreko Europar Programarekin, Erasmus, Comenius, Grudtving, Leonardo da Vinci programak barne hartzen dituena.
- Unibertsitatearen eta Fakultatearen plangintza estrategikoarekin.
- Mondragon Unibertsitatearen curriculum eleanitzaren garapenarekin (Mondragon Unibertsitatearen ele aniztasun proiektua, 2000).

Hauek dira mugikortasunaren helburu nagusiak:

*1. Ikasle trukea eta Europako beste unibertsitate batzuetan sartzea erraztu.*

1.1. Erasmus egonaldi akademikoak

- Egun, seina hilabeteko 26 ikastaro eskaintzen zaizkie hezkuntza-alorreko ikasleei [30 ECTS], ingelesez, herrialde hauetan: Belgika, Danimarka, Finlandia, Holanda, Norvegia eta Suedia.
- Fakultatea ETEN [European Teacher Education Network] erakundeko kidea da. Hezkuntza Fakultateen Europar Sarea.
    - 52 Hezkuntza Fakultate Europan (hiru Estatu Batuetan).
    - Fakultate horietako asko nazioarteko estrategia indartsuak dituzten Europako iparraldeko herrialde txiki samarretan daude.

- Fakultate askok ingelesez ematen diren nazioarteko programak eskaintzen dituzte ikasleak hartzeko.
- Oso ingurune egokia alde biko hitzarmenak lortzeko.

- Fakultatea Hezkuntza Fakultateen NETT [Network for the education and training of teachers] europar sareko kide da.
    - 32 Hezkuntza Fakultate Europan.
    - Europako herrialde handietako Fakultateen presentzia (Frantzia, Alemania).
    - Fakultate askok ingelesez ematen diren nazioarteko programak eskaintzen dituzte.
    - Mugikortasunerako aukera frantses eta aleman hizkuntzetan.
    - Oso ingurune egokia alde biko hitzarmenak lortzeko.

1.2. Praktikak Europan:

- Praktikak Eskozia, Irlanda, Gales eta Ingalaterrako eskoletan egin daitezke.
- Praktikak Erasmus egonaldietan edo egonaldien ondoren egin daitezke.

*2. Ikasleak Ameriketako herrialdetara mugitzera bultzatu.*

Praktikak Guatemala, Venezuela, Nikaragua eta Estatu Batuetako (Pennsylvania) eskoletan .

2.2. Egonaldi akademikoa Estatu Batuetan: San Diego University (Kalifornia) eta Indiana University of Pennsylvania.

*3. Irakaslanaren eta ikerketaren nazioartekotzea bultzatu.*

- Comenius eta Grudtving proiektuetan parte hartzea Europako zenbait unibertsitaterekin batera.
- Nazioarteko kongresuetan gero eta gehiagotan parte hartzea.

*4. Fakultatea nazioartekotzea.*

4.1 Nazioarteko ikasleak gure Fakultatera erakartzea.

- Nazioarteko ikastaroak ingelesez. Hezkuntza-alorraren barruan "Education and minority language" programa sortu dugu.
- Lehen seihilekoan, 30 ECTS. Inguruko eskoletan praktikak egitea barne hartuta.

- Nazioarteko ikasleek gure ikasleekin batera hartzen dituzte ingelesez ematen diren eskolak (Gaia: Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez L2 hizkuntza-curriculumeko testuinguruetan). Hori bultzagarri handia da gure ikasketen curriculum eleanitzaren aldeko estrategiarentzat.

4.2 Nazioarteko irakasle eta ikerlarien bisitak sustatzea:

- Hainbat irakasle etorri dira bisitan Irlandatik eta Belgikatik.
- Fakultateak parte hartzen duen nazioarteko proiektuen inguruko bilerak eta tailerrak Fakultatean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hitzarmenak egin ditu **ETEN - European Teacher Education Network** (www.eten-online.org) eta NETT [Network for the education and training of teachers] (http://www.ph-ludwigsburg.de/html/9e-aaax-s-01/seiten/NETT/Intro.htm) izeneko unibertsitate-sareetan parte hartzen duten Unibertsitateekin. Izan ere gure Fakultatea ETENeko kidea 2006tik eta NETTekoa 2008tik.

Hori dela eta, hitzarmenak egin dira zenbait unibertsitatearekin, ondoren azaltzen dugun bezala:

**5.8. Taula.** Alde biko hitzarmenak Fakultatearekin:

| Jatorrizko izena | Izena ingelesez | Hitzarmena | Jarduera | WEB helbidea |
|---|---|---|---|---|
| **BELGIKA** | | | | |
| Katholieke Hogeschool | Limburg Catholic | Erasmus | Ikasle eta irakasleen | www.khlim.be |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Limburg | University College | | mugikortasuna | |
| Hogeschool West-Vlaanderen | University College West Flanders (Howest). | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.howest.be |
| **DANIMARKA** | | | | |
| CVU Midt-Vest | CVU Midt-Vest University College | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.cvumidtvest.dk |
| CVU Storkoepenhavn | Univeristy College Copenhagen | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.cvustork.dk |
| **ERRESUMA BATUA** | | | | |
| Saint Mary's University College | Saint Mary's University College | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.stmarys-belfast.ac.uk |
| **ESTONIA** | | | | |
| Tallinna Ülikool | Tallin University | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.tlu.ee |
| **HOLANDA** | | | | |
| De Haagse Hogeschool | The Hague University | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasu | http://portal.hhs.nl |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | na | |
| Hanzehogeschool Groningen | Hanze University Groningen, University of Applied Sciences | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.hanzehogeschool.nl |
| Fontys Lerarenopleiding Sittard | Fontys University of Applied Sciences | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.fontys.nl |
| Christelijke Hogeschool Windesheim | Windesheim University of Applied Sciences | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.windesheim.nl |
| Hogeschool Rótterdam | Rótterdam University of Applied Sciences | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.hogeschool-rotterdam.nl |
| HAN Univeristy | HAN Univeristy | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.han.nl |
| **IRLANDA** | | | | |
| Saint Patrick´s College | Saint Patrick´s College | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.cvumidtvest.dk |
| Saint Mary's University College | Saint Mary's University College | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.stmarys-belfast.ac.uk |

| NORVEGIA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hogskolen i Oslo | Oslo University College | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.hio.no |
| Haugesund University Collage | Haugesund University Collage | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.hsh.no |
| **PORTUGAL** | | | | |
| Instituto Politécnico de Viana do Castelo | | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.ipvc.pt |
| **TURKIA** | | | | |
| Mustafa Kemal Universitesi-Hatay | Mustafa Kemal University | Erasmus | Ikasle eta irakasleen mugikortasuna | www.mku.edu.tr |

Kasu guztietan ezinbesteko baldintza da Ikasketen Onarpen Konpromiso bat idaztea. Batzorde Akademikoak hala erabakita, arau hauek bete behar ditu Konpromisoak:

- Ikasleari ERASMUS programaren barruan egondako Unibertsitatean lortutako nota orokorra onartuko zaio.
- Ikasleak, unibertsitate egonaldia bukatzean, nota-agiria entregatuko du jatorri unibertsitatean (Transcript of Records).
- Mondragon Unibertsitateak eta ikasleak hitzartu eta sinatutako hitzarmena (Learning Agreement) gaindituz gero, xede-unibertsitatean egindako

krediituak onartuko zaizkio ikasleari. Kreditu horiek jatorrizko unibertsitatean denboraldi horretan ez egindako kredituen baliokideak izango dira.

- Hautatuko programan aldaketarik izanez gero, ikasleak horren berri eman beharko dio Fakultateko Nazioartekoratzearen koordinatzaileari. Koordinatzaileak aldaketen handitasuna baloratu eta, beharrezkoa izanez gero, dagozkion neurriak hartuko ditu.

- Erasmus programaren barruan, xede unibertsitatean gainditu ez diren kredituak jatorrizko Fakultatean egingo dira.

- Ikasleak bere Ikasketa Plangintzako kredituak kitatzeko behar baino kreditu gehiago eginez gero, sobera diren kredituak hautazko gaien kreditu gisa kita daitezke.

- Erasmus programako egonalditik itzultzean, Fakultateak hezkuntza-programan integratzen lagunduko dio ikasleari, baina honek ere ahalegina egin beharko du programan integratzeko.

*ERASMUS programak ikasleei esleitzeko prozesuari dagokionez, bada protokolo bat, zuzendaritzak Nazioartekoratzearen koordinatzailearekin batera egina, ondoren laburtzen duguna:*

- ETEN, NETT edo ikasleak lortu behar dituen helburu akademikoekin bat datozen beste unibertsitate-sare batzuetako unibertsitateek eskaintzen dituzten programak hautatzen dira.

- Programak argitaratu eta ikasleei jakinarazten zaizkie, bai informazio-bileren bidez bai sarearen bidez.

- Interesa duten ikasleek eskabide-orri bat bete behar dute, zeinean ikasleari buruzko informazioa eta ikasleak hautatuko programari eta egindako hautuaren motibazioari buruzko informazioa bilduko baita.

- Ikastaldiak eskariaren arabera esleitzen dira.

- Nazioartekoratze koordinatzaileak jarraipena egingo du aldian-aldian.

*ERASMUS ikasleak HUHEZI Fakultatean hartzeko protokoloa*

Fakultateak nazioarteko ikastaldiak eskaintzen ditu Europako Hezkuntza Fakultateen sareetako (European Teacher Education Network [ETEN] eta Network for the Education and Training of Teachers [NETT]) kideentzat.

Informazioa era honetara eskaintzen da:

- Posta elektronikoz sare horietako banaketa-zerrenden bidez.
- Pertsonalki, sareen urteko hitzaldietan egiten diren aurkezpenen bidez.
- Fakultatearen web orriaren bidez. Hori da ETEN eta NETT sareen barruan dauden Fakultateetako ikasleekin, edo gainerako munduko hezkuntza-alorreko beste edozein ikaslerekin harremanetan jartzeko modurik zuzenena.
- http://www.mondragon.edu/huhezi/international-students/international-students

Eskabidea egiteko, Nazioarteko Harremanetarako Saila harremanetan jartzen da HUHEZIko Nazioarteko Harremanetarako Arduradunarekin, eta ondoren ikaslearen ikaskuntza-hitzarmena izenpetzen da [Learning Agreement].

Izena emateko epea bukatzean, Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak eta nazioarteko ikastaldiaren tutoreak eskabidea egin duten ikasleen onarpena erabakitzen dute. Une horretatik aurrera, Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna harremanetan jartzen da ikasle guztiekin, gure Fakultatean egingo duten egonaldia kudeatzeko.

Behin ikastaldia egin ondoren, nazioarteko ikasleek hautatuko ikasgaiaren irakaslearengandik hartzen dute zuzenean nota. Praktiken eta proiektuaren kasuan, nazioarteko programaren tutorea da horretaz arduratzen dena.

Ikasleak lortutako nota guztiak “Transcript of Records” edo “Noten agiria” izeneko dokumentuan jasotzen dira. Dokumentua programaren tutoreak eta Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak izenpetua egon behar du.

Ikastaldia bukatu ondoren ikaslea jatorrizko Fakultatera itzultzen da.

Gestio horietan guztietan ingeles hizkuntzan erabiliko da, eta behar den informazio eta dokumentazio guztia HUHEZI Fakultatearen web orrian dago, ingelesezko atalean.

## 5.3. Modulu/gaien deskribapena

Hona hemen atxikita ikasgaien fitxak: (a) oinarrizko prestakuntza, (b) derrigorrezkoak, (c) ibilbideko hautazkoak eta (d) ibilbide guztientzat komunak diren hautazko gaiak. Horietan guztietan, alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Ikasgaiaren izenda.
- Kreditu-kopurua eta ezaugarriak (oinarrizkoak, diziplinarrak, etab.).
- Iraupena eta ikasketa-plangintzan duen behin behineko kokapena.
- Ikasleak eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak.
    - Gaitasun orokorrak.
    - Gaitasun espezifikoak.
        - Jakin
        - Egiten Jakin
- Profil profesionalari egiten dion ekarpena.
- Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero).

- Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekiko harremana.
- Hezkuntza-jarduerak.
- Gaitasunak eskuratzearen ebaluazio-sistema.
- Edukien laburpena.

| **MODULUAREN izena**<br>Ikaskuntza eta nortasunaren garapena | **ECTS kredituak**<br>12 |
|---|---|
| **Iraupena eta ikasketa-plangintzan duen behin behineko kokapena**<br>1. maila. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion ikaskuntza-prozesuak ulertu familiako, gizarteko eta eskolako testuinguruan. Ikasle horien ezaugarriak ezagutu, hala nola beraien testuinguru motibazional eta sozialenak. Ikasle horien nortasunaren garapena ulertzeko eta disfuntzioak identifikatzeko behar diren ezagupenak menderatu. Ikaskuntza-zailtasunak identifikatu, jakinarazi eta haien tratamenduan lagundu. Gaitasunen ikaskuntzan oinarrituta dauden egungo proposamenak eta garabideak ezagutu. Gaitasun eta ikaskuntza-erritmo desberdinak dituzten ikasleen hezkuntza-egoerak identifikatu eta haien konponbidea planifikatu. | |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Ebaluazio-metodo desberdinak erabili modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) | |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinen erabilera modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Edukien laburpena**<br>o Heziketa bereziaren bilakaera historikoa: segregaziotik inklusio edo barne hartzera.<br>o Aniztasunari erantzuera bideratuta egon beharko lukeen heziketa-praktikak oinarri izan beharko lituzkeen printzipioak.<br>o Eskola barne-hartzailea: hezkuntza-komunitate baten ezaugarriak.<br>o Ikaskuntza-prozesuak familiako, gizarteko eta eskolako testuinguruan.<br>o Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua azaltzen duten teoriak.<br>o Ikuspuntu konstruktibista batetik begiratuta, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan parte hartzen duten faktoreak, kognitiboak zein emozionalak.<br>o Ikasle guztien ikaskuntza adierazgarriaren prozesuan ikasleek izan ditzaketen oztopoak minimizatzeko orientabideak.<br>o Elikadura, loa eta abar bezalako erritmo biologikoen, eta prozesu afektibo, psikomotore, kognitibo, komunikazional eta sozialen garapenaren teoriak.<br>o Garapenarekin, inadaptazio sozialarekin, adimen-gaitasun handiekin eta abarrekin zerikusia duten esku-hartze estrategiak hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoen alorrean.<br>o Eskolako eta eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntzaren alorrean esku hartzeko dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideak.<br>o Aniztasunaren arretarako neurri espezifikoak (ohikoak ez direnak). Gaiarekin zerikusia duten legeak.<br>o Curriculumaren banakako egokitzapenak: kontzeptua, motak, ezaugarriak eta elaborazio-prozesua. | |

| **MODULUAREN izena**<br>Zientzia Esperimental, Matematika, Gizarte Zientzia eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza. | **ECTS kredituak**<br>31 |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>1., 2. eta 3. mailak. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>Zientzia esperimentalen funtsezko printzipioak eta oinarrizko legeak ulertu. Zientzia horien eskola-curriculuma ezagutu. Eguneroko bizitzan zientziekin lotuta dauden arazoak planteatu eta konpondu. Zientziak kultur egitate gisa aintzat hartu. Zientziaren, gizartearen eta garapen teknologikoaren arteko eragina ezagutu, bai eta etorkizun iraunkorra lortzeko herritar jokabide egokiak ere. Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta ikasleen artean oinarrizko gaitasunak eskuratzea sustatu.<br><br>Gizarte-zientzien funtsezko printzipioak ulertu. Gizarte-zientzien eskola-curriculuma ezagutu. Historiaren eta geografiaren azterketa ikuspuntu instruktibo eta kultural batetik integratu. Herritarren heziketa demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoaren praktika sustatu. Erakunde publiko eta pribatuek herrien arteko bizikidetza baketsua lortzeko duten garrantzia aintzat hartu. Erlijioaren egitateak historian izandako bilakaera eta kulturarekin izandako harremana ezagutu. Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta ikasle bakoitzarengan bere gaitasun bereziak sustatu.<br><br>Oinarrizko matematikako gaitasunak eskuratu. Matematikako eskola-curriculuma ezagutu. Matematika-proposamenak aztertu, arrazoitu eta jakinarazi. Eguneroko bizitzarekin lotuta dauden arazoak planteatu eta konpondu. Matematikaren eta zientzien arteko erlazioa pentsamendu zientifikoaren oinarrietako bat bezala aintzat hartu. Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta ikasle bakoitzarengan bere gaitasun bereziak sustatu. | |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinak erabili modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) | |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabili modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Edukien laburpena**<br>o Zientzia Esperimentalen eta Gizarte Zientzien sorrera eta bilakabidea: Zergatik eta zertarako.<br>o Zientzia Esperimentalen eta Gizarte Zientzien curriculumaren diseinua: Helburuak eta edukiak.<br>o Zientzia esperimentalen, gizarte zientzien eta teknologiaren ikaskuntza (Zientzia, Teknologia eta Gizartea):<br>o Teknologia berriak eta zientziak.<br>o Oinarrizko matematika-gaitasunak, pentsamendu zientifikoa problemen ebazpenaren bidez garatu.<br>o Gaitasunak eta matematika-curriculuma.<br>o Testuinguru sozial, erlijioso eta kulturala eta horren inplikazioa kultur arteko hezkuntzan<br>o Etika eta herritartasunerako hezkuntza. | |

- Tresna didaktikoak diseinatu herritartasunerako hezkuntzan heziketa esku-hartzea bideratzeko.

| **MODULUAREN izena**<br>Prestakuntza didaktiko diziplinarraren modulu komuna | **ECTS kredituak**<br>12 |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
2., 3. eta 4. mailak.

**Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**

- Dimentsio kognitibo, emozional eta psikomotorearen ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea ezagutu.
- Jakintza-alor bakoitzaren ekarpenak ezagutu.
- Antolamendu-teknikak, kudeaketa-teknikak eta animazio-teknikak ezagutu.
- Bai heziketaren dimentsio sozialak bai eskolaren inplikazio sozialak duten garrantzia ulertu.
- Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ahalbidetzen eta aberasten duten baliabide teknologikoak ezagutu.
- Ikasleen arteko elkarlana, ikasle eta irakasleen artekoa, eta ikastetxe eta komunitatearen artekoa ahalbidetzen duten baliabideak ezagutu.
- Azken urteotan garatutako didaktika- eta heziketa-ereduen bilakaera historikoa ezagutu.
- Ezagutza-alor bakoitzaren ekarpen epistemologiko eta didaktikoak ezagutu.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**
Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinen erabilpena modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40)
Jarduera ez-presentzialak (%60)

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
Ebaluazio-tresna desberdinak erabili modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean.

**Edukien laburpena**
- Azken urteotan eskolan erabilitako didaktika-ereduen bilakaera historikoa ezagutu.
- Dimentsio kognitibo, emozional eta psikomotorearen ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea.
- Jarduera, proiektu eta abarren plangintza egiteko teknikak.
- Antolamendu-teknikak, kudeaketa-teknikak eta animazio-teknikak.
- Ikerketa didaktikorako teknikak.
- Kalitateko hezkuntza-praktikak

| **MODULUAREN izena**<br>Gorputz-heziketa | **ECTS kredituak**<br>6 |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>3. maila. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>Gorputz-heziketaren bidez kulturaren, pertsonaren eta gizartearen hezkuntza osatzen laguntzen duten printzipioak ulertu. Gorputz-heziketaren eskola-curriculuma ezagutu. Bizitzan zehar eskolako zein eskolaz kanpoko kirol-jardueretan parte-hartzea sustatzeko baliabideak eskuratu. Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta ikasle bakoitzarengan bere gaitasun bereziak sustatu. | |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinen erabilpena modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) | |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabili modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Edukien laburpena**<br>- Osasunaren eta bizi-kalitatearen kontzeptua.<br>- Gorputz-heziketaren curriculumaren funtsezko alderdiak.<br>- Gorputz-ariketa jarduera osasungarri gisa.<br>- Pertsona-talde desberdinen artean gorputz-ariketa osasungarria sustatzeko eta dinamizatzeko estrategiak. | |

| **MODULUAREN izena**<br>Musika-, plastika-, eta ikus-hezkuntza. | **ECTS kredituak**<br>15 |
| --- | --- |
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>3. maila. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>Kulturaren, pertsonaren eta gizartearen hezkuntza osatzen laguntzen duten printzipioak ulertu artetik abiatuta. Arte-hezkuntzaren eskola-curriculuma ezagutu, plastikaren, ikus-entzunezkoen eta musikaren alorrean. Bizitzan zehar eskolako zein eskolaz kanpoko musika-jardueretan parte-hartzea sustatzeko baliabideak eskuratu. Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta ikasle bakoitzarengan bere gaitasun bereziak sustatu. | |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinen erabilpena modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) | |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. | |
| **Edukien laburpena**<br>✓ Kulturaren, pertsonaren eta gizartearen hezkuntza artetik abiatuta, arte-hezkuntzaren eskola-curriculuma aztertuz, plastikaren, ikus-entzunezkoen eta musikaren alorretan.<br>✓ Arte-hezkuntzaren oinarriak Lehen Hezkuntzan.<br>✓ Arte-jarduera eta haurren irudimenaren, sormenaren eta adierazpenaren garapena.<br>✓ Musika-, plastika- eta ikus-entzunezkoen hizkuntzaren oinarrizko elementuak. | |

| **MODULUAREN izena**<br>Hizkuntzak | **ECTS kredituak**<br>36 |
| --- | --- |
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>1., 2., 3. eta 4. mailak. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>Hizkuntza eta komunikazioaren zientzien funtsezko printzipioak eta oinarrizko legeak ulertu. Literatur alorreko hezkuntza eskuratu eta haur-literatura ezagutu. Hizkuntzen eta literaturaren eskola-curriculuma ezagutu. Zuzen eta egoki hitz egin, irakurri eta idatzi, euskaraz zein gaztelaniaz. Hizkuntza idatziaren ikaskuntza-prozesua ezagutu, bai eta haren irakaskuntza ere. Irakurketa sustatu eta idaztera bultzatu. Beste hizkuntza bateko ikasleen hizkuntza ofiziala ikasteko zailtasunak ezagutu. Hizkuntzak testuinguru eleaniztunetan | |

| |
|---|
| ikasteko egoerei aurre egin. Nork bere burua ahoz eta idatziz adierazi hizkuntza atzerritar batean. Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta horiei dagozkien gaitasunak ikasleengan sustatu. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinak erabiliko dira moduluko ikasgaietako bakoitzean. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. |
| **Edukien laburpena**<br>o Hizkuntza eta komunikazioaren zientziak. Testu-generoak. Metodologia-proposamenak. Lehen eta bigarren hizkuntzen garapena.<br>o Ulermen-estrategiak eta ekoizpen-estrategiak.<br>o Didaktikaren zerbitzurako teknologiak.<br>o Hizkuntza-jarrerak eta haien eragina hizkuntzen ikaskuntzan.<br>o Alderdi soziolinguistikoak.<br>o Hizkuntza, kultura eta literatura: euskara, gaztelania eta ingelesa.<br>o Hizkuntzarako eta haren didaktikarako lehen hurbilketa: Hizkuntza-curriculum integratua.<br>o Zuzentasun, egokitasun eta testualizaziorako estrategiak.<br>o Hizkuntzen Europako portafolioa.<br>o Hizkuntza-proiektua, hizkuntza-curriculuma, baliabide didaktikoak, haur eta gazte literatura eta haren didaktika, aniztasunarekiko arreta, komunikazio- eta ikaskuntza-estrategiak, hizkuntzei buruzko zailtasunak, hizkuntzen arteko balizko transferentziak, arrazoibidea testuinguru akademikoetan.<br>o Beste herrialde batzuetako hezkuntza-sistemak: hezkuntza-ereduen unibertsalizazioa.<br>o Hezkuntza-eredu elebidunak eta eleanitzak Europan.<br>o Europako hezkuntza-proiektuak: europar dimentsioa curriculumean sartzeari buruzko esperientziak.<br>o Praktika onen ebaluazio-adierazleak. |

| **MODULUAREN izena**<br>Prestakuntza didaktiko diziplinarraren modulu komuna | **ECTS kredituak**<br>12 |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>2., 3. eta 4. mailak. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>o Dimentsio kognitibo, emozional, psikomotore desberdinen perspektiba globalizatzaile eta integratzailea ezagutu.<br>o Jakintza-alor bakoitzaren ekarpenak ezagutu.<br>o Antolamendu-teknikak, kudeaketa-teknikak eta animazio-teknikak ezagutu.<br>o Bai heziketaren dimentsio sozialak bai eskolaren inplikazio sozialak duten garrantzia ulertu.<br>o Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ahalbidetzen eta aberasten duten baliabide teknologikoak ezagutu.<br>o Ikasleen arteko elkarlana, ikasle eta irakasleen artekoa, eta ikastetxe eta komunitatearen artekoa ahalbidetzen duten baliabideak ezagutu. | |

- o Azken urteotan garatutako didaktika- eta heziketa-ereduen bilakaera historikoa ezagutu.
- o Jakintza-alor bakoitzaren ekarpen epistemologiko eta didaktikoak ezagutu.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**
Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinak erabiliko dira moduluko ikasgaietako bakoitzean.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40)
Jarduera ez-presentzialak (%60)

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean.

**Edukien laburpena**
- Azken urteotan eskolan erabilitako didaktika-ereduen bilakaera historikoa ezagutu.
- Dimentsio kognitibo, emozional eta psikomotorearen ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea.
- Jarduera, proiektu eta abarren plangintza egiteko teknikak.
- Antolamendu-teknikak, kudeaketa-teknikak eta animazio-teknikak.
- Ikerketa didaktikorako teknikak.
- Kalitateko hezkuntza-praktikak

| **MODULUAREN izena**<br>Practicuma. Gradu Amaierako Lana | **ECTS kredituak**<br>50 |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
2., 3. eta 4. mailak.

**Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**

Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa eskuratu.
Ikasgelako interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta aplikatu, eta ikaskuntza eta bizikidetza erraztuko dituen giroa lortzeko beharrezkoak diren trebetasun eta abildade sozialak menderatu.
Hezkuntza-prozesua (ikaskuntza-irakaskuntza-prozesua bereziki) kontrolatu eta jarraitu, horretarako behar diren teknikak eta estrategiak menderatuz.
Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotu.
Irakaslanean parte hartu eta egiten jakiten ikasi, praktikatik abiatuta jokatuz eta hausnartuz.
Ikastetxean ezar daitezkeen jarduera-esparruetako hobekuntza-proposamenetan parte hartu.
6-12 urte bitarteko ikasle-taldeetan, interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak arautu.
Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruneko sektore desberdinekiko lankidetza-moduak ezagutu.
Gaitasun horiek, gainerako ikasgaiei dagozkienekin batera, Gradu Amaierako Lanean islatuta geratuko dira, zeinak aipatutako irakaskuntza guztietan lortutako prestakuntza biltzen baitu.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**
Ebaluazio-metodo desberdinen erabilera modulua osatzen duten ikasgai bakoitzean.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40)
Jarduera ez-presentzialak (%60)

| |
|---|
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. |
| **Edukien laburpena**<br>• Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei buruzko ikuspegiak eta azterketa-tresnak.<br>• Sekuentzia didaktikoak: Sekuentziak aztertzeko eta prestatzeko irizpideak.<br>• Programazio didaktikoa prestatzeko prozesua.<br>• Hezkuntza premia espezifikoen alorrean esku-hartzeko estrategiak.<br>• Ekintza-gogoeta-ekintza metodologian oinarritutako praktikari buruzko gogoeta-bideak eta tresnak (behaketa, egunerokoa eta talde-azterketa, webblogaren erabilera jarraipenerako tresna gisa, eta talde-azterketarako tresna gisa…).<br>• Hezkuntza-premia espezifikoen alorrean esku-hartzeko estrategiak.<br>• Portafolioa eta haren kudeaketa.<br>• Software didaktikoaren azterketa.<br>• Webquesta: aztertzea eta sortzea.<br>• Hezkuntza-webblogak aztertu eta bat sortu.<br>• IKTak ikasgelan.<br>• Globalizazioari buruzko ikuspegi (modu) desberdinak haur hezkuntzako irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuetan, eta prozesuok aztertzeko tresnak.<br>• Praktiken programazio didaktikoa prestatzeko prozesua, ikuspegi desberdin horiek kontuan hartuta.<br>• Hezkuntza-premia espezifikoen alorrean esku-hartzeko eta eragiteko estrategiak esperientzia globalizatzaileen esparruan.<br>• Ekintza-gogoeta-ekintza metodologian oinarritutako praktikari buruzko gogoeta eta komunikaziorako bideak eta tresnak.<br>• Behaketa ikasgelan.<br>• Ikasgelako errealitatea aztertzeko teknikak eta tresnak.<br>• Hezkuntza-ikerketarako estrategiak eta tresnak.<br>• Hezkuntza alorreko hobekuntza-prozesuak.<br>• Ikerketa-ekintza proiektuak: printzipioak, ezaugarriak, aldiak eta diseinua.<br>• Taldean egindako ikerketa-proiektua kudeatzeko tresnak.<br>• Testu-generoak. proiektu baten diseinua, haren berri ematea eta defentsa.<br>• Informazio eta komunikazio teknologiak proiektu bat burutu, kudeatu, eta defendatzeko. |

| **MODULUAREN izena**<br>Practicuma. Gradu Amaierako Lana | **ECTS kredituak**<br>50 |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>2., 3. eta 4. mailak. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br><br>Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa eskuratu.<br>Ikasgelako interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta bizikidetza erraztuko dituen giroa lortzeko beharrezkoak diren trebetasun eta abildade sozialak menderatu.<br>Hezkuntza-prozesua (ikaskuntza-irakaskuntza-prozesua bereziki) kontrolatu eta jarraitzea, horretarako behar diren teknikak eta estrategiak menderatuz.<br>Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea.<br>Irakaslanean parte hartu eta egiten jakiten ikastea, praktikatik abiatuta jokatuz eta hausnartuz.<br>Ikastetxean ezar daitezkeen jarduera-esparruetako hobekuntza-proposamenetan parte hartzea.<br>Elkarreragin- eta komunikazio-prozesuak arautu 6tik 12 urtera bitarteko ikasle-taldeetan. | |

| |
|---|
| Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruneko sektore desberdinekiko lankidetza-moduak ezagutu.<br>Gaitasun horiek, gainerako ikasgaiei dagozkienekin batera, Gradu Amaierako Lanean islatuta geratuko dira, zeinak aipatutako irakaskuntza guztietan lortutako prestakuntza biltzen baitu. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Ebaluazio-metodo desberdinen erabilera modulua osatzen duten ikasgai bakoitzean. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. |
| **Edukien laburpena** |

| **MODULUAREN izena**<br>Hezkuntza-prozesuak eta hezkuntza-testuinguruak | **ECTS kredituak**<br>20 |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>1. eta 2. mailak. | |
| **Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**<br>Ikasgelako eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-prozesuak aztertu eta ulertzea, 6-12 urte bitarteko aldiari dagokionez. Lehen Hezkuntzaren oinarriak ezagutu. Irakaskuntza-praktika eta haren inguruko baldintza instituzionalak aztertu. Gure herriko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa eta hezkuntza-jardueraren politika- eta lege-baldintzak ezagutu. Ikasgelako interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak ezagutu. Diziplina-arazoei heldu eta konponbidea ematea. Talde-lana eta banakako lana eta ahalegina sustatzea. Baloreen aldeko hezkuntza-ekintzak sustatzea, herritar aktibo eta demokratikoak prestatze aldera. Testuinguru kulturanitzetako eskola-egoerak ezagutu eta bertatik aztertu. Ikasgelako irakaslana eta ikaskuntza diseinatzea, planifikatu eta ebaluatzea. Lehen Hezkuntzan berritzaileak diren esperientziak ezagutu eta aplikatzea. Hezkuntza-proiektuaren definizioan eta ikastetxeko jarduera orokorrean parte hartzea, kalitate-kudeaketako irizpideen arabera. Hezkuntza-ikerketako metodologiak eta oinarrizko teknikak ezagutu eta aplikatzea, eta berrikuntza proiektuak diseinatzeko gauza izatea, ebaluazio-adierazleak identifikatuz. | |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak** | |

**eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**
Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinak erabiliko dira moduluko ikasgaietako bakoitzean.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40)
Jarduera ez-presentzialak (%60)

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean.

**Edukien laburpena**

- Gure herriko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa.
- Lehen Hezkuntzako curriculum-diseinuaren edukiak eta diseinua zehazteko prozesua.
- Gaitasunen ikaskuntzan oinarrituta dauden egungo proposamenak.
- Garapenaren ikuspegi globala eta prozesuen interdependentzia.
- Eskolako komunitatean komunikazioa eta interakzioa baldintzatzen duten aldagaiak: irakasle-ikasle harremana, berdinen arteko harremana, ikastetxeko giroa.
- Interakzioa eta komunikazioa ikasgelan.
- Ikasgelako giroa eta ikaskuntzarako motibazioa baldintzatzen duten aldagaiak: nola zuzendu ikastaldeak, nola aurreikusi eta kudeatu gatazkak, motibazio akademikoaren printzipio orokorrak.
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei buruzko ikuspegiak eta azterketa-tresnak.
- Sekuentzia didaktikoak: Sekuentziak aztertzeko eta prestatzeko irizpideak.
- Programazio didaktikoa prestatzeko prozesua.
- Ekintza-gogoeta-ekintza metodologian oinarritutako praktikari buruzko gogoeta-bideak eta tresnak (behaketa, egunerokoa eta talde-azterketa, webblogaren erabilera jarraipenerako tresna gisa, eta talde-azterketarako tresna gisa…).
- Portafolioa eta haren kudeaketa.
- Ikasleen aniztasunari erantzuteko didaktika-printzipioak eta metodologia-estrategiak.
- Berrikuntzarekin eta aniztasunari emandako erantzunarekin zerikusia duten jardunbide egokiak.
- Eskolaren, familiaren eta ingurunearen arteko lankidetzarako proposamenak.

| **MODULUAREN izena** | **ECTS kredituak** |
|---|---|
| Gizartea, Familia eta Eskola | 18 |

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
1. eta 2. mailak.

**Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**

- Pentsamendu pedagogikoa eta hezkuntzari daragioten faktore soziokultural eta ekonomikoak ezagutu.
- Komunikazio-loturak sortu eta mantendu familiekin, hezkuntza-prozesuan eraginkortasunez eragiteko.
- Familia-hezkuntzan tutorearen eta orientatzailearen funtzioak zein diren ezagutu eta nola betetzen diren jakin.
- Familiek, udaletxeek eta herritarren hezkuntzan eragin dezaketen bestelako erakundeek eskolan zein eskolaz kanpo antolatutako ekintzak sustatu eta ekintza horietan parte hartzea.
- Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan aztertu eta gehitu: ikus-entzunezko hizkuntzen eta pantailen eragina gizartean eta hezkuntzan; genero arteko eta belaunaldi arteko

| |
|---|
| harremanen aldaketak; kulturaniztasuna eta kulturartekotasuna; gizarte-bazterketa eta gizarte-inklusioa eta garapen iraunkorra.<br>o Familiaren bilakaera historikoa ezagutzea, familia-testuinguruko familia-mota desberdinak, bizimodu-mota desberdinak, eta hezkuntza-mota desberdinak ezagutu.<br>o Kulturarteko hezkuntzaren eta hezkuntza etikoaren oinarriak ezagutu. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Irakaskuntza-ikaskuntzako metodo desberdinak erabiliko dira moduluko ikasgaietako bakoitzean. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40)<br>Jarduera ez-presentzialak (%60) |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Ebaluazio-tresna desberdinak erabiliko dira modulua osatzen duten ikasgaietako bakoitzean. |
| o **Edukien laburpena**<br><br>o Errealitatearen egoera orokorra, ikuspuntu hauetatik begiratuta: sozioekonomikoa, politikoa, kulturala eta ekologikoa. XXI. mendeko euskal gizartearen berezitasunak eta helburuak.<br>o Sozializazio-eragileak: familia, hezkuntza-sistema eta eskola, hedabideak, publizitatea.<br>o Hezkuntzaren funtzioak: funtzio transmititzailea, ideologikoa eta eraldatzailea.<br>o Pentsamendu pedagogikoa: pentsalarien eta hezkuntza-esperientzia aipagarrien ekarpenak.<br>o Errealitatearen analisitik eta heziketaren esparruko pentsalarien eta kalitateko hezkuntza-esperientzien ekarpenetatik abiatuta sortu curriculuma.<br>o Hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa.<br>o Ikastetxearen antolamendua.<br>o Heziketaren kalitatearen kudeaketa.<br>o Familia-sistemaren analisia: eredu sistemikoa eta eredu ekologikoa.<br>o Familia garapen-testuinguru eta sozializazio-testuinguru gisa, bai eta hezkuntzaren garapenerako testuinguru gisa ere.<br>o Familiaren eta eskolaren arteko harremana: elkarrizketak, bilerak, familiaren parte hartzea.<br>o Kulturarteko hezkuntza eta hezkuntza etikoa.<br>o Herritarrentzako hezkuntza. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.1. Irakasle-lanbidearen definizioa eta kontestualizazioa, eta gaitasun orokorren garapena | **ECTS kredituak**<br>10<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Batak besteari entzun eta norberaren errepresentazioetan aldaketak onartzeko prest | |

egon.
- Talde-lanean aritzea.
- Lidergoa.
- Erabakiak hartzeko gai izan.
- Pentsamendua arazoak konpontzera bideratu.
- Lanaren ikuspegi orokorra izan.
- Komunikazio eraginkorra izan.

- Gaitasun espezifikoak:

- Ezagupenak:

  - UUlertu irakaskuntza-funtzioa ez datzala ezagutzak metatzean eta transmititzean, baizik eta elkarri eragiten jakitean eta haurren garapen integrala estimulatzen jakitean.
  - Irakasleak Hezkuntza Proiektuan duen garrantzia ulertu.
  - Hezkuntzak gizarte demokratiko baten garapenean duen garrantzia ulertu.
  - Haur, talde eta egoera bakoitzaren konplexutasuna eta aniztasuna ulertu.
  - Irakaslearen lanbide-profila lortzeko behar diren gaitasun orokorren garapenaren azpian dauden oinarri teorikoak ezagutu.
  - Irakasleak talde baten zaintzaile eta tiratzaile gisa duen garrantzia ulertu.
  - Bizitzan zehar irakaskuntza-funtzioaren jardunak aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitu behar duela onartu.

- Trebetasunak:
  - Norberaren praktikari buruzko hausnarketa egin eta hobetzeko eta berrikuntzak onartzeko prest egon.
  - Irakasle komunikatzaile eta bideratzailearen eginkizunean sakontzen lagunduko dioten gaitasunak identifikatu.
  - Bizikidetza sustatzeko trebetasunak garatu.
  - Norberaren praktika analizatzeko gai izan eta helburuak ezarri gaitasun orokor hauek hobetzeko: taldean lan egin, taldeak gidatu, erabakiak hartzen ikasi, arazoak eta gatazkak konpondu, modu eraginkorrean komunikatu, eta ikuspegi orokorra izan.
  - Gaitasun orokorrak irakasle komunikatzaile eta bideratzailearen perfil prfoesionalaren garapenarekin erlazionatu.
  - Ikasleek hizkuntza-erreferentetzat izango dutela jakin.
  - Berdinen artean elkarri eragiten jakin, ikaskuntzan sakontzeko eta norberaren diskurtsoan besteren ekarpenak txertatzen jakiteko helburuarekin.
  - Egoera sozial eta komunikatibo bakoitzera egokitzen jakin (modalizatzen, adeitasunez jokatzen jakin…).

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Irakaslearen perfilari, gaitasun orokorrei eta betekizunei buruzko lehen metagogoeta.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**
Lanak egingo dira arazo edo kasu jakinetan oinarritutako mintegietan, ikaslea graduan zehar erabiliko den metodologiara ohitzeko.

Gogoeta egingo da ikasleen beraien ibilbide biografikoari buruz eta hezitzaile eskarmentudunen lekukotasunei buruz.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Mintegiak.
- ✓ Ahozko azalpenak.
- ✓ Baimena.
- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.
- ✓ Idatzizko narrazio autobiografikoen tailerra.
- ✓ Ahozko komunikazioa lantzeko tailerra.

Jarduera ez-presentzialak (%60)

- ✓ Banakako Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

Narrazio autobiografikoak, mintegietan parte hartu, banakako zein taldekako lanak, ahozko azalpenak eta rol-jokoak (Edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta).

**Edukien laburpena**

- Gogoeta ekintzan, irakaslearen betekizunaren ikuspegi kritikoa eta globala, hezkuntzaren betekizunaren ikuspegi kritikoa eta globala, irakaskuntza-funtzioaren kontestualizazioa, irakaslearen betekizuna betetzeko kontuan hartu beharreko faktoreak.
- Talde-lana: taldea vs. ekipoa, ekipoaren faseak, rolak.
- Lidergoa: motak eta estrategiak.
- Erabakiak hartzen eta arazoei konponbidea ematen ikasi: metodoak eta teknikak.
- Ikuspegi globala.
- Gatazkei konponbidea eman eta komunikazio eraginkorra lortu: dialogoa, negoziazioa, komunikazio eraginkorra.

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.2. Lehen Hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak | **Kreditoak**<br>8 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra izan.<br>o Ikasten ikastea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Gure herriko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa eta hezkuntza-jarduueraren politika- eta lege-baldintzak ezagutu.<br>o Lehen Hezkuntzaren oinarriak ezagutu, bai eta Lehen Hezkuntzako curriculum-diseinuaren edukiak eta diseinua zehazteko prozesua ere.<br>o Gaitasunen ikaskuntzan oinarrituta dauden egungo proposamenak eta garabideak ezagutu.<br>o 6-12 urte bitarteko aldiari buruzko garapen ebolutiboaren gaineko teoriak ezagutu.<br>o Ikasle horien ezaugarriak ezagutzea, hala nola beraien testuinguru motibazional eta sozialenak.<br>o Ikasle horien nortasunaren garapena ulertzeko eta disfuntzioak identifikatzeko behar diren ezagupenak menderatu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Curriculum-edukien egokitasuna aldi honetako ezaugarri ebolutiboekin lotzen jakin.<br>o Oinarrizko Curriculum Diseinuan zehaztutako helburuak zehazten jakin, aldi honen ezaugarri ebolutiboei eta aniztasunari erantzuteko moduko gaitasunak formulatuz.<br>o Ikasleen testuinguruaren araberako ezaugarriak ezagutzera zuzenduta dauden informazio-bilketarako tresnak erabiltzen jakin, garapenarekin zerikusia duten disfuntzioak identifikatzeko helburuarekin.<br>o Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zaindu.<br>o Ikasleen arteko elkarlana, ikasle eta irakasleen artekoa, eta ikastetxe eta komunitatearen artekoa sustatzen duten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin. | |
| **Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**<br>Etapa honen ezagutzara eta lehen hezkuntzako curriculumaren funtsa diren oinarri psikopedagogikoetara hurbiltzea. | |
| **Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)** | |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**<br>Ikaslea erdigunetzat duen metodologia. Metodologia horretan irakaskuntza-ikaskuntzako metodo aktiboak konbinatuko dira, hala nola arazoak eta/edo kasuak. | |

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40).

- ✓ Eskola magistralak/ Hitzaldiak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60).

- ✓ Banakako Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Ikasleak klase teorikoetara, praktiketara eta mintegietara joatea eta parte hartze aktiboa izatea.
- ✓ Lan-erakusketak egin eta arazo eta/edo kasuei konponbidea eman (Edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta).
- ✓ Proba partzialak edo azkenak

**Edukien laburpena**

- Gure herriko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa.
- Lehen Hezkuntzako curriculum-diseinuaren edukiak eta diseinua zehazteko prozesua.
- Gaitasunen ikaskuntzan oinarritutako egungo proposamenak.
- Elikadura, loa eta abar bezalako biologia-erritmoen eta prozesu afektibo, psikomotore, kognitibo, komunikazional eta sozialen garapenaren teoriak.
- Garapenaren ikuspegi globala eta prozesuen interdependentzia.

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.3. Errealitatearen begirada orokorra: pertsona, gizartea eta natura | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan:**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila

**Ikasleak modulu honekin eskuratuko dituen gaitasunak eta ikasketa-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Ikasten ikastea.
  - Talde-lanean aritzea.
  - Komunikazio eraginkorra izan.
  - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan ezagutu.
    - Euskal errealitatean gertatzen ari diren aldaketa kulturalak (eta haien ezaugarriak) ezagutu.
    - Errealitate horren eta curriculumaren artean dagoen harremana ezagutu.
    - Europako eta Espainiako panorama soziolinguistikoa ezagutu, euskal mapa soziolinguistikoaren egoera eta bilakaera azpimarratuz.
    - Hazkunde iraunkorra lortzeko baliabideak ezagutu, eta pertsona, gizartea eta natura elkarrekin ongi etor daitezen lortzeko ekintzak sustatu.
    - Proiektu monografiko baten emaitzak ahoz zein idatziz komunikatzeko eta aurkezteko estrategiak ezagutu, informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiliz.
    - Irakaslanaren garrantzia ulertu, bai eta heziketarena ere.
    - Hezkuntzak egungo gizartean betetzen duen funtzioa, eskaintzen dituen aukerak eta dituen mugak ulertu.
    - Bizitzan zehar irakaskuntza-funtzioaren jardunak aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitu behar duela onartu.
  - Trebetasunak:
    - Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan aztertu eta gehitu: aldaketa sozialak eta ekonomikoak; genero arteko eta belaunaldi arteko harremanen aldaketak; kulturaniztasuna eta kulturartekotasuna; gizarte-bazterketa eta gizarte-inklusioa eta garapen iraunkorra.
    - Gizartearen eta, bereziki, euskal gizartearen egungo ezaugarriak eta helburuak identifikatzeko, analizatzeko, interpretatu eta baloratzeko gauza izan.
    - Egungo egoera soziolinguistikoak erlazionatu eta interpretatu, Europako zein Espainiako lurralde-esparru desberdinen artean.
    - Informazioaren bilaketa eta kategorizazio on bat egiteko baliabide teknologikoak eta tresna informatikoak erabili, egungo gizartean gertatzen ari diren gertaerak

ahalik eta hobekien objektibatu eta ulertu ahal izateko.
- o Hezkuntzak egungo gizartean betetzen duen funtzioa, eskaintzen dituen aukerak eta dituen mugak ulertu.
- o Testuak ulertzen eta sortzen jakin EAEko bi hizkuntza ofizialetan, bai eta ahoz zein idatziz komunikatzen jakin ere, teknologia berriak erabiliz.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honek egungo gizartea aztertu, interpretatu eta ulertzeko behar diren ezagutzak eta tresnak eskaintzen ditu. Ezagupen horien bidez, eztabaida-jarduerak eta kontzientziatze-jarduerak diseinatu daitezke ikasleen artean, batez ere hezkuntza-sisteman dituen ondorioei buruzko hausnarketa eraginez.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**

Arazoen azterketan oinarritzen da batez ere. Azterketa horren bidez ikasleek egungo gizarteko gertaerak eta testuinguruak analizatu eta interpretatuko dituzte, bai eta haien inguruan gogoeta egin ere.

Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40)

- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tutoretza.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.
- ✓ Ahozko zein idatzizko erredakzioa eta azalpena lantzeko tailerra.

Jarduera ez-presentzialak (%60)

- ✓ Banakako ikasketa eta lana.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lana

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

Etengabeko ebaluazioa eta prozesu-ebaluazioa:

- ✓ Bakarka zein taldean egindako idatzizko lanen kalitatea (Edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta)
- ✓ Bakarka zein taldean egindako idatzizko lanen kalitatea (Edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta)
- ✓ Banakako zein taldekako lanen kalitatea, eta haien aurkezpena.
- ✓ Parte hartzea ikasgelan, mintegietan.
- ✓ Eskuratutako ezagupenen ebaluazioa azken proba baten bitartez.

Ebaluazioaren agenteak:

- ✓ Autoebaluazioa.
- ✓ Koebaluazioa.
- ✓ Irakaslearen ebaluazioa.

**Edukien laburpena**

- ▪ Errealitatearen egoera orokorra. Ikuspuntu sozioekonomiko, politiko, kultural eta ekologikotik begiratuta, XXI. mendeko gizartearen eta, bereziki, euskal gizartearen berezitasunak eta helburuak.
- ▪ Europako, Espainiako, eta Euskal Herriko panorama soziolinguistikoa, eta irakaskuntzan duen eragina.
- ▪ Kultur aniztasunarekiko arreta irakaskuntzan.
- ▪ Gizartea eta hezkuntza gaurko egunean. Eskolaren funtzio sozializatzailea. Gizartearen eta curriculumaren arteko harremana. Curriculumaren dimentsio soziokulturalak.

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.4. Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak. | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra izan.<br>o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Ikasgelako interakzioan eta komunikazioan eragina duten aldagaiak ezagutu, ikaskuntzarako motibazioa hobetzeko eta gatazkei aurre egiteko.<br>o Ikasleen zailtasunei aurrea hartzeko oinarrizko printzipioak ezagutu (ikasteko zailtasunak, harremanak izateko zailtasunak, eskolan egokitzeko zailtasunak, etab.), eta laguntza-mekanismoak eta errefortzu-neurriak abiarazi, zailtasun horiek antzeman bezain laster.<br>o Ikasleriaren aniztasunari erantzuteko antolamendu-proposamenak eta metodologia-estrategiak ezagutu, aniztasunari arreta eskaintzeko neurri arrunten artean.<br>o Zailtasunak dituzten ikasleen hezkuntza-integrazioa errazteko baliabideak eskuratu.<br>o Aniztasunari erantzuteko neurriak direla eta, Lehen Hezkuntzan berritzaileak diren esperientziak ezagutu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Ikaskuntza-espazioak diseinatu eta arautu aniztasun-testuinguruetan, ikasle guztien hezkuntza-premia bereziei, genero-berdintasunari, zuzentasunari eta giza eskubideen errespetuari erantzuteko.<br>o Lan kooperatiboa sustatu, bai eta banakako lana eta ahalegina ere.<br>o Taldeak kudeatu eta ikastaldea dinamizatu, ikasle guztien parte hartzea sustatzeko eta gatazkak sortzen dituzten jarrerak minimizatzeko.<br>o Diziplina-arazoei heldu eta konponbidea eman.<br>o Esku-hartze proposamenetan, familien eta komunitatearen parte hartzea bultzatu.<br>o Aniztasunari eman beharreko erantzuna dela eta, lehen hezkuntzan | |

berritzaileak diren esperientziak aplikatu.
- Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zaindu.
- Ikasle, irakasle, familia, komunitate eta abarren arteko komunikazioa ahalbidetzen eta errazten duten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasleen aniztasunari eman beharreko erantzun egokiarekin lotutako gaitasunen garapena. Irakaskuntza-ikaskuntza konstruktibista prozesuaren eta aniztasunari erantzuteko neurri arrunten azpian dauden pedagogia-printzipioen eta metodologia-estrategien ezagupenean eta aplikazioan oinarrituko da batez ere erantzun hori.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**

Metodologia aktiboa, kasuetan, arazoetan eta lan kooperatiboan oinarritua.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40)
- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana, kasu edo arazoetan oinarrituta, lan kooperatiboa…
- ✓ Eskola magistralak/ hitzaldiak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Jarraipen-tutoretzak.
- ✓ Mintegiak.

Jarduera ez-presentzialak (%60)
- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lana.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Klase teoriko eta praktikoetan ikasleek izandako asistentzia eta parte hartzea.
- ✓ Kasu edo arazoei emandako konponbidearen balorazioa.
- ✓ Lan monografikoen eta/edo taldekako lanen balorazioa.
- ✓ Edukiekiko eta hizkuntzaren egokitasun eta zuzentasunarekiko arreta.
- ✓ Proba objektiboak: partzialak edo azkenak.

**Edukien laburpena**
- Eskolako komunitatean komunikazioa eta interakzioa baldintzatzen duten aldagaiak: irakasle-ikasle harremana, berdinen arteko harremana, ikastetxeko giroa.
- Ikasgelako giroa eta ikaskuntzarako motibazioa baldintzatzen duten aldagaiak: nola zuzendu ikastaldeak, nola aurreikusi eta kudeatu gatazkak, motibazio akademikoaren printzipio orokorrak.
- Ikasleen aniztasunari erantzuteko didaktika-printzipioak eta metodologia-estrategiak.
- Berrikuntzarekin eta aniztasunari emandako erantzunarekin zerikusia duten jardunbide egokiak.
- Eskolaren, familiaren eta ingurunearen arteko lankidetzarako proposamenak.

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.5. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei emandako erantzuna esku-hartze esparru arruntetan. | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Talde-lanean aritzea.
  - Ikasten ikastea.
  - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Hezkuntza-laguntza behar bereziak (hezkuntza-behar bereziak, adimen-gaitasun handiko ikasleak, hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleak, inadaptazio soziala) dituzten ikasleen hezkuntza esku-hartzeari buruzko lege-, curriculum- eta antolakuntza-neurriak ezagutu.
    - Ikasle horien nortasunaren garapena ulertzeko eta disfuntzioak identifikatzeko behar diren ezagupenak menderatu.
    - Curriculum-egokitzapenaren estrategia aniztasunarekiko erantzuna errazteko elementu gisa ulertu.
    - Banakako curriculum-egokitzapen mota guztiak ezagutu.
    - Banakako curriculum-egokitzapenak egiteko prozedura eta tresnak ezagutu.
    - Curriculumera iristeko egokitzapen espezifikoak ezagutu, eskola-esparruan aurrera eramandako ikaskuntza-ebaluazioaren prozesuan ikasle guztien parte hartzea errazteko.

  - Trebetasunak:
    - Ikaskuntza-zailtasunak identifikatu, jakinarazi eta haien tratamenduan lagundu.
    - Banakako curriculum-egokitzapenen eta aniztasunarekiko arretarako ohiz kanpoko neurrien kasuan aurrera eraman beharreko prozesu edo protokoloa

abiatu eta garatzeko beharra identifikatu.
- Gaitasun eta ikaskuntza-erritmo desberdinak dituzten ikasleen hezkuntza-egoerak identifikatu eta haien konponbidea planifikatu.
- Banakako curriculum-egokitzapenak egin, profesionalen arteko lankidetza ahalbidetuko duten informazio-bilketarako eta jarraipenerako tresnak erabiliz.
- Familiak informatu eta haiekin eta hezkuntza-komunitateko beste espezialista profesional batzuekin elkarlanean aritu, planteatzen diren hezkuntza-laguntzarako behar espezifikoei arreta eskaintzeko esku-hartze orokorrari dagokionez.
- Ikasle, irakasle, familia, hezkuntza-komunitate... eta abarren arteko komunikazioa ahalbidetzen eta errazten dituzten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin, kontuan harturik aipatu euskarri horretarako testuen berezko ezaugarriak.
- Komunikaziorako tresna informatiko bat sortzen eta erabiltzen jakin, bai eta euskarri horretarako testuak ere.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Hezkuntza-laguntza espezifikoaren beharrean dauden ikasleei laguntza hori emateko neurriak abian jartzeko eta garatzeko gaitasunaren garapena; hori guztia familiarekin eta hezkuntza-komunitateko profesionalekin lankidetzan.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**

Metodologia aktiboa, kasuetan, arazoetan eta lan kooperatiboan oinarritua.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40)
- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana, kasu edo arazoetan oinarrituta, eta lan kooperatiboa.
- ✓ Eskola magistralak/ hitzaldiak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Jarraipen-tutoretzak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tailer espezifikoa, komunikaziorako tresna informatiko bat sortzeko: alderdi teknikoak eta idazketakoak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lana.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Klase teoriko eta praktikoetan ikasleek izandako asistentzia eta parte hartzea.
- ✓ Kasu edo arazoei emandako konponbidearen balorazioa, irtenbideak bilatzeko ikuspegi orokor batetik begiratuta.
- ✓ Lan monografikoen eta/edo taldekako lanen balorazioa.
- ✓ Tresna informatiko bat sortu eta erabili.
- ✓ Proba objektiboak: partzialak edo azkenak.

**Edukien laburpena**

- Garapenarekin, inadaptazio sozialarekin, adimen-gaitasun handiekin… zerikusia duten esku-hartze estrategiak hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoen alorrean.
- Eskolan eta eskolatik kanpoko hezkuntza-laguntzaren alorrean esku hartzeko dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideak.

- Aniztasunaren arretarako neurri espezifikoak (ohikoak ez direnak). Gaiarekin zerikusia duten legeak.
- Curriculumaren banakako egokitzapenak: kontzeptua, motak, ezaugarriak eta elaborazio-prozesua.

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.6. Eskola bat guztiontzat | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
    - Talde-lanean aritzea.
    - Komunikazio eraginkorra lortzea.
    - Ikasten ikastea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Ikastetxea guztiontzako eskola izan dadin Hezkuntza Proiektuak izan behar dituen kultur ezaugarriak ezagutu.
    - Ikasgelako eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-prozesuak aztertu eta ulertu, 6-12 urte bitarteko aldiari dagokionez.
    - Familiako, gizarteko eta eskolako testuinguruko ikaskuntza-prozesuak ulertu, 6-12 urte bitarteko aldiari dagokionez.
    - 6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion testuinguru motibazional eta sozialen ezaugarriak ezagutu.
    - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua azaltzen duten teoriak ezagutu.
    - Ikuspegi konstruktibista batetik, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan parte hartzen duten faktore kognitiboak eta emozionalak ezagutu, kontuan harturik faktoreen arteko interakzioak askotarikoak eta aldakorrak direla, ez estatikoak.
    - Aniztasunari erantzuera bideratuta egon beharko lukeen heziketa-praktikak oinarri izan beharko lituzkeen printzipioak ezagutu.

- Ikasgelako interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak ezagutu.
- Ikasleek ikaskuntza-prozesuan eta parte-hartze prozesuan aurki ditzaketen oztopoak minimizatzeko hezkuntza-praktiken ezaugarriak ezagutu.

- Trebetasunak:
  - Hezkuntza-proiektuaren definizioan eta ikastetxeko jarduera orokorrean parte hartzea, kalitate-kudeaketako irizpideen arabera.
  - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan ager daitezkeen oztopoak identifikatu eta oztopo horiek gainditzeko estrategiak proposatu.
  - Ikuspegi konstruktibista batetik hezkuntza-jarduerak diseinatu.
  - Ikasgelako interakzioak interpretatu, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren testuinguruan.
  - Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zaindu.
  - Komunikazioa ahalbidetzen eta errazten duten baliabide teknologikoak modu optimoan erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan eragiten duten faktoreen ulermena, ikasle guztien, salbuespenik gabe, parte hartzea eta garapena sustatzea helburu izango duen hezkuntza-esparrua eraiki ahal izateko.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**

Ikaslea erdigunetzat duen metodologia. Metodologia horretan irakaskuntza-ikaskuntzako metodo aktiboak konbinatuko dira, hala nola arazoak eta/edo kasuak.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak/ Hitzaldiak
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Banakako Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Ikasleak klase teorikoetara, praktiketara eta mintegietara joatea eta parte hartze aktiboa izatea.
- ✓ Lan-erakusketak egin eta arazo eta/edo kasuei konponbidea eman (Edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta).
- ✓ Proba partzialak edo azkenak.

**Edukien laburpena**

- Heziketa bereziaren bilakaera historikoa: segregaziotik inklusio edo barne hartzera.
- Aniztasunari erantzuera bideratuta egon beharko lukeen heziketa-praktikak oinarri izan beharko lituzkeen printzipioak.
- Eskola barne-hartzailea: hezkuntza-komunitate baten ezaugarriak
- Ikaskuntza-prozesuak familiako, gizarteko eta eskolako testuinguruan.
- Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua azaltzeko teoriak.
- Ikuspuntu konstruktibista batetik begiratuta, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan parte hartzen duten faktoreak, kognitiboak zein emozionalak.
- Interakzioa eta komunikazioa ikasgelan.

| |
|---|
| ▪ Ikasle guztien ikaskuntza adierazgarriaren prozesuan ikasleek izan ditzaketen oztopoak minimizatzeko orientabideak. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.7. Gizarte Zientzien, Zientzia Esperimentalen eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (I). | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Ikasten ikastea.<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Gizarte zientzien (Geografia eta Historia eta beste) eta Zientzia esperimentalen (Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia) oinarrizko printzipioak eta legeak ulertu:<br>▪ Ikasleek gizarte-zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren izaeraz dituzten kontzepzioak aztertu.<br>o Gizarte-zientzien berezitasunak, haien funtzionamendua, eta egungo gizartea ezagutzeko haien erabilgarritasuna ezagutu eta ulertu.<br>o Zientzia horien eskola-curriculuma ezagutu:<br>▪ Lehen Hezkuntzan Ingurumenaren Ezagutza izeneko esparruaren curriculumak oinarritzat dituen printzipio psikopedagogikoak ezagutu.<br>▪ Gizarte Zientzien, Zientzia Esperimentalen eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntzarako oinarrizko gaitasunak identifikatu.<br>o Zientziaren, gizartearen eta garapen teknologikoaren arteko eragina ezagutu, bai eta etorkizun iraunkorra lortzeko herritar jokabide egokiak ere.<br>▪ Iraunkortasunaren oinarrizko printzipioak ezagutu. | |

- Erlijioaren egitateak historian izandako bilakaera eta kulturarekin izandako harremana ezagutzea.
- Gizarte-zientziek gizarte-errealitateen eta, aldi berean, hezkuntza-proiektuen diseinuaren azterketari egiten dizkieten ekarpenak ezagutu.
- Egungo ingurumen-arazoen balizko kausei buruz hausnartu, bai eta haien ondorioei buruz ere.
- Egungo garapen teknologiko eta sozialarekin lotuta dauden gertaera nagusiak interpretatu eta eztabaidatu.

- Trebetasunak:
  - Eguneroko bizitzan zientziekin lotuta dauden arazoak planteatu eta haiei konponbidea eman.
    - Egungo gizartearen ingurumen-arazoen inguruan ikerketa txikiak egin.
    - Historiaren eta geografiaren azterketa ikuspuntu instruktibo eta kultural batetik integratzea.
    - Ingurune hurbilenetik hasita, testuinguru sozialean elkarri eragiten dioten elementu geografikoak eta historikoak identifikatu, eta haiek interpretatzeko ikerketa txikiak bultzatu.
  - Zientziak kultur egitate gisa aintzat hartu:
    - Herritarren heziketa demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoaren praktika sustatu.
    - Masa-hedabideek zientzien, teknologiaren eta gizartearen inguruan eskaintzen duten informazioa aztertu.
    - Zientziak eta teknologia presente dauden bizitzako esparruak ezagutu, eta beraien eragina aintzat hartu.
    - Hezkuntzaren gizarte zereginetan, nork bere erantzukizunak bereganatzen jakin.
  - Ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratzera bultzatu:
    - Gizarte Zientzien, Zientzia Esperimentalen eta Teknologiaren irakaskuntzarako oinarrizko gaitasunak erabili, ingurumenari buruzko ikerketa-prozesuetan.
  - Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta horiei dagozkien gaitasunak ikasleengan sustatu.
    - Ekintza txikiak diseinatu eta esperimentatu, estrategia metodologikoak garatuz eta gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren baliabide eta tresna egokiak erabiliz.
  - Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zaindu.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honek bizi garen errealitateari buruzko ikuspegi kritikoa eta konstruktiboa garatu nahi du ikasleengan, curriculumeko bidez egungo gizarte eta ingurumen arazoak landu beharraz kontzientzia har dezaten. Bestalde, aztertutako arazoen ikuspegi orokorra eman nahi da (ikuspuntu sozialetik, kulturaletik eta naturaletik begiratuta), eta ikasleak gizarte-zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntzan jarduteko behar dituen oinarrizko trebetasunen garapena bilatzen da.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

Ez dago.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.**

Metodologia hori lan kooperatiboan oinarritua dago, eta hezkuntza-testuinguru errealei eta gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko arazoak aztertzera eta konpontzera bideratua.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40)

- ✓ Ahozko azalpenak.
- ✓ Tailerrak eta mintegiak; tutoretzak.

| |
|---|
| ✓ Landa-lanak eta laborategi-lanak.<br>✓ Kanpoko ekipamendu didaktikoei bisitak.<br>✓ Simulazioak.<br><br>Jarduera ez-presentzialak (%60)<br>✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.<br>✓ Taldekako ikasketa eta lana. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Etengabeko ebaluazioa: ahozko azalpenak; ikaslearen eta irakaslearen koadernoa; banakako eta taldekako lanak; ikasgelan eta mintegietan parte-hartzea. Edukiekiko eta hizkuntzaren egokitasun eta zuzentasunarekiko arreta.<br><br>Ebaluazioaren agenteak: autoebaluazioa; koebaluazioa; heteroebaluazioa. |
| **Edukien laburpena.**<br>▪ Zientziari buruzko ikuspegi orokorra: alderdi sozialak, esperimentalak eta teknologikoak.<br>▪ Haurren ideiak eta gizarte-zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren ikaskuntza.<br>▪ Ikasleek gizarte-zientziei, zientzia esperimentalei eta teknologiari buruz duten kontzepzioa.<br>▪ Ingurumen-arazoak: iraunkortasunaren oinarrizko printzipioak.<br>▪ Gizarte Zientzien, Zientzia Esperimentalen eta Teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntzarako oinarrizko gaitasunak.<br>▪ Gizarte-zientziak sozializazio-tresna gisa.<br>▪ Ingurumen-Ezagutzaren curriculum-diseinua: helburuak, edukiak, didaktika-orientabideak eta ebaluazio-irizpideak. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.8. Hizkuntza-prestakuntza diziplinarra I | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Ikasten ikastea.<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br><br>- - Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Ahozko zein idatzizko adierazpen-teknikak ezagutu eta menderatu, curriculumeko hiru hizkuntzetan: euskara, gaztelania eta ingelesa.<br>o Ahozko tradizioa eta folklorea ezagutu.<br>o Hizkuntza berbalaren eta ez-berbalaren erabilera egokia ezagutu eta aintzat hartu.<br>o Hizkuntzaren erregistroak eta erabilerak ezagutu.<br>o Hizkuntza-genero desberdinetako testu-eraikuntzaren oinarriak ezagutu: egoera komunikatiboa, egokitzapena eta testualizazioa (kohesioa, konexioa, koherentzia eta modalizazioa). | |

- Curriculumeko hizkuntzen artean (eta haien erabileran) dauden berdintasunak/desberdintasunak ezagutu.

- Ezagupenak:
    - Eraginkortasunez heldu hizkuntza-ikaskuntzako egoerei testuinguru kulturanitzetan eta hizkuntzanitzetan.
    - Ahoz eta idatziz adierazi, eta adierazpen teknika desberdinen erabilera menderatu, curriculumeko hiru hizkuntzetan.
    - Ikasi beharreko hizkuntzak direla eta, nork bere burua, bere gaitasunak eta mugak ezagutu.
    - Ahozko zein idatzizko testu-genero desberdinak ulertzeko eta sortzeko gai izan.
    - Testuinguru jakin batzuetan hizkuntzen erabileran dauden zailtasunen kontzientzia hartu, eta gainditu beharreko erronka gisa aurre egin, jarrera positibo eta irekiarekin.
    - Atzerriko hizkuntza baterako lehen hurbilketa sustatzeko gauza izan.
    - Hizkuntzen erabiltzaile gisa nork bere burua ezagutu: Hizkuntza desberdinetan garatutako gaitasunen kontzientzia hartu, eta ezagupenak eraikitzeko eta komunikatzeko erabili, hizkuntza horietako edozeinetan (pertsona hizkuntzanitzaren kondizioa).
    - Alderdi horiek hizkuntzen Europako portafolioan gauzatzen jakin.
    - Proiektuak egiteko informazio garrantzitsua bilatzen, eskuratzen eta ebaluatzen jakin.
    - Komunikatzeko eta hezkuntza-praktika berarako baliabide informatiko egokienak erabiltzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honek hizkuntzen ezagupena, garapena eta oinarrizko komunikazio-trebetasunen erabilpena eskaintzen ditu: ingelesa, gaztelania eta euskara, bai eta hizkuntza horien literaturen, kulturen eta alderdi soziolinguistikoen ezagupena ere.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Hizkuntzen erabilerekin eta hizkuntzekiko jarrerarekin zerikusia duten alderdi desberdinen ikerketa, analisi eta hausnarketarako kasuetan oinarritutako metodologia.
- ✓ Ikasleek curriculumeko hizkuntzekin zerikusia duten kultur eta literatur alderdiei buruzko ezagupenak garatuko dituzten proiektuetan oinarritutako metodologia. Ikasleek modu kooperatiboan egingo dute lan, proiektua burutzeko eta ikasgelan haren azalpena egiteko helburu komun batzuei jarraituz.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Taldekako tailerrak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Mintegi eta tailerretan parte hartzea.
- ✓ Talde-lan batzuk egitea.
- ✓ Talde-lanen ahozko aurkezpenak.
- ✓ Portafolioa egin eta berrikusi.
- ✓ Idatzizko azken proba.

| |
|---|
| (Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan beti: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizunaren zentzua). |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Hizkuntza-jarrerak eta haien eragina hizkuntzen ikaskuntzan.<br>▪ Alderdi soziolinguistikoak.<br>▪ Hizkuntzen Europako portafolioa. Nork bere burua ezagutzeko tresna.<br>▪ Testu-generoak (teoria eta praktika).<br>▪ Hizkuntza, kultura eta literatura: euskara, gaztelania eta ingelesa.<br>▪ Hizkuntzarako eta haren didaktikarako lehen hurbilketa: Hizkuntza curriculum integratua.<br>▪ Hizkuntza eta generoa.<br>▪ Zuzentasun, egokitasun eta testualizaziorako estrategiak.<br>▪ Hizkuntzen Europako portafolioa. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>1.9. Hezkuntza Europan eta mundu globalean. Jardunbide egokiak | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren lehen maila. | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Ikasten ikastea.<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>o Buruzagitza.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Kalitatea hobetzeko ereduak ezagutu eta hezkuntza-zentroetan aplikatu. | |

- Beste herrialde batzuetako hezkuntza-sistemak ezagutu.
- Atzerriko hizkuntzan ahoz eta idatziz adierazteko teknikak ezagutu eta menderatu.
- Ingeles hizkuntzan aritzeko gai izan, B1 mailan, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Batuaren arabera.

- Trebetasunak:
  - Hezkuntza-praktika onen adierazleak identifikatzen eta definitzen jakin.
  - Ikaskuntza-testuinguruak eta bizikidetza-testuinguruak sistematikoki ikusten jakin eta haiei buruz gogoeta egiten eta hezkuntza-praktika hobetzen jakin.
  - Ikasgela-praktikez hausnartu irakaslana berritzeko eta hobetzeko.
  - Eraginkortasunez heldu hizkuntza-ikaskuntzako egoerei testuinguru kulturanitzetan eta hizkuntzanitzetan.
  - Testuaren ideia nagusiak ulertu, Europako zenbait hezkuntza-sistemarekin zerikusia duten gaiei buruz jasotzen duen informazio normal eta argiarekin.
  - Delako hizkuntza mintzatzen den tokian gerta daitezkeen egoerei aurre egiteko gauza izan.
  - Hezkuntzarekin zerikusia duten gaiei buruzko testu errazak eta koherenteak sortzeko gai izan.
  - Ezagutzen diren hizkuntzen arteko transferentziak egin.
  - Proiektuak egiteko informazio garrantzitsua bilatzen, eskuratzen, bereizten eta ebaluatzen jakin.
  - Norberaren hezkuntza-praktikarako informatika-baliabideak erabiltzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honek, batetik, lehen hezkuntzako irakaslearen lanbidean berrikuntzak duen garrantziaz jabetzeko eta hausnartzeko aukera eskaintzen du, eta, bestetik, atzerriko hizkuntzan idatziz eta ahoz adierazteko teknikak ezagutzen eta hobetzen laguntzen du.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Hezkuntza-praktika desberdinen ikerketa, analisi eta hausnarketarako kasuetan oinarritutako metodologia.
- ✓ Ikasleek beren lan profesionala garatzeko ezagupenak eta gaitasunak garatuko dituzten proiektuetan oinarritutako metodologia. Ikasleek modu kooperatiboan egingo dute lan, proiektua burutzeko eta ikasgelan haren azalpena egiteko helburu komun batzuei jarraituz.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Taldekako tailer-mintegiak.
- ✓ Bibliografia-iturriak tratatzen eta erabiltzen ikasteko tailer espezifikoa.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Mintegi eta tailerretan parte hartzea.
- ✓ Talde-lan batzuk egitea.
- ✓ Talde-lanen ahozko aurkezpenak egin.
- ✓ Idatzizko azken proba.

(Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan beti: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizunaren zentzua).

| **Edukien laburpena** |
|---|
| ▪ Hezkuntza ikuspegi orokor batetik aztertuta.<br>▪ Beste herrialde batzuetako heziketa-sistemak: hezkuntza-ereduen unibertsalizazioa.<br>▪ Hezkuntzaren dimentsioa Europan: Europako lehen hezkuntzaren errealitatea ezagutu.<br>▪ Hezkuntza-eredu elebidunak eta eleanitzak Europan.<br>▪ Europako hezkuntza-proiektuak: europar dimentsioa curriculumean sartzeari buruzko esperientziak.<br>▪ Praktika onen ebaluazio-adierazleak. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.1. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez L2 hizkuntza-curriculumeko testuinguruetan | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Ikasten ikastea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak: | |

- Hizkuntzen ikaskuntza-egoerei testuinguru hizkuntzanitzetan aurre egiteko gaitasuna.
- Curriculuma familiakoa ez den hizkuntza baten bitartez egitea errazteko diziplina anitzeko estrategiak sortzeko gaitasuna.
- Testuinguru akademikoan ingelesez ahoz nahiz idatziz aritzeko gaitasuna.
- Esanahiak negoziatzeko gaitasuna, transmisio-hizkuntza familiakoa ez den hizkuntza bat denean.
- Jakiten ikasteko gaitasuna, menderatzen ez den hizkuntza batean jokatuz eta curriculum-edukien norberaren ikaskuntza-praktikari buruz hausnartuz.
- Teknologia berriak erabiltzeko gaitasuna, familiakoa ez den hizkuntza baten bitartezko irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua egituratzeko.

- Ezagupenak:

- Edukien bidezko hizkuntza-ikaskuntzaren oinarrizko printzipioak ezagutu.
- Testuinguru hizkuntzanitzetan irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua errazteko estrategiak ezagutu.
- Ikasgela hizkuntzanitzean eragina duten emozioak eta faktore afektiboak ezagutu.
- Curriculuma familiakoa ez den hizkuntza batean egitea erraz dezaketen teknologiak ezagutu.
- Ikasgelan lankidetza sustatzeko estrategiak ezagutu.
- Testuinguru akademikoetan erabiltzen diren azalpen testuak, ahozkoak zein idatzizkoak, ulertu.
- Hizkuntzak eta bestelako curriculum-alorrak integratzen diren sekuentzia didaktikoak ezagutu.

- Trebetasunak:

- Irakaslana diseinatu, planifikatu eta ebaluatu, komunikazio-hizkuntza familiako hizkuntza ez denean.
- Irakaskuntza-estrategiak inplementatu, ikaskuntza errazteko.
- Komunikazio eta ikaskuntza-zailtasunak identifikatu, komunikazio-hizkuntza familiako hizkuntza ez denean.
- Gogoeta egin norberaren ikaskuntza-prozesuaz atzerriko hizkuntza baten bitartez (ingelesa).
- Ingelesezko azalpen-testu bat sortu (ahoz eta idatziz) testuinguru akademiko batean, euskarri bisual baten laguntzarekin.
- Sekuentzia didaktiko bat sortu ingelesez, ikasketak familiakoa ez den hizkuntza batean egiten ari den ikasle-talde bati zuzendua.
- Ikasgelan, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan, teknologia modu adierazgarrian sartzen jakin.
- Ikasgaiari dagozkion testuak hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zainduz idatzi eta azaldu.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Testuinguru kulturanitzetan eta hizkuntzanitzetan hizkuntzen ikaskuntza-egoerei eraginkortasunez heltzeko estrategien ezagupena, garapena eta erabilera eskaintzen du ikasgai honek.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Menderatzen ez den hizkuntza baten bitartezko irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren inguruan norberak izandako esperientziaren ikerketa.
- ✓ Sekuentzia didaktikoak inplementatzeko proiektua, hizkuntza eta curriculum-edukiak lehen hezkuntzan integratuz, komunikazio-hizkuntza familiakoa ez den hizkuntza bat denean.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Taldekako tailer-mintegiak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Banakako eta taldekako ikerketa-prozesua egunerokoan jaso, eta emaitzen edota ondorioen azalpena egin.
- ✓ Hizkuntza eta beste curriculum-eduki batzuk integratuta dauden sekuentzia didaktikoen aurkezpena egin.
- ✓ Edukiekiko eta hizkuntzaren egokitasun eta zuzentasunarekiko arreta.

**Edukien laburpena**
- Hizkuntza-ikaskuntza curriculum-edukien bidez vs hizkuntza-ikaskuntza ikaskuntza-helburu gisa.
- Menderatzen ez den hizkuntza baten bidez arrakastaz komunikatzeko estrategia orekatzaileari buruzko gogoeta.
- Familiakoa ez den hizkuntzaren hezkuntza-testuinguruetan esku-hartzeko estrategiak.
- Hizkuntza-ikaskuntzan eragina duten afektibitate-faktoreak.
- Hizkuntza eta curriculum-edukien sekuentzia didaktikoak.
- Ikasleak ikasgai honetan idatzitako dituen testuetan hizkuntza-zuzentasuna lortzeko estrategiak.
- Didaktikaren zerbitzura dauden teknologiak esku-hartze testuinguruetan erabili, familiakoa ez den hizkuntza baten bitartez.
- Egunerokoa norberaren ikasketa-prozesuari buruzko gogoetarako tresna gisa, menderatzen ez den hizkuntza baten bitartez.

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.2. Matematiken irakaskuntza-ikaskuntza | **Kreditoak**<br>4 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak: | |

| |
|---|
| o Ikasten ikastea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br>o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Matematiken oinarrizko printzipioak eta funtsezko legeak ulertu:<br>▪ Haurren garapen-prozesuan matematikek duten garrantzia ulertu.<br>o Matematiken berezitasunak, haien garapena, eta egungo gizartea ezagutzeko haien erabilgarritasuna ezagutu eta ulertu.<br>o Matematikaren eskola-curriculuma ezagutu:<br>▪ Lehen Hezkuntzan Matematika alorraren curriculumak oinarritzat dituen printzipio psikopedagogikoak ezagutu.<br>▪ Matematikaren irakaskuntza-ikaskuntzarako oinarrizko gaitasunak identifikatu.<br>▪ Matematikaren irakaskuntzari dagokionez ikasleek dituzten kontzepzio zientifiko eta didaktikoak esplizitu bihurtu eta analizatu.<br>▪ Matematika-irakasleek jokatzen duten rola behatu eta hartaz gogoeta egin.<br>▪ Matematikaren irakaskuntzarako erabili edo proposatutako eredu didaktikoak definitzen dituzten ezaugarriak ulertu.<br>▪ Ingurumen Ezagutzaren esparruaren oinarrizko gaitasunen garapenean ahozko eta hizkuntza idatziak jokatzen duen papera ulertu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Eguneroko bizitzarekin lotuta dauden matematika-problemak planteatu eta ebatzi:<br>▪ Planteatutako problemetan, ezagutzaren alor guztiak elkarrekin lotu.<br>▪ Matematika-gaitasunak areagotzeko proposamen didaktikoak egin, ikasleen ikusmoldetik abiatuta.<br>o Matematika kultur egitate gisa aintzat hartu:<br>▪ Matematikak gizartearen eta gizakiaren garapenean duen garrantzia ezagutu, eguneroko bizitzako egoerak edo kasuak aztertuz.<br>o Ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratzera bultzatu:<br>▪ Estrategia metodologiak erabili didaktika-proposamenak diseinatu eta egiteko, ikuspegi global eta diziplinarteko batekin.<br>▪ Matematika-alorretan erabilitako edo erabiltzea proposatutako eredu didaktikoen ahalmen didaktikoak aintzat hartu.<br>▪ Matematika-trebetasunei dagokionez, ikasleek dituzten ikusmoldeak ikertzeko ekintzak diseinatu.<br>▪ Matematikaren irakaskuntza-ikaskuntzan erabilitako edo erabiltzea proposatutako baliabide didaktikoak aztertu eta aintzat hartu.<br>▪ Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta horiei dagozkien gaitasunak ikasleengan sustatu.<br>▪ Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna bermatu. |
| **Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**<br>Ikasgai honek helburua ikaslea Matematikaren irakaskuntza-ikaskuntzarako gaitzea da. Bestalde, ikasgaiaren izaera globalizatzaile eta diziplinartekoa dela eta, beste ikasgai batzuen osagarria izan daiteke, Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziarena, eta Ingurumenaren Ezagutzarena, gehienbat. Lehen Hezkuntzaren aldi honetan, ikasleak, aipatutako beste esparru horiekin batera, matematikaren irakaskuntza-ikaskuntzaren ikuspegi global eta diziplinartekoa izatea da helburua. |
| **Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**<br>Ez dago. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu behar dituen gaitasunen arteko lotura.** |

| |
|---|
| Metodologia lan kooperatiboan oinarritua dago, eta hezkuntza-testuinguru errealei buruzko arazoak aztertzera eta konpontzera bideratua. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Ahozko azalpenak.<br>✓ Tailerrak eta mintegiak.<br>✓ Tutoretzak.<br>✓ Landa-lanak eta laborategi-lanak.<br><br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.<br>✓ Taldekako ikasketa eta lana. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>Etengabeko ebaluazioa: ahozko azalpenak; ikaslearen eta irakaslearen koadernoa; banakako zein taldekako lanak (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz); ikasgelan eta mintegietan parte hartu.<br><br>Ebaluazioaren agenteak: autoebaluazioa; koebaluazioa; heteroebaluazioa. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Matematikaren sorrera eta garapena: zergatia eta zertarakoa.<br>▪ Matematika-alorraren curriculum-diseinua: Helburuak eta edukiak.<br>▪ Matematikaren ikaskuntza:<br>o Irakasleen ikusmolde zientifikoak eta didaktikoak matematikaren irakaskuntzaz.<br>o Haurren ideiak eta matematikaren ikaskuntza.<br>o Hizkuntza matematika eskoletan.<br>o Ikerketarako baliabideak matematikako ikasgelan.<br>o Matematikako ikasgelarako baliabide didaktikoak.<br>o Matematikaren irakaskuntzarako eredu didaktikoak.<br>o Matematika-alorra: curriculuma, orientabide metodologikoak eta baliabide didaktikoak.<br>▪ Teknologia berriak eta matematika. |

| **Ikasgaiaren izena** | **Kreditoak** |
|---|---|
| 2.3. Ahozko hizkuntzaren, hizkuntza idatziaren eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntza | 6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
    - o Talde-lanean aritzea.
    - o Ikasten ikastea.
    - o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.

- Gaitasun espezifikoak:
    - Ezagupenak:
        - o Inguruko errealitate soziolinguistikoa ezagutu, bai eta hartaz jabetzeko informazio-estrategiak eta informazio-estrategiak ere.
        - o Hizkuntza eta komunikazioaren zientzien oinarrizko printzipioak ezagutu.
        - o Hizkuntza-erabilerak ezagutu, bai eta didaktikaren bidez erabilera horiek aztertzeko irizpideak ere.
        - o Haur eta gazte-literatura ezagutu.
        - o Testu-generoak ezagutu eta ikasgelan landu.
        - o Hizkuntzaren eta literaturaren didaktikaren metodologiak ezagutu.
        - o Testuen ulermen-prozesuak eta ekoizpen-prozesuak ezagutu, lehen eta bigarren hizkuntzetan.
        - o Testuen ulermen-estrategiak eta ekoizpen-estrategiak ezagutu, lehen eta bigarren hizkuntzetan.
        - o Ikaslearen adinerako egokiak diren baliabide teknologiak ezagutu, bai eta ahozko zein idatzizko testuen ulermenaren eta ekoizpenaren irakaskuntza-ikaskuntzarako egokiak direnak ere.
    - Trebetasunak:
        - o Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren irakaskuntza testuinguru soziolinguistikora egokitu.
        - o Hizkuntzaren ikuspuntu epistemologikoak identifikatu eta funtsatu.
        - o Hizkuntza-erabileren egoera desberdinak sustatu, Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren ikaskuntza bultzatzeko.
        - o Ikasleen adinerako egokia den literatura hautatzeko irizpideak identifikatu.
        - o Testu-generoen erabilera identifikatu eta funtsatu, hizkuntzaren garapenerako tresna gisa.
        - o Helburu didaktikoak betetzeko egokiak diren metodologiak identifikatu eta erabili.
        - o Ikasleengan ahozko zein idatzizko testuen ulermen-estrategiak eta ekoizpen-estrategiak garatu.
        - o Kasu bateko informazio adierazgarria bereizi.
        - o Kasu jakin bateko alderdirik garrantzitsuenak berdinen artean jakinarazi eta justifikatu.
        - o Ikasgelan, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan, teknologia modu adierazgarrian sartzen jakin.
        - o Ikasgaiari dagozkion testuak hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna bermatuz idatzi eta azaldu.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Hizkuntza eta komunikazioaren zientzien oinarrizko printzipioen ulermena ahalbidetzen du. Ahozko zein idatzizko testu-generoak. Literatur hezkuntza sustatzen du, helburu didaktikoekin. Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren garapen-prozesuen ulermena bultzatzen du. Helburu jakinak lortzeko egokiak diren metodologien ezagutza ahalbidetzen du. Ikaslea lehen eta bigarren hizkuntzen didaktikara hurbiltzen du.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak**

| |
|---|
| **eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**<br>Kasuen azterketa. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Mintegiak.<br>✓ Tutoretzak.<br>✓ Tailerrak.<br>✓ Hizkuntza-zuzentasuna lantzeko tailerra.<br>✓ Ahozko azalpenak.<br><br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Kasuekin lotura duten alderdiak analizatu eta justifikatu.<br>✓ Hezkuntza-praktiketan hobekuntzak sartzeko proposamenak egin.<br>✓ Edukiekiko eta hizkuntzaren egokitasun eta zuzentasunarekiko arreta. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Hizkuntza eta komunikazioaren zientziak.<br>▪ Testu-generoak.<br>▪ Metodologia-proposamenak.<br>▪ Lehen eta bigarren hizkuntzen garapena.<br>▪ Haur eta gazte literatura.<br>▪ Ulermen-estrategiak eta ekoizpen-estrategiak.<br>▪ Didaktikaren zerbitzurako teknologiak.<br>▪ Kasuak aztertu eta konponbidea ematen saiatu ikaskuntza-tresna gisa. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.4. Eskola-antolakuntza eta familiaren parte-hartzea | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Buruzagitza.
  - Talde-lanean aritzea.
  - *Komunikazio eraginkorra lortzea.*

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Gure herriko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa eta hezkuntza-jardueraren politika-baldintzak eta lege-baldintzak ezagutu.
    - Familia-testuinguruko 6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion ikasketa-prozesuak ezagutu.
    - Familiaren bilakaera historikoa ezagutu, familia-testuinguruko familia-motak, bizimodu-motak, eta hezkuntza-motak ezagutu.
    - Tutorearen eta orientatzailearen funtzioak ezagutu, 6-12 bitarteko aldiko familia-hezkuntzari dagokionez.
    - Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruneko sektore desberdinekiko lankidetza-moduak ezagutu.
    - Kalitatea hobetzeko ereduak ezagutu eta hezkuntza-zentroetan aplikatu.
    - Ikastetxeetako kudeaketa-organoak eta haien funtzioak ezagutu.
    - Ikastetxearen eginkizuna definitzen duten dokumentu instituzionalak ezagutu.

  - Trebetasunak:
    - Hezkuntza eta ingurumena lotu, familiekin eta komunitatearekin elkarlanean aritu.
    - Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan aztertu eta gehitu.
    - Lehen Hezkuntzan berritzaileak diren esperientziak diseinatu eta aplikatu.
    - Hezkuntza-proiektuaren definizioan eta ikastetxeko jarduera orokorrean parte hartu, kalitate-kudeaketako irizpideen arabera.
    - Berrikuntza-proiektuak diseinatu, ebaluazio-adierazleak identifikatuz.
    - Familia-hezkuntzan tutorearen eta orientatzailearen funtzioak betetzen jakin.
    - Trebetasun sozialak erakutsi ikasleak eta familiak ulertzeko eta haiek elkar uler dezaten.
    - Ikastetxean ezar daitezkeen jarduera-esparruetako hobekuntza-proposamenetan parte hartu.
    - Bakarka zein taldeka familiekiko elkarrizketak eta bilerak prestatu eta egin (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).
    - Hezkuntza-komunitate osoaren komunikazioa eta integrazioa ahalbidetzen eta errazten duten baliabide teknologikoak modu optimoan erabili.
    - (Familia-) taldeen kudeaketa errazten duten baliabideak erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai honek familiekin harreman positiboak eta dinamikoak sortzeko eta mantentzeko behar diren ezagupenak eta gaitasunak ematen ditu, bai eta ikastetxeko legeei eta antolamenduari buruzko ezagupen eta gaitasunak ere. Familiak, eskola eta gainerako gizarte-eragileak inplikatuko dituen hezkuntza-komunitate bat sortzeko ezagupenak, teknikak eta gaitasunak eskaintzen ditu, kalitatearen kudeaketarako irizpideak betez.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Ikaslea ardatz duen metodologia, zeinean banakako eta taldekako lana, arazoen azterketa, proiektuen garapena, tailer eta rol-jokoetan parte hartzea, eta gogoeta pertsonala konbinatuko baitira.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Testu profesionalak lantzeko tailerra I (ahozkoak zein idatzizkoak: deialdiak, agiriak, gutunak, elkarrizketak, itzulpena…).
- ✓ Tutoretza.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
Etengabeko ebaluazioa:
- ✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea.
- ✓ Ahozko azalpenak eta rol-jokoak.
- ✓ Hizkuntzaren eraginkortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna, testu profesionalen ekoizpenean.
- ✓ Mintegietan, tailerretan eta talde-lanetan parte hartzea.
- ✓ Eskuratutako ezagupenen ebaluazioa azken proba baten bidez.

**Edukien laburpena**
- Hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa.
- Ikastetxearen antolamendua.
  - Ikastetxe-motak, antolakuntza-egitura, curriculumaren kudeaketa.
  - Dokumentu instituzionalak.
- Heziketaren kalitatearen kudeaketa.
- Familiaren bilakaera historikoa.
- Gaur egungo familia: motak, betekizunak eta beharrak.
- Familia-sistemaren analisia: eredu sistemikoa eta eredu ekologikoa.
- Familia garapen-testuinguru eta sozializazio-testuinguru gisa.
- Familia hezkuntza-garapeneko testuinguru gisa.
- Familiaren eta eskolaren arteko harremana: elkarrizketak, bilerak, familiaren inplikazioa.
- -Hezkuntza-komunitatea:
- Tutoretza eta orientabidea.

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.5. Behaketa ikasgelan, irizpide didaktiko orokorretatik abiatuta. | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila | |

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
    - Talde-lanean aritzea.
    - Komunikazio eraginkorra lortzea.
    - Erabaki-hartzea.
    - Ikasten ikastea.
    - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.
    - Lanaren ikuspegi orokorra izatea.
- Gaitasun espezifikoak:
    - Ezagupenak:
        - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan parte hartzen duten faktore guztiak ezagutu, kontuan harturik faktoreen arteko interakzioak aldakorrak direla, ez estatikoak.
        - Gaitasunen ikaskuntzan oinarrituta dauden egungo lege-proposamenak eta garabideak ezagutu eta ulertu.
        - Sekuentzia didaktikoak eta programazio didaktikoaren prozesuak antolatzeko eta aztertzeko teoriak ezagutu.
        - Lehen Hezkuntzan berritzaileak diren esperientziak ezagutu.
        - Hezkuntza-ikerketako oinarrizko metodologiak eta teknikak ezagutu, eta (eguneroko) behaketa-teknika eta erregistro-teknika batzuk menderatu.
        - Informazioa komunikatzeko trebetasunak ezagutu.
        - Hezkuntza-praktikarako erabilgarriak diren tresna informatikoen aukerak eta ahalmenak ezagutu.
        - Ikasle eta irakasleen arteko lan kolaboratiboa ahalbidetzen duten baliabideak ezagutu. Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien bitartezko komunikazioa arautzen duten arauak eta berezitasunak ezagutu.
    - Trebetasunak:
        - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak interpretatzen eta baloratzen jakin.
        - Irakaskuntza-praktika eta haren inguruko baldintza instituzionalak aztertu.
        - Talde-lana eta bakarkako ahalegina sustatu.
        - Ikasgelako irakaslana eta ikaskuntza diseinatu, planifikatu eta ebaluatu.
        - Askotariko ikuspuntu didaktikoak erabiltzen jakin, ikasleriaren aniztasunari erantzuteko.
        - Ikasgelan, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan, teknologia modu adierazgarrian sartzen jakin.
        - Ordenagailuen, ikus-entzunezko materialaren eta abarren erabileran oinarrituko proiektu eta jarduera didaktikoa planifikatzen, garatzen eta ebaluatzen jakin,

irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua aberaste aldera.
- Ikuspuntu teorikoa praktika didaktikora egokitzen jakin.
- Landa-lanari behaketa-metodologiaren bitartez ekin, informazioaren, dokumentazioaren eta ikus-entzunezko teknologiak erabiliz, eta hezkuntza-ikerketako oinarrizko teknikak erabiliz.
- Lortutako datuak aztertzen jakin, errealitatea era kritikoan ulertu, eta ondorio-txostena egin.
- Informazioaren teknologiak erabiliz ahoz komunikatzen eta informatzen jakin.
- Material didaktiko digitalak sortzen eta garatzen jakin, hizkuntzaren erabilera zuzenarekin, haiek formulatzeko sarean dauden baliabideak erabiliz.
- Ikasle, irakasle eta komunitatearen arteko lan kolaboratiboa sustatzen duten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin, erabilera horretarako hizkuntza-gaitasun garatuz.
- Baliabide bibliografikoak era egokian erabiltzen jakin (iturri, ohar eta aipamenen erabilera, bibliografiari buruzko kapituluaren prestaketa…).

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua behatzeko beharrezkoak diren estrategien eta tresnen erabileran trebatzen eta gogoeta-ekintza metodologiaren esparruan hobetzen hasteko aukera ematen dio ikasleari, ikasgelako irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua planifikatzeko, diseinatzeko eta ebaluatzeko irizpideak eta, lankidetzatik eta talde-lanetik abiatuta, ikaslearen aniztasunari erantzuteko programazio didaktikoak prestatzeko gaitasuna eskuratuz.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ikasgai honetako gaitasunak bigarren mailako Practicumean ere landuko direla.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**
- ✓ Hezkuntza-etapa honen nortasuna eta bere ezaugarri kognitibo, psikomotore, komunikatibo, sozial eta afektiboak ezagutu.
- ✓ Haurtzaroko hezkuntza-psikologiaren garabideak ezagutu.
- ✓ Aniztasunari erantzuteko prozedura eta estrategia didaktikoak.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Praktikari buruzko kasuetan eta gogoeta-mintegietan oinarritutako metodologia.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana, kasu jakinetan oinarritua.
- ✓ Eskola magistralak/ hitzaldiak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Jarraipen-tutoretzak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Norberaren praktiken aurkezpena.
- ✓ …..

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lana

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Ikasleak klase teorikoetara, praktiketara eta mintegietara joatea eta parte hartze aktiboa izatea (%80).
- ✓ Kasuei emandako konponbidearen balorazioa.
- ✓ Praktiken aldian egindako lan monografikoen balorazioa, landutako irizpide teorikoen arabera.
- ✓ Praktiken aurkezpenen balorazioa, aurkeztutako irizpideen arabera.

**Edukien laburpena**

| |
|---|
| ▪ Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei buruzko ikuspegiak eta azterketa-tresnak.<br>▪ Sekuentzia didaktikoak: Sekuentziak aztertzeko eta prestatzeko irizpideak.<br>▪ Programazio didaktikoa prestatzeko prozesua.<br>▪ Ekintza-gogoeta-ekintza metodologian oinarritutako praktikari buruzko gogoeta-bideak eta tresnak (behaketa, egunerokoa eta talde-azterketa, webblogaren erabilera jarraipenerako tresna gisa, eta talde-azterketarako tresna gisa…).<br>▪ Portafolioa eta haren kudeaketa.<br>▪ Software didaktikoaren azterketa.<br>▪ Webquesta: aztertzea eta sortzea.<br>▪ Hezkuntza-webblogak aztertu eta bat sortu.<br>▪ IKTak ikasgelan. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.6. Hezkuntzaren erronkak eta funtzioak | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>OINARRIZKO HEZKUNTZA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.<br>o Ikasten ikastea.<br><br>**- Gaitasun espezifikoak:**<br>**- Ezagupenak:**<br><br>o Gizarte-zientziek eta hezkuntzak testuinguruen analisiari eta hezkuntza-proiektuen diseinuaren azterketari egiten dizkieten ekarpenak ezagutu.<br>o Hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan ezagutu: familia, hedabideak, eskola, hezkuntza-sistema eta publizitatea bezalako hezkuntza-eragileen aldaketa eta eragina.<br>o Hezkuntzaren eta hezitzaileen funtzio sozial, ideologiko eta politikoa ezagutu.<br>o Teknologiaren eta ikus-entzunezko hizkuntzen gizarte-eragina eta hezkuntza-eragina ezagutu.<br>o IKTek garapen pertsonala eta gizartearen integrazioa eta kohesioa lortzeko tresna gisa duten ahalmena ezagutu.<br>o Hezkuntza-pentsamendua ezagutu, bai eta pentsalari eta hezitzaile aipagarrienen ekarpenak ere.<br>o Irakaslanaren garrantzia ulertu, bai eta heziketarena ere.<br><br>- Trebetasunak:<br><br>o Hezkuntzan eta haren funtzioetan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan aztertu eta beretu, informazio eta komunikazio teknologiak barne.<br>o Hezkuntzaren eta eskolaren errealitatea eta bere hezkuntza-eragileak aztertu.<br>o Hezkuntza-praktika ona ezaugarritzen duten elementuak bereizten jakin.<br>o Hezkuntzak egungo gizartean betetzen duen funtzioa, eskaintzen dituen aukerak eta dituen mugak ulertu.<br>o Testu profesionalak ulertu.<br>o Azalpen-testuak ekoizten jakin, modu eraginkor, zuzen eta koherentean.<br>o Lan kolaboratiboa sustatzen duten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin.<br>o Teknologia erabiltzen jakin, komunitatea osoa integratu eta, hartara, arrakala | |

digitala saihesteko.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai hau ikertzen saiatzen da eskolak, eragile sozializatzaile gisa, hezkuntzaren funtzio erreproduzitzailean eta eraldatzailean duen rola, eta, halaber, hezkuntzan eragina duten faktore sozio-ekonomikoak eta kulturalak aztertzen ditu. Bestalde, gogoeta egiten du XX eta XXI. mendeko pentsalari eta hezitzaile aipagarriek hezkuntzari egin dioten ekarpenez.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Ikaslea ardatz duen metodologia, zeinean banakako eta taldekako lana, arazoen azterketa, gai aipagarriei buruzko ikerketa, eta banakako eta taldekako gogoeta konbinatuko baitira.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Ahozko zein idatzizko azalpen testuen tailerra.
- ✓ Tutoretza.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**
Etengabeko ebaluazioa:
- ✓ Bakarkako zein taldekako lanen kalitatea (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).
- ✓ Ahozko azalpenak, eraginkortasuna, zuzentasuna eta koherentzia zainduz.
- ✓ Ikasleen parte-hartzea mintegietan eta taldekako lanetan.
- ✓ Eskuratutako ezagupenen ebaluazioa idatzizko azken proba baten bidez.

**Edukien laburpena**

- Sozializazio-eragileak: familia, hezkuntza-sistema eta eskola, hedabideak, publizitatea.
- Hezkuntzaren funtzioak: funtzio transmititzailea, ideologikoa eta eraldatzailea.
- Pentsamendu pedagogikoa: pentsalari eta hezkuntza-esperientzia aipagarrien ekarpenak.

    - Eskola Aktiboa, Eskola Berria.
    - Esperimentalismoa.
    - Mugimendu kooperatiboak.
    - Sozialismoaren ekarpenak.
    - Pedagogia kritikoa.
    - Egungo esperientzia berritzaileak.

- Hezkuntzaren egungo desafioak: ikuspegi orokorra eta tokiko ikuspegia.
- Curriculumaren sorrera, errealitatearen analisitik eta heziketaren esparruko pentsalarien eta kalitateko hezkuntza-esperientzien ekarpenen azterketatik abiatuta.

<table>
<tr><td>Ikasgaiaren izena<br>2.7. Kulturarteko hezkuntza eta balioen hezkuntza.</td><td>Kreditoak<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak ezagutu: kulturaniztasuna, kulturartekotasuna, gizarte-bazterketa eta gizarte-inklusioa.<br>o Testuinguru kulturanitzetako eskola-egoerak ezagutu eta bertatik aztertu.<br>o Kulturarteko hezkuntzarako irakaskuntza esku hartzearen baliabide eta estrategiak ezagutu.<br>o Beste hizkuntza batzuetako ikasleen hizkuntza ofizialak ikasteko zailtasunak ezagutu.<br>o Erlijioaren egitateak historian izandako bilakaera eta kulturarekin izan duen harremana ezagutu.<br>o Pentsamendu etikoari egindako funtsezko ekarpenak ezagutu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Bizikidetza eta balioen arloan egindako lana sustatzen duten jarduerak diseinatu.<br>o Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan aztertu eta beretu: kulturaniztasuna, kulturartekotasuna, gizarte-bazterketa eta gizarte-inklusioa, besteak beste.<br>o Herritarren heziketa demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoaren praktika sustatu.<br>o Testuinguru eleaniztunetan hizkuntzak ikasteko egoerei aurre egin.<br>o Bizikidetza sustatu, bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo, eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko gaiari heldu.<br>o Ikasleengan giza balio funtsezkoenak sustatu.</td></tr>
</table>

- Ikasleengan aniztasunarekiko begirunea eta estimua sustatu.
- Gaiari buruzko testuak ulertu eta laburtu (euskaraz zein gaztelaniaz).
- Gaiarekin zerikusia duten testuak ekoiztu, dagozkion tresna informatikoak erabiliz (informazio-iturriak, hiztegiak, zuzentzaileak…).
- Gaiari buruzko informazio aipagarria bilatu, eskuratu, berezi eta ebaluatu.
- Hezkuntza-praktikarako baliabide teknologiko egokiak erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honen bidez ikasleak bere jarduera profesionala testuinguru kulturanitzetan eta hizkuntzanitzetan aurrera eramateko eta bere ikasleengan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko behar duen hezibidea hartuko du. Kulturaniztasuneko hezkuntza-egoerak ulertzeko eta haiei aurre egiteko ezagupenak garatuko ditu, balio etikoetan oinarritutako kulturaniztasun eta bizikidetza handiago baten mesedetan.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Ikaslea ardatz duen metodologia, zeinean banakako lana eta taldekako lana, arazoen azterketa eta konponketa, eta gaiari dagozkion testuen taldekako azterketa txandakatuko baitira.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskolak eta mintegiak.
- ✓ Hitzaldiak.
- ✓ Argudio-testuen tailerra.
- ✓ Lan praktikoak.
- ✓ Tutoretza.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Testuen irakurketa eta ulermena.
- ✓ Bestelako informazio-iturriak bilatu.
- ✓ Taldekako lana.
- ✓ Idatzizko azken probarako ikasi.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

Etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa:

- ✓ Eskoletako eta mintegietako parte-hartzearen ebaluazioa.
- ✓ Talde-lanaren ebaluazioa.
- ✓ Ikasgaiarekin lotutako ekoizpenak (kontuan hartuta bai hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bai tresna teknologikoen erabilera).
- ✓ Idatzizko azken proba.

**Edukien laburpena**

- Testuinguru sozioekonomikoa: globalizazioa, neoliberalismoa, kontsumismoa eta migrazioak.
- Erlijioaren egitatea.
- Hizkuntzen kudeaketa ingurune hizkuntzanitzetan.
- Kultura kontzeptua eta bere inplikazioak.
- Kulturarteko hezkuntza.
- Etika hezkuntza eta herritartasunerako hezkuntza.
- Hezkuntzan esku-hartzeko tresna didaktikoen diseinua.

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.8. Informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzan | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Erabakiak hartu.
  - Lanaren ikuspegi orokorra izatea.
  - Komunikazio eraginkorra lortzea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Informazio eta komunikazio teknologiek (ikus-entzunezko hizkuntzak eta pantailak barne) gizartean eta hezkuntzan duten eragina ezagutu eta hartaz gogoeta egin.
    - Zientziak, gizarteak eta garapen teknologikoak elkarren artean duten eragina ezagutu.
    - Informazio eta komunikazio teknologiak eta haiek hezkuntza-praktikarako, garapen pertsonalerako eta gizartearen integrazioa eta kohesioa lortzeko duten ahalmena ezagutu.
    - Ikasgelako interakziorako eta komunikaziorako prozesuak eta bitarteko teknologikoak ezagutu.
    - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ahalbidetu eta aberastu ez ezik lehen hezkuntzan IKTak ere barne hartzen dituzten esperientzia berritzaileak ezagutu, diseinatu, aplikatu eta ebaluatu.

  - Trebetasunak:
    - Familiako eta eskolako hezkuntzan eragina duten egungo gizarte-gertaerarik nabarmenenak modu kritikoan aztertu eta beretu: Teknologiaren eta ikus-entzunezko hizkuntzen gizarte-eragina eta hezkuntza-eragina ezagutu.

- Ikaskuntzaren, hiritar-hezkuntzaren eta kultur aberastasunaren alde egiten duten ikus-entzunezko materialak eta informazioa selektiboki bereizi.
- Bizitzan zehar irakaskuntza-funtzioaren jardunak aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitu behar duela onartu.
- Esperientzia adierazgarriak sustatu informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz.
- Gauzak egokitasunez eta zuzentasunez komunikatzen eta informatzen jakin, horretarako dauden euskarri desberdinak erabiliz.
- Teknologia erabili bai komunitatea osoa integratzeko bai arrakala digitala saihesteko.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honen bitartez ikaslea prest egongo da informazio eta komunikazio teknologien eraginaz hausnartzeko. Ikasleak, gainera, teknologia horiek hezkuntza-praktikan sartzeko gaitasuna izango du, era horretan irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua aberastuz, eta informazio eta komunikazio teknologien hastapen-esperientziak sustatuz.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Metodologia aktiboak erabiliko dira, hala nola ikasleari protagonismoa eta erantzukizuna emango dioten arazo, kasu edo proiektuetan oinarritutako ikaskuntza. Metodologia horien bitartez ikasleak banakako eta taldekako jarduerak egin beharko ditu (modu presentzialean zein birtualean).

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak/ Hitzaldiak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Tutoretzak
- ✓ Kanpo-erakundeekiko harremana.
- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Ikasleak klase teorikoetara, praktiketara eta mintegietara joatea eta parte hartze aktiboa izatea.
- ✓ Era askotako praktikak egitea.
- ✓ Ikasgaiaren edukien inguruan aurkeztutako eta akademikoki zuzendutako lanak.
- ✓ Bakarkako zein taldekako lanen kalitatea (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).
- ✓ Proba objektiboak: partzialak edo azkenak.

**Edukien laburpena**

- Informazio eta komunikazio teknologien ezaugarriak, eta gizartean eta hezkuntzan duten eragina.
- Ikus-entzunezkoen kultura, kultura digitala eta kultura informazionala.
- Multimedia hezkuntza-materialak 6tik 12 urtera bitarteko haurrentzat.
- IKTak erabiltzen dituzten irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen diseinua, garapena eta ebaluazioa.

| **Ikasgaiaren izena**<br>2.9. Praktikak | **Kreditoak**<br>8 ECTS |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bigarren maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br>o Erabaki-hartzea.<br>o Ikasten ikastea.<br>o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>o Buruzagitza.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Ikastetxearen dinamika, antolamendua eta funtzionamendua ezagutu.<br>o Ikasgelako interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak ezagutu.<br>o Eskola-testuinguruan, 6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion ikasketa-prozesuak ulertu.<br>o Ikasleen arteko elkarlana, ikasle eta irakasleen artekoa, eta ikastetxe eta komunitatearen artekoa ahalbidetzen duten baliabideak ezagutu.<br>o Eguneroko praktikaren erregistrorako eta dokumentaziorako eskura | |

dauden baliabideak ezagutu.
  - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua arretaz behatzeko eskura dauden baliabideak ezagutu.
  - Ikasgelako errealitatea aztertzeko tresnak ezagutu.

- Trebetasunak:
  - Ikasgelako interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak ezagutu.
  - Ikaskuntza eta bizikidetza erraztuko dituen giroa lortzeko beharrezkoak diren trebetasun eta abildade sozialak erabiltzen jakin.
  - Hezkuntza-prozesuaren jarraipena egin, eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuarena, bereziki, horretarako behar diren teknikak eta estrategiak menderatuz.
  - Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzen jakin.
  - Irakaslanean parte hartzen jakin, eta egiten jakiten ikasi, praktikatik abiatuta jokatuz eta hausnartuz.
  - Norberaren hezkuntza-praktika ikertzeko egokiak diren metodologiak aplikatzen jakin.
  - Informazioaren teknologiak erabiliz ahoz komunikatzen eta informatzen jakin.
  - Ikasleen arteko elkarlana, ikasle eta irakasleen artekoa, eta ikastetxe eta komunitatearen artekoa sustatzen duten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin.
  - Banakako lana eta ikasgelako jarduerak programatzen jakin, praktiketako tutorearen eta Fakultatearen lankidetzarekin.
  - Ikasgelako testuinguruan sortzen diren egoeretarako egokiak diren estrategiak identifikatzen jakin.
  - Ikasleen ahalegina, iraunkortasuna eta diziplina pertsonala bultzatu eta aintzat hartu.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren inguruan eskuratutako teoria aplikatzeko aukera ematen du, bai eta haren plangintza didaktikoa egiteko eta hezkuntza-praktika aztertzeko ere, jasotako irizpideetatik abiatuta. Gainera, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen behaketarako estrategien eta tresnen ikaskuntza ahalbidetzen du, bai eta prozesu horren hobekuntza ere, ekintza-gogoeta-ekintzaren metodologiaren esparruan.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

- ✓ Plangintza didaktikoari buruzko ezagutzak.
- ✓ Hezkuntza-etaparen nortasunaren ezagutza.
- ✓ Hezkuntza-etapa horretako haurren bilakaeraren garapenari buruzko ezagutza.
- ✓ Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuari buruzko ezagutza, bai eta prozesu horretan aintzat hartu beharreko aldagaiei buruzkoa ere.
- ✓ Praktikaren behaketa sistematikorako eta azterketarako tresnei buruzko ezagutzak.
- ✓ Informazio eta komunikazio teknologiari buruzko oinarrizko ezagutzak eta berorien erabilera ikasgelan.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Informazio-bilketa sistematikoa egingo da, portafolio batean egindako oharretatik eta haiei buruzko gogoetatik abiatuta. Hori dena tutoretzapean jarriko da, praktikaren azterketarako mintegietan parte hartuta, bakoitzaren kasua aztergai eta gogoeta-tresna izango dela bertan.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Mintegiak.
- ✓ Ikastetxeetan egindako praktikak.
- ✓ Tutoretza akademikoa.
- ✓ Tresna didaktikoetarako eta hizkuntza-zuzentasunerako testuen tailerra.

| |
|---|
| Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.<br>✓ Eguneroko baten eta webblog baten idazketa.<br>✓ Portafolioaren eta blogaren kudeaketa. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Bere behaketan eta azterketan oinarritutako lan monografikoen emanaldia.<br>✓ Ekintza-gogoeta-ekintzako mintegietan parte hartu, non bere egunerokoen irakurketa eta azterketa egingo baita.<br>✓ Portafolioaren azken emanaldia.<br>✓ Edukiekiko eta hizkuntzaren egokitasun eta zuzentasunarekiko arreta.<br>✓ Praktiketako ikastetxeko tutorearekin elkarrizketa, Fakultatean aurrez prestatutako behaketa-gidoi batean oinarritua.<br>✓ Ikasleen autoebaluazioa eta koebaluazioa. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei buruzko ikuspegiak eta azterketa-tresnak.<br>▪ Sekuentzia didaktikoak: Sekuentziak aztertzeko eta prestatzeko irizpideak.<br>▪ Programazio didaktikoa prestatzeko prozesua.<br>▪ Hezkuntza-premia espezifikoen alorrean esku-hartzeko estrategiak.<br>▪ Ekintza-gogoeta-ekintza metodologian oinarritutako praktikari buruzko gogoeta-bideak eta tresnak (behaketa, egunerokoa eta talde-azterketa, webblogaren erabilera jarraipenerako tresna eta talde-azterketarako tresna gisa…).<br>▪ Hezkuntza-premia espezifikoen alorrean esku-hartzeko estrategiak.<br>▪ Portafolioa eta haren kudeaketa.<br>▪ Software didaktikoaren azterketa.<br>▪ Webquesta: aztertzea eta sortzea.<br>▪ Hezkuntza-webblogak aztertu eta bat sortu.<br>▪ IKTak ikasgelan. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>3.1. Ahozko hizkuntzaren oinarrizko trebetasunen irakaskuntza-ikaskuntza eta zailtasunak (L1/L2) II | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Ikasten ikastea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Ikastetxearen Hizkuntza Proiektu eleaniztuna ezagutu, hizkuntza gutxituen testuinguruetan.<br>o Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren curriculum-diseinua eta bere ziklokako banaketa ezagutu.<br>o Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren ikaskuntza arautzen duten printzipio | |

psikopedagogikoak ezagutu.
  - Hizkuntza eta literaturako material didaktikoaren sorkuntzan esku hartzen duten alderdiak ezagutu (epistemologia, didaktika…).
  - Hizkuntzen ezaugarri komunak eta beraien erabilgarritasun didaktikoa ezagutu.
  - Ikasle eleaniztunek komunikatzeko eta ezagutza eraikitzeko erabiltzen dituzten estrategiak ezagutu.
  - Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren garapen-prozesuetako balizko zailtasunak ezagutu.
  - Komunikazio-gaitasun maila desberdineko pertsonen arteko komunikazio-prozesuak eta komunikazio-estrategiak ezagutu.

- Trebetasunak:
  - Ikastetxeetako Hizkuntza Proiektuak hizkuntza gutxituen testuinguruetan diseinatzen, ebaluatzen eta aplikatzen jakin.
  - Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia ikasteko egokiak izan daitezkeen baliabide didaktikoak garatzen eta ebaluatzen jakin.
  - Ikasleengan komunikazio-gaitasuna maila desberdineko pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzeko estrategiak sustatzen jakin.
  - Printzipio psikopedagogikoak baliabide didaktikoen diseinu eta ebaluazioan aplikatzen jakin.
  - Ikasle eleaniztunek komunikatzeko eta ezagutza eraikitzeko erabiltzen dituzten estrategiak aintzat hartu eta sustatu.
  - Literatura helburu didaktikoekin erabili.
  - Irakurketa eta idazketarekiko zaletasuna bultzatu.
  - Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzien arteko harremana ulertu eta bultzatu.
  - Testuinguru akademikoetan ahoz eta idatziz argudiatu IKTen laguntzarekin.
  - IKTak ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzien garapen-prozesuen zerbitzura erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Lehen Hezkuntzako Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren ikaskuntza-prozesuarekin zerikusia duten printzipio psikopedagogikoen ulermena ahalbidetzen du. Testuinguru eleanitzetako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak ulertzeko, diseinatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko ezagupenak eta trebetasunak eskaintzen ditu. Aniztasunaren tratamendurako ezagutza bultzatzen du. Jarritako helburuetara egokitzen diren baliabideak bereizteko eta justifikatzeko ezagupena eta trebetasunak eskaintzen ditu.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Proiektuetan oinarritutako metodologia.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Ahozko azalpenak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Ahozko komunikazioa lantzeko tailer espezifikoa II.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Ikastetxeetara bisitak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Ikastetxeko hizkuntza-proiektu baten azterketa kritikoa, ikasgaian landutako edukien

| |
|---|
| arabera: printzipio psikopedagogikoak, hizkuntzaren epistemologia, testuinguru soziolinguistikorako egokitzapena… (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz). |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Hizkuntza proiektua.<br>▪ Hizkuntzen curriculuma.<br>▪ Baliabide didaktikoak.<br>▪ Haur eta gazte literatura eta haren didaktika.<br>▪ Aniztasunarekiko arreta.<br>▪ Komunikazio-estrategiak eta ikaskuntza-estrategiak.<br>▪ Hizkuntzen inguruko zailtasunak.<br>▪ Hizkuntzen artean gerta daitezkeen transferentziak.<br>▪ Arrazoibidea testuinguru akademikoetan.<br>▪ IKTak didaktikaren zerbitzura. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>3.2. Ahozko hizkuntzaren oinarrizko trebetasunen irakaskuntza-ikaskuntza eta zailtasunak (L1/L2) II | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Ikasten ikastea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Ikastetxearen Hizkuntza Proiektu eleaniztuna ezagutu, hizkuntza gutxituen testuinguruetan.<br>o Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren curriculum-diseinua eta bere ziklokako banaketa ezagutu.<br>o Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzien ikaskuntza arautzen duten printzipio psikopedagogikoak ezagutu.<br>o Hizkuntza eta literaturako material didaktikoaren sorkuntzan esku hartzen duten alderdiak ezagutu (epistemologia, didaktika…).<br>o Hizkuntzen ezaugarri komunak eta beraien erabilgarritasun didaktikoa ezagutu.<br>o Ikasle eleaniztunek komunikatzeko eta ezagutza eraikitzeko erabiltzen dituzten estrategiak ezagutu.<br>o Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren garapen-prozesuetako balizko zailtasunak ezagutu.<br>o Komunikazio-gaitasun maila desberdineko pertsonen arteko komunikazio-prozesuak eta komunikazio-estrategiak ezagutu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Ikastetxeetako Hizkuntza Proiektuak hizkuntza gutxituen testuinguruetan diseinatzen, ebaluatzen eta aplikatzen jakin.<br>o Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia ikasteko egokiak izan daitezkeen baliabide didaktikoak garatzen eta ebaluatzen jakin.<br>o Ikasleengan komunikazio-gaitasuna maila desberdineko pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzeko estrategiak sustatzen jakin.<br>o Printzipio psikopedagogikoak baliabide didaktikoen diseinu eta ebaluazioan aplikatzen jakin.<br>o Ikasle eleaniztunek komunikatzeko eta ezagutza eraikitzeko erabiltzen dituzten estrategiak aintzat hartu eta sustatu. | |

- Literatura helburu didaktikoekin erabili.
- Irakurketa eta idazketarekiko zaletasuna bultzatu.
- Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzen arteko harremana ulertu eta bultzatu.
- Testuinguru akademikoetan ahoz eta idatziz argudiatu IKTen laguntzarekin.
- IKTak ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren garapen-prozesuen zerbitzura erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Lehen Hezkuntzako Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren ikaskuntza-prozesuarekin zerikusia duten printzipio psikopedagogikoen ulermena ahalbidetzen du. Testuinguru eleanitzetako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak ulertzeko, diseinatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko ezagupenak eta trebetasunak eskaintzen ditu. Aniztasunaren tratamendurako ezagutza bultzatzen du. Jarritako helburuetara egokitzen diren baliabideak bereizteko eta justifikatzeko ezagupena eta trebetasunak eskaintzen ditu.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Proiektuetan oinarritutako metodologia.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Ahozko azalpenak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Ahozko komunikazioa lantzeko tailer espezifikoa II.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Ikastetxeetara bisitak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Ikastetxeko hizkuntza-proiektu baten azterketa kritikoa, ikasgaian landutako edukien arabera: printzipio psikopedagogikoak, hizkuntzaren epistemologia, testuinguru soziolinguistikorako egokitzapena… (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).

**Edukien laburpena**

- Hizkuntza proiektua.
- Hizkuntzen curriculuma.
- Baliabide didaktikoak.
- Haur eta gazte literatura eta haren didaktika.
- Aniztasunarekiko arreta.
- Komunikazio-estrategiak eta ikaskuntza-estrategiak.
- Hizkuntzen inguruko zailtasunak.
- Hizkuntzen artean gerta daitezkeen transferentziak.
- Arrazoibidea testuinguru akademikoetan.
- IKTak didaktikaren zerbitzura.

| **Ikasgaiaren izena** | **Kreditoak** |
| --- | --- |
| 3.3. Gorputz-heziketa, osasuna eta ongizatea | 6 ECTS |

| | DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Ikasten ikastea.
  - Talde-lanean aritzea.
  - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Gorputz-heziketaren bidez kulturaren, pertsonaren eta gizartearen hezkuntza osatzen laguntzen duten printzipioak ulertu.
    - Gorputz-heziketaren curriculuma ezagutu.
    - Bizitzan zehar eskolako zein eskolatik kanpoko kirol-jardueretan parte-hartzea sustatzeko baliabideak eskuratu.
    - Gorputzaren funtzioak ezagutu, bai eta gorputz-ariketa eta ekintza motoreen praktikak osasunean dituen ondorioak ere.
    - Gorputz-ariketaren praktika onuragarria izateko jarraibideak ezagutu.
  - Trebetasunak:
    - Curriculumaren edukiak baliabide didaktiko egokien bidez garatu eta ebaluatu, eta horiei dagozkien gaitasunak ikasleengan sustatu.
    - Norberaren kirol praktikaz eta praktika horrek osasunean duen eraginaz hausnartu.
    - Praktika motoreaz gozatu eta sortzen duen ongizate-egoeraren bizipena izan.
    - Ikasleengan ekintza fisiko osasungarrien praktikaren aldeko motibazioa sustatu eta eragin.
    - Osasunarako hezkuntzara bideratutako programak diseinatu.
    - Ikasgaiko lanak hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz egin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasleak gorputz-ariketa mota desberdinen praktikaren eraginari eta praktika horrek gizakiarengan dituen ondorioei buruzko gogoeta-gaitasuna eta ezagutzak eskuratzen ditu, bai eta gorputz-ariketari buruzko jarrera egoki eta proaktiboa lortzeko, bere azturak praktika fisiko onuragarrietara bideratzeko, eta bizi-kalitatea hobetzearen aldeko programak beste pertsona eta/edo taldeetan sustatzeko behar diren esperientzia eta tresnak ere.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Ikaslea ardatz duen metodologia parte-hartzailea, ikasgaiarekin zerikusia duten kasuen azterketan eta hausnarketan oinarritua.
- ✓ Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.
- ✓ Kasuen azterketan oinarritutako metodologia.
- ✓ Metodologia praktiko eta bibentziala; ikasleak praktikan esperimentatuko du gure ikasgai honen helburua, mugimendua eta beronek gorputzean eragiten dituen ondorioak

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak:teorikoak eta praktikak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

| |
|---|
| ✓ Ikasketa autonomoa eta lan autonomoa.<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Ahozko azalpenak.<br>✓ Bakarkako zein taldekako lanak (edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta).<br>✓ Ikaslearen parte hartzea bileretan eta mintegietan.<br>✓ Azken proba teorikoa. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Osasunaren eta bizi-kalitatearen kontzeptua.<br>▪ Gorputz-heziketaren curriculumaren funtsezko alderdiak.<br>▪ Gorputz-ariketa jarduera osasungarri gisa.<br>▪ Pertsona-talde desberdinen artean ariketa fisiko osasungarria sustatzeko eta dinamizatzeko estrategiak. |

| Ikasgaiaren izena | Kreditoak |
|---|---|

| 3.4. Musika-, plastika- eta ikus-adierazpenaren oinarriak. | 6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
    - Talde-lanean aritzea.
    - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.
    - Ikasten ikastea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Artetik abiatuta, kulturaren, pertsonaren eta gizartearen hezkuntzaren alde egiten duten printzipioak ulertu, arte-hezkuntzaren eskola-curriculuma (plastikari, ikus-entzunezkoei eta musikari dagokionez) pertsonen garapen integralaren zati garrantzitsu gisa aztertuz.
    - Curriculumeko musika-, plastika-, ikus- eta gorputz-adierazpidearen oinarriak eta, lehen hezkuntza etapan, ikaskuntza horiek eskuratzeko eta garatzeko teoriak ezagutu, ikus-entzunezko hizkuntzak eta hizkuntzok hezkuntzan dituzten inplikazioak aztertuz.
    - Lehen hezkuntzako ikasleengan, jarduera artistikoaren eta irudimenaren garapenaren, sormenaren eta adierazpenaren artean dagoen harremana aztertu.
    - Egitate musikalaren, plastikoaren eta irudizkoaren irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren ikuspegi metodologikoak eta prozesu horretan ager daitezkeen zailtasunak ezagutu.
    - Zailtasun horiekin zerikusia duten laguntza-baliabide teknikoak ezagutu.

  - Trebetasunak:
    - Irizpide formal, estetiko eta emozionaletatik abiatuta, arte-adierazpide mota guztietan sormena aintzat hartu, eta, aldi berean, azterketa kritikoa bultzatu.
    - Arte-adierazpideari datxezkion sormen-alderdiak aztertu eta haren garapena sustatu sortze-lan eta ekoizpen intra eta interdiziplinarren bitartez.
    - Lehen Hezkuntzako arte-ikaskuntzaz hausnartu dimentsio kognitibo, emozional, psikomotore eta nahimenezkoen ikuspegi globalizatzaile eta integratzaile batetik, eta, ikaslearen arte-ikaskuntzan zailtasunak antzeman bezain laster, heziketan esku hartzeko mekanismoak martxan jartzen jakin (errefortzua, banan-banako arreta, familia-eskola lankidetza…), banan-banaka edo ikastetxeko beste profesional batzuen lankidetzarekin (laguntzako irakaslea, aholkularia…).
    - Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zaindu.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Lehen hezkuntzako ikasleen pertzepzio-, adierazpen- eta sormen-gaitasunen garapenerako oinarrizkoa den dimentsio artistikoaren azterketara hurbildu.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Kasu eta arazo jakinetan oinarritutako irakaskuntza-metodologia.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
✓ Eskola magistralak/ Hitzaldiak.
✓ Tailerrak.
✓ Eskola praktikoak.
✓ Tutoretzak.
✓ Kanpo-erakundeetako praktikak.

| |
|---|
| ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana.<br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Klase teoriko eta praktikoetan ikasleek izandako asistentzia eta parte hartzea.<br>✓ Era askotako praktikak egitea.<br>✓ Ikasgaiaren edukien inguruan aurkeztutako eta akademikoki zuzendutako lanak (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).<br>✓ Proba objektiboak: partzialak edo azkenak. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Artetik abiatutako kultur hezkuntzaren, hezkuntza pertsonalaren eta gizarte-hezkuntzaren azterketa, bai arte-hezkuntzaren eskola-curriculuma bai haren hezkuntza-inplikazioak aztertuz, arte-hezkuntzaren esparrua, testuinguru naturaletan, ikasle guztiengana zabaltzeko helburuarekin.<br>▪ Lehen hezkuntza-etapako arte-hezkuntzaren oinarriak aztertu, artearen jarduera sustatuz eta irudimenaren, sormenaren eta adierazpenaren garapena bultzatuz, bai neurri arrunten bidez bai ikasleriaren aniztasunari erantzuten dioten eta hizkuntza musikal, plastiko eta bisualekin zerikusia duten estrategia metodologikoen bitartez. |

<table>
<tr><td>Ikasgaiaren izena<br>3.5. Arte-hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua eta esku hartzea</td><td>Kreditoak<br>9 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br>o Erabaki-hartzea.<br>o Ikasten ikastea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Lehen Hezkuntzako ikasketa-planetako Arte Hezkuntzaren ikuspuntua, helburu orokorrak eta programa aztertu, arte-adierazpidearen eta arte-irudikapenaren esparruko ebaluazio-irizpideak ezagutuz.<br>o Arte-hezkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan ager daitezkeen zailtasunak aztertu eta zailtasun horiekin zerikusia duten laguntza-baliabide teknikoak ezagutu.<br>o Ikasleak eguneroko bizitzan dituen eta lehen hezkuntzako eskolan egiten diren arte-esperientziez hausnartu, hezkuntzaren helburu orokorrei erantzungo dioten aukerak proposatzeko.<br>o Curriculumeko edukiak garatu eta ebaluatu, bizitzan zehar eskolako zein eskolatik kanpoko jarduera musikal, plastiko eta bisualetan parte hartzeko gaitasunak sustatuko dituen eta ikasleei gaitasun horiek eskuratzea ahalbidetuko dieten baliabide didaktikoen bitartez.<br>o Arte-hezkuntzaren inguruan, hezkuntza iraunkorrerako dauden aukerak eta laguntzak ezagutu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Lehen hezkuntzako arte-adierazpiderako unitate, sekuentzia eta proiektu didaktikoak garatzeko jarraibideak landu, kreazio eta ekoizpen artistikoak modu intra eta interdiziplinarrean diseinatuz eta garatuz.<br>o Arte-adierazpenari berez datxezkion sormen-alderdiak adoretu, ikasleengan arte-adierazpide ororen aldeko jarrera sustatuz, eta, esperientzia horretan parte harturik, erabateko gozamena lortu.<br>o Aniztasun-testuinguruetan inklusioaren printzipioei erantzungo dioten ikaskuntza-eremuak diseinatu eta arautu, ikaskuntza-gaitasun eta erritmo desberdinak dituzten ikasleei eragiten dieten hezkuntza-egoeren konponbidea identifikatuz eta planifikatuz.<br>o Hezitzailearen dimentsio guztiak garatu: zientifikoa, sinbolikoa, sortzailea, emozionala.<br>o Lanak idazteko eta azaltzeko orduan, hizkuntza-egokitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna zaindu.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari<br>Lehen hezkuntzako ikasleen pertzepzio-, adierazpen- eta sormen-gaitasunen garapenerako oinarrizkoa den dimentsio artistikoaren azterketara hurbildu.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)</td></tr>
<tr><td colspan="2">Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.</td></tr>
</table>

| |
|---|
| Proiektu jakinetan oinarritutako irakaskuntza-metodologia. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Eskola magistralak/ Hitzaldiak.<br>✓ Tailerrak.<br>✓ Testu profesionalen tailer espezifikoa III (joko-arauak).<br>✓ Eskola praktikoak.<br>✓ Tutoretzak.<br>✓ Kanpo-erakundeetako praktikak.<br>✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana.<br><br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Ikasleak klase teorikoetara, praktiketara eta mintegietara joatea eta parte hartze aktiboa izatea.<br>✓ Era askotako praktikak egitea.<br>✓ Ikasgaiaren edukien inguruan aurkeztutako eta akademikoki zuzendutako lanak (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).<br>✓ Proba objektiboak: partzialak edo azkenak. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Oinarrizko curriculum-diseinuan proposatutako helburu didaktiko artistikoen azterketa, analisia eta aplikazioa, musikaren, plastikaren, irudiaren eta gorputzaren pertzepzioa eta adierazpidea sustatuko dituzten arte-adierazpideko eta arte-sorkuntzako unitate, sekuentzia eta proiektu didaktikoak garatzeko jarraibideak bultzatuz, bai neurri arrunten bidez bai lehen hezkuntzako ikasleriaren aniztasunari erantzungo dioten estrategia metodologikoen bitartez |

| **Ikasgaiaren izena**<br>3.6. Jarduera soziokulturalak: proiektuen kudeaketa | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
    - Talde-lanean aritzea.
    - Komunikazio eraginkorra lortzea.
    - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.
    - Erabaki-hartzea.
    - Lanaren ikuspegi orokorra izatea.
    - Buruzagitza.

- Gaitasun espezifikoak:
    - Ezagupenak:
        - Dimentsio kognitibo, emozional eta psikomotorearen ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea ezagutu.
        - Jakintza-alor bakoitzaren ekarpenak ezagutu.
        - Antolamendu-teknikak, kudeaketa-teknikak eta animazio-teknikak ezagutu.
        - Bai heziketaren dimentsio sozialak bai eskolaren inplikazio sozialak duten garrantzia ulertu.
    - Trebetasunak:
        - Haurrentzako ikaskuntza-esparruak, jolas-eremuak eta adierazpen-espazioak diseinatu.
        - Haurrei eta haien familiei zuzendutako jardunaldiak antolatzeko eta kudeatzeko trebetasunak eskuratu.
        - Jarduerak planifikatzeko orduan jakintza-arloak aplikatu.
        - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ahalbidetzen eta aberasten duten baliabide teknologikoak ezagutu.
        - Ikasleen arteko elkarlana, ikasle eta irakasleen artekoa, eta ikastetxe eta komunitatearen artekoa ahalbidetzen duten baliabideak ezagutu.
        - Informazioaren teknologiak erabiliz ahoz komunikatzen eta informatzen jakin.
        - Lanak hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz egin.
        - Ikasleen ahalegina, iraunkortasuna eta diziplina pertsonala bultzatu eta aintzat hartu.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai honen helburua da etorkizuneko irakaslea prestatzea bai inguruarekiko konpromiso soziokulturalean bai bere heziketa-baliabide integralen erabilpenean.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Diziplinarteko proiektu txikiak egingo dira, ingurune hurbileneko eskoletan eta espazio publikoetan gauzatuko diren ekintzak prestatzeko helburuarekin.

**Hezkuntza-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Mintegiak.

- ✓ Tailerrak.
- ✓ Sormena lantzeko tailer espezifikoa: gidoia, antzerki-idazketa eta eszenaratzea.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.
- ✓ Proiektuen plangintza, kudeaketa eta gauzatzea.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**
Etengabeko ebaluazioa:
- ✓ Egingo diren proiektuen plangintza.
- ✓ Proiektuen kalitatea (edukiak zainduz eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz).
- ✓ Proiektuak tokian tokian gauzatu.

**Edukien laburpena**
- Dimentsio kognitibo, emozional eta psikomotorearen ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea.
- Jarduera, proiektu eta abarren plangintza egiteko teknikak.
- Antolamendu-teknikak, kudeaketa-teknikak eta animazio-teknikak.
- Jarduerak helburura, testuingurura eta hartzaileari egokitu.

| **Ikasgaiaren izena**<br>3.7. Praktikak | **Kreditoak**<br>6 ECTS |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Ikasten ikastea.
  - Talde-lanean aritzea.
  - Komunikazio eraginkorra lortzea.
  - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.
  - Ikusmen-ahalmena eta ikuspegi orokorra.
  - Buruzagitza.

- - Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - Teoriaren eta praktikaren artean dagoen lotura ezagutu.
    - Ezagutu jakintza-arlo bakoitzaren esparrua (zientzia esperimentalak; gizarte-zientziak; matematika, hizkuntza; musika-, plastika- eta ikus-hezkuntza; gorputz-heziketa) eta ikasgelan duen eragina.
    - Ikasgelako errealitatea aztertzeko tresnak ezagutu.
    - Ikerketa-proiektu baten emaitzak ahoz zein idatziz komunikatzeko eta aurkezteko estrategiak ezagutu, horretarako informazio eta komunikazio teknologia berriak behar bezala erabiliz.

  - Trebetasunak:
    - Eskola-testuinguruan, 6-12 urte bitarteko aldiari dagozkion hezkuntza-prozesuak eta ikasketa-prozesuak behatu eta aztertu.
    - Norberaren praktiken planaren plangintza egin.
    - 6-12 urte bitarteko ikasle-taldeen interakzio-prozesuak eta komunikazio-prozesuak arautu.
    - Hezkuntzaren esparruetan parte hartu eta hobekuntza-proposamenak aurkeztu.
    - Hezkuntza-prozesuaren eta, bereziki, esperientzia globalizatzaile desberdinen irakaskuntza-ikaskuntzaren jarraipena egin, horretarako behar diren teknikak eta estrategiak menderatuz, eta hezkuntza esku-hartzearen estrategiez hausnartuz batez ere.
    - Behaketa-tekniken eta datu-bilketarako bestelako teknika batzuen plangintzan trebatu, jakintza-arloko ikerketa-proiektu baten barruan teoria eta praktika lotzeko.
    - Baliabide teknologikoak erabiliz, ahoz zein idatziz komunikatzeko eta informatzeko gai izan.
    - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren behaketa eta azterketa ahalbidetzen duten baliabide teknologikoak erabili.
    - Ikasleen ahalegina, iraunkortasuna eta diziplina pertsonala bultzatu eta aintzat hartu.
    - Komunikazioa eta kudeaketa ahalbidetzen eta errazten duten baliabide teknologikoak erabili.

- o Egindako plangintza benetan ikasitakoarekin kontrastatu.
- o Praktiken azken proiektua idatzi hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna zainduz.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Aukera ematen du ezagutzeko bai Lehen Hezkuntzako curriculum-esparruak, haien arteko harreman interdizplinarra, ebaluazio-irizpideak, eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozeduren inguruko ezagupen didaktikoen multzoa. Aukera ematen du, halaber, irakaslana eraberritzea eta hobetzea helburu duten ikasgela-praktikez hausnartzeko, eta ikaskuntza autonomo eta kooperatiboaren aldeko ohiturak eta trebetasunak eskuratzeko, hala nola trebetasun horien ikasleen artean sustatzeko.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Ikasgelan aztertu eta esperimentatutako kasuetan eta ikasgelaz hausnartzeko mintegietan oinarritutako metodologia. Horretarako, datuak behar bezala aztertzen eta biltzen lagunduko duten estrategiak bultzatuko dira, gerora komunikatu eta ikasleen artean eztabaidatu ahal izateko.

**Hezkuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Taldean zuzendutako ikasketa eta lana, kasu jakinetan oinarritua.
- ✓ Ikastetxean egindako praktikak.
- ✓ Jarraipen-tutoretzak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Testu profesionalak lantzeko tailerra II (praktika-proiektu baten idazketa).
- ✓ Norberaren praktiken aurkezpena.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Bakarkako ikasketa eta lana.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lana.
- ✓ Proiektu baten prestaketa.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Klase teorikoetan, praktiketan eta mintegietan ikasleek izandako asistentzia eta parte hartzea.
- ✓ Praktiken aldian egindako lan monografikoen balorazioa, landutako irizpide teorikoen arabera.
- ✓ Azken praktika-proiektuaren balorazioa (edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere kontuan hartuta).
- ✓ Ikaslearen autoebaluazio eta koebaluazioa.

**Edukien laburpena**

- ▪ Globalizazioari buruzko ikuspegi (modu) desberdinak haur hezkuntzako irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuetan, eta prozesuok aztertzeko tresnak.
- ▪ Praktiken programazio didaktikoa prestatzeko prozesua, ikuspegi desberdin horiek kontuan hartuta.
- ▪ Hezkuntza-premia espezifikoen alorrean esku-hartzeko eta eragiteko estrategiak esperientzia globalizatzaileen esparruan.
- ▪ Ekintza-gogoeta-ekintza metodologian oinarritutako praktikari buruzko gogoeta eta komunikaziorako bideak eta tresnak.

| **Ikasgaiaren izena**<br>4.1. Hezkuntza-Heziketa diziplinarra II | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren laugarren maila | |

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - o Ikasten ikastea.
  - o Talde-lanean aritzea.
  - o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.
  - o Komunikazio eraginkorra lortzea.

- - Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - o Ahozko zein idatzizko adierazpen-teknikak sendotu eta menderatu, curriculumeko hiru hizkuntzetan: euskara, gaztelania eta ingelesa.
    - o Sakondu bai ahozko tradizioan, bai folklorean bai kulturaren transmisioan.
    - o Hizkuntza berbalaren eta ez-berbalaren erabilera egokia ezagutu eta aintzat hartu.
    - o Hizkuntza-genero hauetako testu-eraikuntzaren oinarriak ezagutu: egoera komunikatiboa, egokitzapena eta testualizazioa (kohesioa, konexioa, koherentzia eta modalizazioa).

  - Trebetasunak:
    - o Eraginkortasunez heldu hizkuntza-ikaskuntzako egoerei testuinguru kulturanitzetan eta hizkuntzanitzetan.
    - o Ideiak ahoz zein idatziz adierazteko gai izan, bai eta adierazpen-teknika desberdinak menderatzeko ere, curriculumeko hiru hizkuntzetan, zuzentasuna, egokitasuna eta sormena zainduz.
    - o Ikasi beharreko hizkuntzak direla eta, nork bere burua eta besteak ebaluatzen jakin, norberaren gaitasun eta mugen arabera.
    - o Ahozko zein idatzizko testu-genero desberdinak ekoizteko eta ebaluatzeko gai izan.
    - o Testuinguru jakin batzuetan hizkuntzen erabileran sortzen diren zailtasunez hausnartu.
    - o Hizkuntzen erabiltzaile gisa nork bere burua ebaluatu: Hizkuntza desberdinetan garatutako gaitasunak ebaluatu eta ezagupenak eraikitzeko eta komunikatzeko

| |
|---|
| erabili, hizkuntza horietako edozeinetan (pertsona hizkuntzanitzaren kondizioa).<br>o Alderdi horiek hizkuntzen Europako portafolioan gauzatzen jakin.<br>o Proiektuak egiteko informazio garrantzitsua bilatzen, eskuratzen eta ebaluatzen jakin.<br>o Komunikatzeko eta hezkuntza-praktika berarako baliabide informatiko egokienak erabiltzen jakin. |
| **Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**<br>Ikasgai honek oinarrizko komunikazio-trebetasunen ezagupena, garapena, kontsolidazioa eta ebaluazio-gaitasuna eskaintzen ditu, hainbat hizkuntzatan: ingelesa, gaztelania eta euskara, bai eta hizkuntza horien literaturari eta kulturari buruzko ezagupena ere. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**<br>✓ Hizkuntzen erabilerekin eta hizkuntzekiko jarrerarekin zerikusia duten alderdi desberdinen ikerketa, analisi eta hausnarketarako kasuetan oinarritutako metodologia.<br>✓ Ikasleek curriculumeko hizkuntzekin zerikusia duten kultur eta literatur alderdiei buruzko ezagupenak garatuko dituzten proiektuetan oinarritutako metodologia. Ikasleek modu kooperatiboan egingo dute lan, proiektua burutzeko eta ikasgelan haren azalpena egiteko helburu komun batzuei jarraituz. |
| **Hezkuntza-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Eskola magistralak.<br>✓ Taldekako tailer-mintegiak.<br>✓ Tutoretzak.<br><br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa.<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Mintegi eta tailerretan parte hartzea.<br>✓ Talde-lan batzuk egitea.<br>✓ Talde-proiektuen ahozko aurkezpenak, edukiak ez ezik sormena eta hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere zainduz.<br>✓ Portafolioa egin eta berrikusi.<br>✓ Idatzizko azken proba.<br>(Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan beti: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizunaren zentzua). |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Hizkuntza-jarrerak eta haien eragina hizkuntzen ikaskuntzan.<br>▪ Alderdi soziolinguistikoak.<br>▪ Hizkuntzen Europako portafolioa. Nork bere burua ezagutzeko eta ebaluatzeko tresna bat.<br>▪ Testu-generoen aplikazioa.<br>▪ Hizkuntza, kultura eta literatura: euskara, gaztelania eta ingelesa.<br>▪ Hizkuntza curriculum integratua.<br>▪ Zuzentasun, egokitasun eta testualizaziorako estrategiak. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>4.2. Ikuspegi globalizatzaile eta integratzailea Lehen Hezkuntzako eskolan | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>DIDAKTIKO DIZIPLINARRA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren laugarren maila | |

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

- Gaitasun orokorrak:
  - Talde-lanean aritzea.
  - Lanaren ikuspegi orokorra izatea.
  - Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - **Ezagupenak:**
    - Azken urteotan garatutako didaktika- eta heziketa-ereduen bilakaera historikoa ezagutu.
    - Ikaskuntzak sustatu eta erraztu, garapen integralaren dimentsio guztien ikuspegi globalizatzaile eta integratzaile batetik abiatuta.
    - Ezagutza-alor bakoitzaren ekarpen epistemologiko eta didaktikoak ezagutu.
    - Lehen Hezkuntzarako erabilitako eta/edo proposatutako eredu didaktikoez hausnartu.
  - Trebetasunak:
    - Lehen Hezkuntzan erabilitako estrategia didaktikoak ikuspegi globalizatzaile eta integratzaile baten arabera aztertu.
    - Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktikoak egin, ikuspegi globalizatzaile eta integratzaile batetik abiatuta.
    - Proiektuak planifikatzeko eta gauzatzeko orduan jakintza-alor guztien ekarpenak aplikatu.
    - Lehen Hezkuntzako curriculumaren eta haren inplementazioaren inguruan ikerketa-jarduerak planifikatu eta gauzatu.

- Ahozko eztabaidak eta azalpenak egin eta idatzizko txostenak prestatu, edukiak ez ezik hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna ere zainduz.
- Komunikatzen eta informatzen jakin, horretarako dauden euskarri desberdinak erabiliz.
- IKTak erabiliz egindako proiektuak eta jarduerak planifikatzen, garatzen eta ebaluatzen jakin.
- Lan kolaboratiboa sustatzen duten baliabide teknologikoak erabiltzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honek bi helburu ditu: batetik, aurreko ikasturteetan landutako didaktikek (zientzia esperimentalak, matematika eta gizarte-zientziak, arte-adierazpidea eta hizkuntza) egindako ekarpen teorikoak eta praktikoak biltzea, eta, bestetik, ekarpen horiei buruz sakon hausnartzea. Hezkuntza etapa honetan hain garrantzitsua den ikuspegi globalizatzaile eta integratzailearen garapenean eragitea da asmoa.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Ikasleek atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzari aplikatutako Informazio eta komunikazio teknologien bitartez beren lanbidea aurrera eramateko ezagutzak eta gaitasunak eskuratuko dituzten proiektuetan oinarritutako metodologia. Metodologia horren bitartez ikasleak banakako zein taldekako jarduerak egin beharko ditu (modu presentzialean zein birtualean).

**Heziketa-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Mintegi eta tailerretan ikasleek izandako parte-hartzea.
- ✓ Talde-lan batzuk egitea.
- ✓ Talde-lanen ahozko aurkezpenak.
- ✓ Idatzizko azken proba.

(Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan beti: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizunaren zentzua).

**Edukien laburpena**

- Informazio eta komunikazio teknologien iraultza atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan.
- Ikus-entzunezkoen kultura, kultura digitala eta kultura informazionala.
- Atzerri-hizkuntzaren irakaskuntzarako multimedia hezkuntza-materialak 0tik 6 urtera bitarteko haurrentzat.
- IKTak erabiltzen dituzten irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen diseinua, garapena eta ebaluazioa.
- Literatura bizitzaren ikaskuntzan nola erabili eta integratu, Informazio eta komunikazio teknologien bitartez.
- Literatura komunikazio-bide gisa.

<table>
<tr><td>Ikasgaiaren izena<br>HAH 3.1. Eleaniztasunaren garapena hizkuntza gutxituen testuinguruetan</td><td>Kreditoak<br>6 ECTS<br>HAUTAZKOA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan<br>Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Lanaren ikuspegi orokorra izatea.<br>o Ikasten ikastea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Eleaniztasunaren garapenaren prozesua ezagutu hizkuntza gutxituen testuinguruetan.<br>o Hizkuntzen artean sortzen diren harremanak ezagutu.<br>o Eskola-sare bakoitzeko Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak ezagutu.<br>o Beste testuinguru batzuetako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak ezagutu.<br>o Atzerri-hizkuntzan idatzitako ahozko zein idatzizko testu-generoak ezagutu: argudioa, konparaketa, kontrastea…<br><br>- Trebetasunak:<br>o Ikastetxeko hizkuntza-proiektuen inguruan euskal hizkuntzaren bitartez garatutako estrategiak eta ezagutza erabili eta atzerri-hizkuntzara transferitu.<br>o Gure testuinguruan eta beste testuinguru batzuetan hizkuntza-proiektuek eratzen dituzten elementuak aztertu eta antzekotasunak eta desberdintasunak detektatu.<br>o Atzerri-hizkuntzan komunikatu eta argudiatu ikastetxeko hizkuntza-proiektuei buruz.<br>o Alderatu, kontrastatu, ondorioak atera eta hobekuntzak proposatu.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari<br>Hizkuntza gutxituen testuinguruetako ikasleen eleaniztasuna garatzeko diseinatutako ikastetxeko hizkuntza-proiektuen ezagutza sustatu. Proiektuak aztertzeko, alderatzeko eta haiei buruzko ondorioak ateratzeko gaitasuna sustatu, bai eta komunitateko ikastetxeetako eskola-sareetan aurrera eramaten ari diren hizkuntza-proiektuak hobetzera zuzendutako proposamenak egiteko ere.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)</td></tr>
</table>

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Proiektuetan oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Ebaluazioa (autoebaluazioa eta koebaluazioa).
- ✓ Tailerrak.

Jarduera ez presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Hizkuntza gutxitu baten testuinguru eleaniztun baterako diseinatutako ikastetxeko hizkuntza-proiektu bat aztertzen den txosten idatzia, hobekuntza-proposamenekin eta guzti (ingelesez idatzitako proiektua).
- ✓ Egindako txostenaren ahozko defentsa (ingelesez).

**Edukien laburpena**
Eleaniztasuna: hainbat ikuspegi; eleaniztasuna hizkuntza gutxituen testuinguruetan; ikastetxeko hizkuntza-proiektua hizkuntza gutxien testuinguruko eleaniztasunaren zerbitzura; argudioa, konparaketa eta kontrastea atzerri-hizkuntzan (ahozko zein idatzizko testuak).

| **Ikasgaiaren izena** | **Kreditoak** |
|---|---|
| HAH 3.2. Hirugarren Hizkuntzen didaktika: Hizkuntza eta Curriculuma | 6 ECTS<br>HAUTAZKOA |

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren hirugarren maila

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
**- Gaitasun orokorrak:**
  - o Talde-lana:
  - o Komunikazio eraginkorra lortzea.
  - o Ikasten ikastea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
    - o Atzerri-hizkuntzaren sistema fonologikoa ezagutu.
    - o Gizarte-zientziak ingeles hizkuntzan.
    - o Arte-adierazpena ingeles hizkuntzan.
    - o Matematikak ingeles hizkuntzan.
    - o Irakaskuntza esku-hartzearen estrategiak irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ingelesaren bidez (atzerri-hizkuntza gisa) egituratzeko eta aniztasunari erantzuteko.
    - o Irakaskuntza esku-hartzearen estrategiak, curriculum-arloetan, irakurketa-idazketa atzerri-hizkuntzaren bidez sustatzeko.
    - o Atzerri-hizkuntzan idatzitako haur-literatura eta gazte-literatura ezagutu.
    - o Atzerri-hizkuntzaren irakaskuntza-prozesua curriculum-edukien bitartez antolatzeko tresnak.
    - o Lehen Hezkuntzan, hizkuntzen unitate didaktiko bat osatzen duten elementuak ezagutu.
    - o Gelako hizkuntza atzerri-hizkuntzan ezagutu.
    - o Hezkuntza-etapa horretako material didaktikoak ezagutu; softwarea, ikus-entzunezko euskarria.

  - Trebetasunak:
    - o Curriculumeko jakintza-arloetan atzerri-hizkuntzaren bidez esku-hartu.
    - o Lehen hezkuntzan, hizkuntza gutxituen testuinguruetan, atzerri-hizkuntzaren bidezko ikaskuntza-egoerak sustatu.
    - o Ikasleek curriculumeko gainerako hizkuntzen bitartez garatu dituzten ezagutzak aktibatu: curriculumaren eta ikuslearen ikuspegi orokor batetik abiatuta,

kontuan hartzen dira ikasleek komunitateko bi hizkuntzen bidez (euskaraz zein gaztelaniaz) egiten dituzten ikaskuntzak, eta ikaskuntza horiek baliatzen ditu atzerri-hizkuntzaren bidez ikaskuntza berriak eraikitzeko.

- Bitarteko teknologikoak erabili hirueletasunaren garapenaren zerbitzura.
- Praktika onei buruz hausnartu.
- Hirugarren hizkuntzan irakurtzea eta idaztea sustatu curriculum-arloen bidez.
- Ikasleen ahoskera ona lortzen lagundu norberaren ereduaren bidez.
- Hezkuntza-etaparen oinarri pedagogiko integralak aplikatu atzerri-hizkuntzaren bidez.
- Unitate didaktikoak diseinatu Lehen Hezkuntzako hizkuntzen ikaskuntza-prozesuak kontuan hartuz.
- Ikastaldea kudeatu diskurtsoa talde bakoitzera egokituz: kontsignak eman…
- Ikaskuntza-prozesuak ezagutu, ikasleen banakako desberdintasunak eta isilik egoteko eskubidea errespetatuz.
- Eskola-testuinguruko espazioak atzerri-hizkuntzaren bidez erabili.
- Literatura atzerri-hizkuntzaren garapenaren zerbitzura erabiltzen jakin.
- Atzerri-hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan, teknologia modu adierazgarrian sartzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Atzerri-hizkuntzako irakasle gisa, curriculum-edukiekin zerikusia duten hizkuntza-gaitasunak ezagutu behar ditu, etorkizunean atzerri-hizkuntza jakintza-arloen bidez lantzeko praktika hau oso zabaldua egotea espero baita. Ongi trebatu behar da, halaber, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua arrakastaz zuzentzen lagunduko dioten esku-hartze estrategiak erabiltzen.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

Ingeleseko B2 maila

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

Metodologia: kasu jakin batzuen azterketa.

**Heziketa-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Ebaluazioa (autoebaluazioa eta koebaluazioa).
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Kasuak aztertzeko saioak, adituen hitzaldiak, bisitak, mintegiak…

Jarduera ez presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.
- ✓ Kasuaren azterketa; teorien azterketak, irakurketak, kasuari konponbidea emateko informazioa bilatzea.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Norberaren ikaskuntza-prozesua gidatzeko curriculumaren diseinua: norberaren curriculumaren garapena eta ikaskuntza-prozesua.
- ✓ Autoebaluazio eta koebaluazioa.

**Edukien laburpena**

- Curriculum-edukiak, curriculum-diseinua.
- Jardunbide egokiak.
- Sistema fonologikoa.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Euskaldunak munduan zehar | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
- Gaitasun orokorrak:

  - Talde-lanean aritzea.
  - Egin beharreko lanak direla eta, hartutako konpromisoak bete: datak, formatuak, lanaren kalitatea.
  - Ekintzailetza eta berrikuntza.

**- Gaitasun espezifikoak:**
  - Banakako zein taldekako hausnarketarako gaitasuna.
  - Banakoaren eta taldearen garapenerako diziplina anitzeko estrategiak sortzeko gaitasuna.
  - Iritziak partekatzeko gaitasuna.
  - Desberdina denarekin koexistitzen ikasteko gaitasuna.
  - Aztertzeko eta ikertzeko gaitasuna.
  - Teknologia berriak erabiltzeko gaitasuna.

- Ezagupenak:
  - Euskaldunen historia ezagutu.
  - Euskal gizartearen egungo egoera ezagutu.
  - Euskaldun izateko beste aukera batzuk ezagutu.
  - Euskal diaspora ezagutu: historia eta egungo egoera.

- Trebetasunak:
  - Informazioa lortzeko koordinazioa eta komunikazioa, komunikazio-iturri desberdinak erabiliz (telefonoa, skype, e-mailak, blogak etab.).
  - Informazio espezifikoa berreskuratzea informazio-iturri desberdinak erabiliz (telefonoa, skype, e-mailak, blogak, liburuak etab.).
  - Nazioarteko beste komunitate batzuekiko elkarreragina.
  - Hainbat hizkuntza erabiltzea nazioarteko komunikaziorako, eta hizkuntza horietan adierazten jakin (edukia eta erregistroa).
  - Tokian tokiko eta nazioarteko komunitatearekin partekatzeko materiala sortu (blogak, Youtube, etab.).
  - Teknologia berrien erabilera.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai honek migrazio-joerak, gizarte-aldaketak eta beste nortasun batzuekiko bizikidetza asimilatzeko ezagutza, garapena eta estrategien erabilpena eskaintzen du.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
- ✓ Ikerketa.
- ✓ Komunitateak erabiltzeko materiala eta tresnak sortzea (blogak, bideoak, hitzaldiak etab.).
- ✓ Euskal diasporarekin zerikusia duten pertsonekiko harreman zuzena.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Mintegiak.

- ✓ Taldekako tailerrak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

Banakako zein taldekako ikerketa-prozesua eta lortzen diren emaitzen edo ateratzen diren ondorioen azalpena honako honen arabera neurtuko dira: errespetua, sormena, egokitzapena eta erantzukizunaren zentzua.

**Edukien laburpena**

- *Diaspora*ren definizioa.
- Euskaltasunari buruzko hausnarketa.
- Euskal diaspora munduko hainbat komunitatetan.
- Euskal diaspora eta teknologia berriak.
- Euskal diaspora eta Euskal Herria.
- Euskaldunak historian zehar (emigrazio-faktoreak, etab.).
- Euskal Herria: tradizioa vs modernotasuna (identitatean, espazioan… izandako aldaketa).

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Haur eta gazteentzako liburuaren animazioa | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

**- Gaitasun orokorrak:**

- Komunikazio eraginkorra lortzea.
- Talde-lanean aritzea.

**- Gaitasun espezifikoak:**

- Ezagupenak:
  - Irakurketan eragina duten arrazoiei buruzko egungo ikerketak ezagutu.
  - Irakurketa-animaziorako estrategia nagusiak ezagutu: ipuin-kontalariak eta liburuen aurkezpena.
  - Hizkuntzaren funtzio sinbolikoa eta poetikoa garatu.
  - Ipuin-kontalari baten kontatzeko moduak ezagutu: objektu oroiterazleak, euskarri bisualak, zentzumen-errituak… erabiltzen jakin.
  - Liburuarekin afektibitate-harremanak sortzeko estrategia nagusiak ezagutu.
  - Liburuaren txokoa antolatzeko moduak ezagutu.
  - Liburua animatzeko oinarrizko emozioak ezagutu.
  - Liburuak egiteko teknikak ezagutu.
  - Hitzezko zein gorputz bidezko komunikaziorako prozesuak eta estrategiak ezagutu.

- Trebetasunak:
  - Liburuetan dagoen "ahotsa" interpretatu, gelan modu literarioan komunikatzen jakiteko.
  - Gelan, ikasleen mailari egokitutako animazio-proposamenak egin.
  - Irakurketa-animazio desberdinen azpian dagoen teoria identifikatu.
  - Ikasleen aniztasunari erantzungo dioten proposamen askotarikoak egin.
  - Ahozko hizkuntzarekin lotzen diren faktoreak garatu: entzutea eta isiltasuna, norberaren baitan biltzea, afektibitate-harremana, sormena…
  - Hizkuntza berbala eta ez berbalaren erabilera egokia ezagutu eta baloratu.
  - Ikus-entzunezko grabazioak egin ikasgelan erabiltzeko.
  - Haurrentzako liburuak egin, hitzarekin eta liburuarekin afektibitate-loturak sortzeko.
  - Liburuaren eta ipuinaren inguruan egoera fantastikoak sortzen jakin.
  - Irakurketaz eta liburuez gozatzen ikasi.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasleekin modu afektiboan komunikatzeko eta interakzionatzeko trebetasunak ikaskuntzarekin lotura afektiboak sortzeko aukera ematen du, gatz eta piperra eransten dio jakintzari, eta ateak irekitzen dizkio umoreari: horiek denak ongarri ezinbestekoa dira geroagoko ikaskuntzetarako. Irudimena eta sormena lantzen du, halaber.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Tailerrak, proiektuak.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Interakzio-egoeren behaketa eta azterketa: heldua eta haurra.
- ✓ Gela-egoeren behaketa eta azterketa:
- ✓ Tailerrak.
- ✓ Ahozko komunikaziorako tailer espezifikoa II.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Praktika onen azterketak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Lan praktikoak.
- ✓ Proiektuak.
- ✓ Jardueretan izandako parte-hartzea.
- ✓ Entzuketa eta erantzukizuna.

**Edukien laburpena**

- Irakurketarako estrategiak.
- Hitzezko zein gorputz bidezko komunikazioa.
- Ahotsa, keinua eta begirada.
- Haur-literatura.
- Adimen emozionala: enpatia.
- Ipuin-kontalariak: ipuina eta poesia.
- Inprobisaziorako baliabideak, erritu-ohiturak, hizkuntza sinbolikoa.
- Ikasgelako liburutegia.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Gizarte-aldaketa eta informazioaren aroa | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

**- Gaitasun orokorrak:**

- Talde-lanean aritzea.

**- Gaitasun espezifikoak:**

- Ezagupenak:
  - Gizartearen interpretazio historiko, soziologiko, ekonomiko eta kulturalerako gaitasuna.
  - Hedabideen jarduerak gizartean eragiten dituen ondorioez jabetzeko gaitasuna.

- Trebetasunak:
  - Informazio-iturri historikoak bilatzeko, aztertzeko eta interpretatzeko gai izan, eta, gero, emaitzak aurkeztu komunikazio-euskarri desberdinak erabiliz.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Aldaketa-aroa bizi dugu, eta, gizarte-zientzialari askoren iritziz, aro-aldaketa. Ikasgai honek ezagutzak eta tresnak eskaintzen ditu bai gizarteak historian zehar izan dituen aldaketak bai egungo gizarteak izango dituen aldaketa-prozesu funtsezkoetako batzuk aztertzeko, interpretatzeko eta zalantzan jartzeko. Ezagutza eta tresna horiek beharrezkoak dira bai hezitzailea prestatzeko bai material didaktikoen editore-lanak bete ahal izateko.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Egungo gizarte-aldaketei buruzko testu idatzien eta ikus-entzunezko materialaren irakurketa kritikoan eta ulermenezko irakurketan oinarritzen da batez ere, eta aldaketa horiek ulertzea, interpretatzea, datuak egiaztatzea, ezagutzak osatzea eta gertatuaz hausnartzea da helburua.
- ✓ Banakako zein taldekako lanean oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Testuen irakurketa-mintegiak eta ikus-entzunezko materiala.
- ✓ Baimena.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**
Etengabeko ebaluazioa eta prozesu-ebaluazioa:

- ✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea;
- ✓ Mintegi eta tailerretan ikasleek izandako parte-hartzea;
- ✓ Ezagupenen ebaluazioa azken proba baten bidez.

**Edukien laburpena**

- <u>Gizarte tradizionaletik gizarte modernora</u>
  - Gizateriaren garapen ebolutiboaren etapa nagusietarako sarrera laburra.
  - Modernizazio-prozesuaren ezaugarri nagusiak.
  - Mendebaldearen logika ebolutiboa: esparru teoriko intelektual jakin batzuetarako sarrera.

- <u>Gizarte modernotik ezagutzaren gizartera</u>
  - Aldaketa-aroa eta aro-aldaketa: informazioaren aro berriari buruzko ikuspegi panoramikoa.
  - Aldaketa-prozesuak egungo gizartean.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Kristautasuna egungo munduan | **Kreditoak**<br>6 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
**- Gaitasun orokorrak:**
- Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.
- Ikasten ikastea.

- Gaitasun espezifikoak:

- Ezagupenak:
  - Kristautasunaren ardatzak ezagutu.
  - Kristau tradizioak europar kulturari egindako ekarpenak ezagutu.
  - Kristautasunaren testu sakratuei buruzko oinarrizko ezagupenak eskuratu.
  - Egungo joera teologiko batzuk ezagutu.

- Trebetasunak:
  - Bibliako testuak aztertu eta interpretatu.
  - Kristau tradizioa artearen, zientziaren edota kulturaren egungo adierazpen batzuekin lotu ahal izateko irizpideak izan.
  - Eliza Katolikoak egungo munduari egindako ekarpen kulturalak eta sozialak baloratzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai honek europar kulturaren erro kristauei buruz eta kristautasunaren ardatzei buruz informatzen du ikaslea, eta, gainera, tresna batzuk ematen dizkio Bibliaren interpretaziora eta Bibliak egungo kulturari egindako ekarpenetara hurbiltzeko.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
Ikaslea ardatz duen metodologia, zeinean banakako eta taldekako lana, testuen azterketa eta interpretazioa, eta tradizio biblikoaren argitan egindako egungo gertaerei buruzko gogoeta konbinatuko baitira.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tutoretza.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Banakako ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**
Etengabeko ebaluazioa:
- ✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea.
- ✓ Ahozko azalpenak.
- ✓ Mintegietan eta taldekako lanetan parte hartzea.

Ezagupenen ebaluazioa idatzizko azken proba baten bidez.

**Edukien laburpena**
- Erlijioaren egitatea. Fedea eta sinesmena: ondorio pertsonalak, sozialak eta kulturalak. Erlijioaren irakaskuntza.
- Kristau fedea. Fedea eta mundua gaur egun. Fedea eta zientzia.
- Eliza katolikoa eta mundua gaur egun. Bibliaren egungo irakurketak. Pentsamendu teologikoaren garapena. Kristau fedearen transmisioa.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Ikus-entzunezko bitartekoak gelan | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
**- Gaitasun orokorrak:**
- o Ikasten ikastea.
- o Komunikazio eraginkorra lortzea.

**- Gaitasun espezifikoak:**

- Ezagupenak:
  - o Hedabideen jarduerak gizartean dituen ondorioak ezagutu eta oinarrizko printzipio deontologikoen arabera aritu.
- Trebetasunak:
  - o Errealitate historiko, soziologiko, ekonomiko eta kulturala interpretatu.
  - o Ikus-entzunezkoen esparrua eta esparru komunikatiboa ikertu, eskuratutako ezagupenen arabera.
  - o Ikus-entzunezko hezkuntza-edukietan oinarritutako metodologia ezarri.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Egun, giza esperientzia ikus-entzunezkoen kulturak kudeatutako eta zuzendutako ingurune batean garatzen da. Horrek ondorio handiak ditu, izaera psikologiko, soziologiko eta are antropologikokoak ere. Masa-hedabideen ahalmen izugarriak gizabanakoen eta taldeen ezaugarri kognitiboak, emozionalak, portaerazkoak eta identitatezkoak ukitzen ditu. Belaunaldi berriak pantailak baldintzatutako belaunaldiak dira.
Ikasgai honek ezagutzak eta tresnak eskaintzen ditu ikus-entzunezkoen testuingurua aztertu, interpretatu eta zalantzan jartzeko. Gure azken helburua da hezitzaileak ikasgelan ikus-entzunezko bitartekoak hautatzeko eta ezartzeko beharrezko gaitasunak eskuratzea. Era horretan hezitzaileak ikus-entzunezko hezkuntza-materialen kudeatzaile lanak bete ahal izango ditu.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
- ✓ Lehen ikaskuntza-prozesuan, azterketa kasu jakin batzuetan oinarrituko da, eta kasu horien bitartez ikasleak ikus-entzunezko edukiak aztertzeko eta haiei buruzko hausnartzeko ezagutzak eskuratuko ditu.
- ✓ Ondoren, bigarren prozesuan, kasuetan oinarritutako metodologian funtsatua berriz ere, ikasleak ikus-entzunezko bitartekoak ezarri diren ikastetxeetako esperientzia errealak aztertuko ditu.

| |
|---|
| ✓ Hirugarren prozesuan, proiektuetan oinarritutako metodologia aplikatu eta programa metodologiko bat diseinatuko da, eskuratutako ezagupenen araberakoa, eta ikus-entzunezko hezkuntza-edukietan oinarritua. |
| **Heziketa-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Eskola magistralak edo teorikoak.<br>✓ Eskola praktikoak.<br>✓ Tailerrak.<br>✓ Tutoretzak.<br><br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa.<br>✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**<br>✓ Etengabeko ebaluazioan egindako banakako eta taldekako lanen aurkezpena.<br>✓ Mintegietan ikasleek izandako parte-hartzea.<br>✓ Ezagupenen ebaluazioa azken proba baten bidez. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ ALDEZ AURREKO EZAGUTZAK:<br>-Hedabideen inguruko gizarte-ingurunearen azterketa.<br>-Hedabideen edukiaren azterketa.<br>-Proposatutako azterketari buruzko hausnarketa eta hezkuntza-edukien hautaketarako behar diren osagaien identifikazioa.<br><br>▪ EZAGUTZAK EZARTZEA:<br>-Ikus-entzunezko bitartekoak ezarri diren ikasgelei buruzko esperientzia errealen azterketa.<br>-Ikus-entzunezko hezkuntza-edukietan oinarritutako metodologia ezarri. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Soziolinguistika | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Irakaslearen nahierara. | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>**- Gaitasun orokorrak:**<br>o Ikasten ikastea.<br>o Talde-lanean aritzea.<br><br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Soziolinguistika zer den, zein giltzarri eskaintzen dituen eta zer mugak dituen ezagutu.<br>o Hizkuntzen egoera, oro har, eta euskararen egoera, bereziki, ulertzeko kontzeptu eta teoria nagusiak ezagutu.<br>o Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutu.<br>o Hizkuntzen erabilera bultzatzeko metodologiak ezagutu.<br>o Euskararen normalizaziorako proiektuak ezagutu.<br><br>- Trebetasunak:<br>o Soziolinguistikako kontzeptuak modu kritikoan deskribatu, aztertu eta interpretatu.<br>o Taldean, norberaren eta inguruko hizkuntza-testuingurua deskribatu eta era | |

kritikoan aztertu, interpretatu eta eztabaidatu, horretarako eskuratutako giltzak erabiliz.
- Norberaren hizkuntza-ibilbidea hausnartu, aztertu eta aurkeztu.
- Hizkuntza-normalizaziorako proiektuak ahoz zein idatziz aztertu eta aurkeztu.
- Eskatutako lanak eta aurkezpenak egiteko egokiak diren tresna teknologikoak erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai honek hizkuntzen estatus sozialari buruzko ezagutzak eta hausnarketarako gaitasuna eskaintzen du, bai ikuspegi pertsonaletik bai hizkuntza-komunitatearen ikuspegitik. Halaber, egoera soziolinguistikoa ikuspegi ekologiko batetik ulertzeko giltzak eskaintzen ditu.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
- ✓ Ikaslea ardatz duen metodologia: tailerrak, mintegiak, lan-taldeak, tutoretzak.
- ✓ Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Talde-tailerrak, talde-aurkezpenak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa, lan autonomoa eta koaderno pertsonala.
- ✓ Taldekako lan autonomoa.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Hizkuntza-autobiografia.
- ✓ Esku-hartze aktiboa mintegietan.
- ✓ Ahozko talde-aurkezpena.
- ✓ Koaderno pertsonala, egindako ikaskuntzak eta lanak gordetzeko, eta haietaz hausnartzeko.

**Edukien laburpena**
- Soziolinguistikaren ekarpenak: kontzeptuak; hizkuntza-aurreiritziak; elebitasun-motak; hizkuntzen funtzioak; diglosia; hizkuntza-normalizazioa…
- Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa.
- Hizkuntzaren normalizaziorako proiektuak: Ezagutza soziolinguistikoaren garapena; Hizkuntza-eskubideak; Datu-azterketa; Hizkuntza-normalizazioa nazioari dagokionez; Hizkuntza-normalizazioa tokian tokiari dagokionez; Hizkuntza-normalizazioa eta hezkuntza; Hizkuntza-normalizazioa eta lana; Hizkuntza-normalizazioa eta astialdia.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Giza garapena ikus-entzunezkoaren gizartean | **ECTS kredituak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
**- Gaitasun orokorrak:**
- Talde-lanean aritzea.

**- Gaitasun espezifikoak:**
- o Gizartearen interpretazio historiko, soziologiko, ekonomiko eta kulturalerako gaitasuna.
- o Hedabideen jarduerak gizartean dituen ondorioez jabetzeko eta oinarrizko printzipio deontologikoen arabera jokatzeko gaitasuna.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Egun, giza esperientzia ikus-entzunezkoen kulturak kudeatutako eta zuzendutako ingurune batean garatzen da. Horrek ondorio handiak ditu, izaera psikologiko, soziologiko eta are antropologikokoak ere. Masa-hedabideen ahalmen izugarriak gizabanakoen eta taldeen ezaugarri kognitiboak, emozionalak, portaerazkoak eta identitatezkoak ukitzen ditu. Belaunaldi berriak pantailak baldintzatutako belaunaldiak dira.

Ikasgai honek ezagutzak eta tresnak eskaintzen ditu hausnartzeko gizarte mediatikoak dituen ondorioez, bai, oro har, giza garapenean dituenez, bai, bereziki, errealitate sozialaren banakotasunean, identitateetan eta errepresentazioetan.

Ezagutza eta tresna horiek beharrezkoak dira bai hezitzailea prestatzeko bai material didaktikoen editore-lanak betetzeko.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
- ✓ Ikus-entzunezko idazki eta materialen irakurketa kritikoan eta ulermenezko irakurketan oinarritzen da bereziki, eta giza garapenak ikus-entzunezko mundu eta kultura batean dituen ezaugarriak ulertzea eta haietaz hausnartzea du helburu.
- ✓ Edukietako batzuk kasu erratetan oinarrituta prestatzen dira.
- ✓ Banakako zein taldekako lanean oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Testuen irakurketa-mintegiak eta ikus-entzunezko materiala.
- ✓ Baimena.
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**

Etengabeko ebaluazioa eta prozesu-ebaluazioa:
- ✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea;
- ✓ Mintegi eta tailerretan ikasleek izandako parte-hartzea;
- ✓ Ezagupenen ebaluazioa azken proba baten bidez.

**Edukien laburpena**
- ▪ GIZARTE MEDIATIKO BERRIAREN ETA EZAGUTZAREN GIZARTEAREN EZAUGARRIAK.
- ▪ GIZA GARAPENA ETA IKUS-ENTZUNEZKO GIZARTEA
  - Banakotasunaren garapena ikus-entzunezko kultura batean.
  - Ikus-entzunezko bitartekoak sentiberatasun-, emozio- eta identitate-sortzaile gisa.
  - Bortizkeria sinbolikoa eta haren ondorioak.
  - Ikus-entzunezko bitartekoak estereotipo- eta aurreiritzi-sortzaile gisa.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Astialdirako hezkuntza | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**

Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

**- Gaitasun orokorrak:**
- o Talde-lanean aritzea.
- o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.

- Erabaki-hartzea.

**- Gaitasun espezifikoak:**

- Ezagupenak:
  - Ikaslearen garapen integralean alderdi ludikoak eta festak duten garrantzia ezagutu.
  - Haurren garapenean, aire zabalean egindako jardueren balioa ezagutu.
  - Astialdiko jardueren antolakuntzarako teknikak eta baliabideak ezagutu.

- Trebetasunak:
  - Jolas-garapenaren eta festa-garapenaren aldeko jarduerak sustatzen jakin.
  - Autonomiaren, askatasunaren eta autokudeaketaren garapena bultzatzen jakin.
  - Eskolatik kanpo jarduerak kudeatzen jakin.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
Ikasgai honek astialdi-hezkuntzaren ekarpenak kontuan hartzen dituen hezkuntza-ikuspegia eskaintzen du, bai eta eskolatik kanpo ikasleekin eta familiekin jarduerak antolatzen eta kudeatzen ikasteko baliabideak ere.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
- ✓ Ikaslea ardatz duen metodologia: tailerrak, praktikak, tutoretzak.
- ✓ Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Taldekako tailer-mintegiak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Jardueren plangintza.
- ✓ Ahozko azalpenak.
- ✓ Azken proba.

**Edukien laburpena**
- Astialdiaren garrantzia eta funtzioa.
- Jolasaren, festaren, naturarekiko harremanaren garrantzia.
- Festak, txangoak, udalekuak, jaialdiak eta abar antolatzeko baliabideak eta proposamenak.
- Astialdiaren kudeaketarako teknikak.
- Ikaslearen eta haren familia-ingurunearen ezagutza astialdiko jardueren bitartez.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Frantsesa | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
- Gaitasun orokorrak:
  - Ikasten ikastea.

- Gaitasun espezifikoak:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera oinarrizko erabiltzaile-mailari dagokion frantses gaitasuna.

- Ezagupenak:

- Eguneroko komunikazio-egoeretan parte hartu ahal izateko oinarrizkoak diren hitzak eta hizkuntza-egiturak ezagutu.
- Komunikazio zailtasunak gainditzeko estrategia konpentsatzaileak ezagutu.
- Informazio pertsonala, familiarra, tokikoa trukatzeko oinarrizko esaldiak ezagutu.
- Frantsesaren ikaskuntzarako baliabide teknologikoak ezagutu.

- Trebetasunak:

- Eguneroko premiak asetzeko erabiltzen diren esapide arruntak eta oinarrizko esaldiak ulertu eta erabili.
- Elkarrizketa batean parte hartzeko gai izan, oinarrizko informazioa, pertsonala, familiarra, tokikoa trukatuz.
- Gai ezagunei buruzko testu errazak ulertu.
- Hiru hizkuntzetako edozeinetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) garatutako estrategia konpentsatzaileak identifikatu eta praktikan jarri, frantsesez komunikatzeko zailtasunak gainditzeko.
- Frantsesezko komunikazio-gaitasuna ikasteko eta hobetzeko baliabide teknologikoak erabili.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**

Ikasgai honek frantsesezko oinarrizko komunikazio-trebetasunak eskaintzen ditu.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Ikaslea ardatz duen metodologia: tailerrak, praktikak, tutoretzak.
- ✓ Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Taldekako tailer-mintegiak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa, lan autonomoa eta portafolioa.
- ✓ Taldekako lan autonomoa.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**

- ✓ Portafolioa erabili zenbait hizkuntzaren (euskara, gaztelania eta ingelesa) ikaskuntza-prozesua aztertzeko eta haien erabileraz hausnartzeko, frantsesaren ikaskuntza egituratzeko helburuarekin.
- ✓ Idatziaren ulermen-proba, testu errazten irakurketa ebaluatzeko.
- ✓ Ahozko proba bikoteka, ikasleek elkarrizketa erraz batean nolako parte-hartzea duten eta nolako estrategia konpentsatzaileak erabiltzen dituzten ebaluatzeko.

**Edukien laburpena**

- Frantsesaren araudia eta erabilera.
- Portafolioaren erabilera.
- Hizkuntza baten irakaskuntza-ikaskuntza prozesua egituratzeko estrategia konpentsatzaileak.
- Ezagutzen eta erabiltzen diren hizkuntzen bidez garatutako estrategiak.
- Frantsesa ikasteko ONLINE tresnak: hiztegiak, testu-zuzentzaileak, bestelakoak.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Euskal kultura: eraikuntza eta transmisioa | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**
Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**
**- Gaitasun orokorrak:**
- o Talde-lanean aritzea.
- o Ikasten ikastea.

**- Gaitasun espezifikoak:**
- o Gizartearen interpretazio historiko, soziologiko, ekonomiko eta kulturalerako gaitasuna.
- o Hedabideen jarduerak gizartean eragiten dituen ondorioez jabetzeko gaitasuna.

**Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**
XXI. mendearen eta haren helburu orokorren testuinguruan, kultura eta identitate gutxituek zalantzaz eta aukera berriez beteriko denbora historiko bati egin behar diote aurre. Giza bioaniztasuna jokoan dago. Komunikazio-prozesuen eta identitate kolektibo eta kulturalen artean dagoen lotura estua dela eta, behar-beharrezkoa da komunikazioaren euskal profesional berriek prestakuntza berezia izatea bai euskal kulturaren ezaugarriei buruz bai euskal kulturak bizirik irauteko dituen beharrei buruz.

Kultur eta identitate-aniztasunerako komunikazioa komunikazioa egiteko modu berezia da, zeinean banakoak eta komunitate gutxituak komunikazio-prozesuaz eta haren oinarrizko bi osagaiez jabetzen baitira: mezua (edukia) eta bitartekoa (prozesua). Komunikazio-mota horrek, konpromisotik abiatuta, komunikazioa lortu nahi du bai, oro har, kultur aniztasunarekin, bai, bereziki, euskal kulturaren garapenarekin.

Ezagutza eta tresna horiek beharrezkoak dira hezitzailearen prestakuntza kritikorako, bai eta atari kudeatzailearen lana, edukien editore-lana, komunikazio instituzionalaren arduradun-lana eta informazio-erredaktoreren lana betetzeko.

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**
- ✓ Euskal kulturaren egungo egoerari buruzko testuen irakurketa kritikoan eta ulermenezko irakurketan oinarritzen da bereziki.
- ✓ Aldi berean, ikus-entzunezko materialaren ikuskaldian oinarritzen da, han hartzen baitute gorputza azken garaiotako euskal kulturaren zenbait protagonistaren iritzi eta ibilbide profesionalak.
- ✓ Banakako zein taldekako lanean oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**
Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak;
- ✓ Testuen irakurketa-mintegiak eta ikus-entzunezko materiala;
- ✓ Tutoretza;
- ✓ Banakako eta taldekako lana.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa;
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**
Etengabeko ebaluazioa eta prozesu-ebaluazioa:
- ✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea;

| |
|---|
| ✓ Mintegi eta tailerretan ikasleek izandako parte-hartzea;<br>✓ Ezagupenen ebaluazioa azken proba baten bidez. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Kultura eta identitateari buruzko teoriak.<br>▪ Kultura eta globalizazioa.<br>▪ Hizkuntza-komunitateen dinamikak.<br>▪ Euskal kultura globalitatearen garaian. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Idazketa sortzailerako tailerra | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Irakaslearen nahierara. | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>**- Gaitasun orokorrak:**<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Testu idatziak sortzeko estrategiak ezagutu, teoria eta praktikaren, inspirazio eta teknikaren arteko elkartzeren bitartez.<br>o Literatur hizkuntza eta teknika menderatu.<br>- Trebetasunak:<br>o Idazketa plazer bihurtu istorioen kontaketaren bitartez.<br>o Plazer hori garatzeko trebetasuna eskuratu, etengabeko ahalegin eta gogoeta-prozesu gisa.<br>o Teknikaren hasi-mahasiak erabiltzen jakin, egoera bakoitzerako egokiak diren argudioak, generoaren, narratzailearen, hartzailearen ezaugarriak kontuan harturik. | |
| **Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**<br>Ikasgai honek idazteko gozamena garatzeko aukera eskaintzen du, bai eta norberaren sormenean esploratzeko aukera ere. Halaber, teknika ezagutzea eskatzen du, bai eta | |

etengabeko hausnarketa, norberaren testu-ekoizpenaren azterketa arretatsua, eta idazten duten beste batzuekiko alderaketa ere.

**Aldez aurretiko eskakizunak (beharrezkoak izanez gero)**

**Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**

- ✓ Ikaslea ardatz duen metodologia: tailerrak, praktikak, tutoretzak.
- ✓ Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.

**Heziketa-jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):
- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Taldekako tailer-mintegiak.
- ✓ Tutoretzak.

Jarduera ez-presentzialak (%60):
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa, taldeka.

**Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema**
- ✓ Lanak egin, tailerrean ikasitako teknikak eta jarrerak erabiliz.
- ✓ Idazketa-koaderno pertsonala egin.
- ✓ Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan beti: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizunaren zentzua.

**Edukien laburpena**
- ▪ Ideiak hartzeko eta metatzeko mekanismoak.
    - Narratzailearen ikuspuntuak.
    - Literatur sintaxirako sarrera.
    - Estilo-ariketak.
    - Arrazoi literarioak.
    - Prosaren erritmoa.
    - Adjetibazioa.
    - Egiantzekotasun-teknikak.
    - Tonua eta giroa.
    - Elkarrizketa.
    - Literatur pertsonaiaren eraikuntza.

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Garapenerako lankidetza | **Kreditoak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|

**Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**

Irakaslearen nahierara.

**Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**

**- Gaitasun orokorrak:**
- o Talde-lanean aritzea.
- o Arazoak konpontzera bideratutako pentsamendua lantzea.
- o Erabaki-hartzea.

- Gaitasun espezifikoak:
  - Ezagupenak:
  - o Ipar-Hego harreman bilakaera historikoa ezagutu.
  - o Garapenerako lankidetza-politiken bilakaera historikoa ezagutu.
  - o Herri-hezkuntzaren oinarriak ezagutu.
  - o Garapenerako hezkuntzaren oinarriak ezagutu.

| |
|---|
| - Trebetasunak:<br>o Ipar-Hego harremanak interpretatzen jakin.<br>o Errealitate kultural eta geografiko desberdinetan moldatzen jakin.<br>o Garapenerako hezkuntzaren proposamenak inplementatzeko jarduerak antolatzen jakin. |
| **Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**<br>Ikasgai honek bi gauza eskaintzen dizkio ikasleari: batetik, praktikak beste testuinguru sozial eta kultural batean egiteko behar duen prestakuntza; bestetik, garapenerako hezkuntzaren balioak hezkuntza formaleko zein ez-formaleko testuinguruetan lantzeko behar dituen baliabideak. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**<br>Klase teorikoak ez ezik eztabaidak, banakako eta taldekako hausnarketak, eta garapenerako lankidetza alorreko eta, bereziki, garapenerako hezkuntza alorreko pertsonek egindako hitzaldiak eta zuzendutako tailerrak ere izango dira. |
| **Heziketa-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Eskola teorikoak.<br>✓ Eztabaidak.<br>✓ Hitzaldiak.<br>✓ Tailerrak.<br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Banakako lan autonomoa.<br>✓ Taldekako lan autonomoa. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**<br>✓ Etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa:<br>o Ikasgelan landutako gaiei buruzko hausnarketak.<br>o Ikasleek eztabaidetan, tailerretan eta taldekako jardueretan izandako parte hartzea.<br>o Azterketa idatzia. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Garapenaren eta garapenerako lankidetzaren teoriaren bilakaera.<br>▪ Boluntariotza.<br>▪ Elkarrekin bizi eta bestelakotasuna kudeatu.<br>▪ Herri-hezkuntza.<br>▪ Garapenerako hezkuntza. |

| **Ikasgaiaren izena**<br>HIK Txotxongilo-antzerkia | **ECTS kredituak**<br>3 ECTS<br>HAUTAZKOA |
|---|---|
| **Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan**<br>Irakaslearen nahierara. | |
| **Ikasleak ikasgaiarekin eskuratzen dituen gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak**<br>- Gaitasun orokorrak:<br>o Talde-lanean aritzea.<br>o Komunikazio eraginkorra lortzea.<br>- Gaitasun espezifikoak:<br>- Ezagupenak:<br>o Txotxongiloak egiteko teknikak ezagutu.<br>o Gidoiak sortzeko oinarrizko elementuak ezagutu.<br>o Estenografia-teknikak eta antzezpen-teknikak ezagutu.<br>o Ahotsa erabiltzeko oinarrizko teknikak ezagutu.<br>- Trebetasunak: | |

| |
|---|
| o Teknika desberdinak baliatuz txotxongiloak egiten jakin.<br>o Haurrentzat egokitutako gidoiak egiten jakin.<br>o Agertokiak diseinatzen eta muntatzen jakin.<br>Txotxongilo ikuskizunak antzezten jakin. |
| **Ikasgaiaren ekarpena lanbide-profilari**<br>Ikasgai honek bi gauza eskaintzen dizkio ikasleari: batetik, txotxongiloak egiteko teknikak; eta, bestetik, haurrei zuzendutako helburu ludiko edo didaktikoko txotxongilo-ikuskizunak antolatzeko baliabideak. |
| **Irakaskuntza-ikaskuntzaren metodologia, eta metodologia horren eta ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko lotura.**<br>Ikaslea ardatz duen metodologia, zeinean banakako lana, taldekako lana, eskulanen tailerrak, adierazpen-tailerrak, gidoigintza eta antzerki-ikuskizunak muntatzeko lana konbinatuko baitira. |
| **Heziketa-jarduerak**<br>Jarduera presentzialak (%40):<br>✓ Eskulanen tailerrak.<br>✓ Gidoiak egiteko eta agertokiak eraikitzeko tailerrak.<br>✓ Ahots-tailerrak.<br>Jarduera ez-presentzialak (%60):<br>✓ Banakako lan autonomoa.<br>Taldekako lan autonomoa. |
| **Gaitasunak eskuratzeko prozesuaren ebaluazio-sistema.**<br>Etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa:<br>✓ Txotxongiloak egin.<br>✓ Gidoiak idatzi eta agertokiak diseinatu.<br>✓ Txotxongilo-ikuskizunak muntatu.<br>✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea.<br>✓ Mintegietan eta taldekako jardueretan ikasleek izandako parte-hartzea. |
| **Edukien laburpena**<br>▪ Txotxongiloak egiteko teknikak.<br>▪ Ahots-teknikak eta kantu-teknikak.<br>▪ Gidoiak idazteko eta ikuskizunak muntatzeko baliabideak.<br>▪ Eszenografia-baliabideak. |

# 6. PERTSONAL AKADEMIKOA

## 6.1. PROPOSATUTAKO IKASKETA-PLANGINTZA AURRERA ERAMATEKO BEHAR DIREN LANGILEAK ETA BESTE GIZA BALIABIDE BATZUK

Gure Unibertsitatea eta, beraz, gure Fakultatea gaztea da, baina azpimarratu beharra dago 1976tik 1996ra eman ditugula Diplomaturako unibertsitate-ikasketak, eta 1997an hasi ginela lizentzia-ikasketak eskaintzen.

Bertako irakasleriaren irakas-esperientzia aipatu koadroan islatua dago eta bosna urteko alditan bildu da. Ikerketa-esperientzia, berriz, 1977an hasi zen, eta ondoko koadroan ikus daiteke. Koadroan Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentziaren (Uniqual) onespena duten irakasleen erreferentzia ere egiten da.

### a) Erabilgarri dauden irakasleak, Titulazioari atxikiak:

**6.1. Taula. Erabilgarri dauden irakasleak, Titulazioari atxikiak.**

| | G | E | GUZTIRA | % | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| Irakasle Doktoreak–Uniqualen egiaztagiria duten bazkideak | 1 | 7 | 8 | 15,69 | |
| Irakasle Doktoreak–Uniqualen egiaztagiririk gabe kontratatuak (artean erabaki gabe) | 2 | 2 | 4 | 7,84 | |
| Irakasle Doktoreak–Uniqualen egiaztagiririk gabeko bazkideak (artean erabaki gabe) | 3 | 1 | 4 | 7,84 | |
| Irakasle Doktoreak–Uniqualen egiaztagiririk gabe kontratatuak | 1 | 0 | 1 | 1,96 | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Irakasle-Doktoreak | | | | | 33.33% |
| Prestakuntza hartzen ari diren Irakasle Ikerlariak-Bazkideak | 4 | 11 | 15 | 29,41 | |
| Prestakuntza hartzen ari diren Irakasle Ikerlariak-Kontratatuak | 2 | 4 | 6 | 11,76 | |
| Irakasle lizentziadunak-Bazkideak | 1 | 0 | 1 | 1,96 | |
| Irakasle lizentziadunak guztira | | | | | 43.13% |
| Irakasle/profesional aditu lizentziadunak-Kontratatuak | 7 | 5 | 12 | 23,53 | 23,53% |
| | | | | | |
| Guztira | 21 | 30 | 51 | 100% | 100% |
| % | 41,18 | 58,82 | 100% | | |

*Oharra: irakasle-kopuruak arduraldi osoko irakasleei egiten die erreferentzia.*

Datu horiek honako **ratio** hauek ematen dituzte:

| **Ratioa** | **Emaitza** |
|---|---|
| **ECTS kredituak irakasleko** | 4,7 ECTS irakasleko |
| **ECTS ordu irakasleko** | 117 ordu irakasleko |

Gure ustez ratio horiek egokiak eta nahikoak dira hezkuntza-plangintza aurrera eramateko.

**Pertsonal akademikoaren irakas-esperientzia:**

Hurrengo koadroetan titulazioarekin eta, beraz, Lehen Hezkuntzako alorren inguruko esparruekin harreman zuzena duten irakas-jarduera eta ikerketa-jardueren erreferentzia egiten da.

**6.2. Taula**. Pertsonal akademikoaren irakas-esperientzia.

| | G | E | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|
| 5 urtetik beherako antzinatasuna irakaskuntzan | 8 | 7 | 15 | 29,41 |
| 5-10 urte bitarteko antzinatasuna irakaskuntzan | 2 | 4 | 6 | 11,76 |
| 10-15 urte bitarteko antzinatasuna irakaskuntzan | 2 | 6 | 8 | 15,69 |
| 15-20 urte bitarteko antzinatasuna irakaskuntzan | 5 | 8 | 13 | 25,49 |
| 20 urtetik gorako antzinatasuna irakaskuntzan | 4 | 5 | 9 | 17,65 |
| Guztira | 21 | 30 | 51 | 100% |
| % | 41,18 | 58,82 | 100% | |

**6.3. Taula.** Pertsonal akademikoaren irakas-esperientzia.

| | 0-5 urte | | | 5-10 urte | | | 10-15 urte | | | 15-20años | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | Guzt | G | E | Guzt | G | E | Guzt | G | E | Guzt |
| Irakasle Doktoreak-Bazkideak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | 1 | 4 |

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Uniqualen egiaztagiria dutenak | | | | | | | | | | | | |
| Irakasle Doktoreak-Kontratatuak Uniqualen egiaztagiririk gabe (artean erabaki gabe) | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| Irakasle Doktoreak-Bazkideak Uniqualen egiaztagiririk gabe (artean erabaki gabe) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | 1 | 0 | 1 |
| Irakasle Doktoreak-Kontratatuak Uniqualen egiaztagiririk gabe | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Prestakuntza hartzen ari diren Irakasle Ikerlariak-Bazkideak | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 2 | 2 | 3 | 6 | 9 |
| Prestakuntza hartzen ari diren Irakasle Ikerlariak-Kontratatuak | 0 | 1 | 1 | 2 | 3 | 5 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Irakasle lizentziadunak - Bazkideak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakasle/profesional aditu lizentziadunak-Kontratatuak | 5 | 6 | 11 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 |
| Guztira | 6 | 8 | 14 | 2 | 4 | 6 | 2 | 5 | 7 | 8 | 7 | 15 |
| % | 11,76 | 15,69 | 27,45 | 3,92 | 7,84 | 11,76 | 3,92 | 9,80 | 13,73 | 15,69 | 13,73 | 29,41 |

**b) Beste giza-baliabide erabilgarri batzuk. Fakultateko Administrazio eta Zerbitzuetako langileak**

**6.4. taula.** Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (AZL)

| | G | E | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|
| AZL Lizentziadunak Bazkideak | 0 | 5 | 5 | 12,19 |
| AZL Lizentziadunak Kontratatuak | 1 | 4 | 5 | 12,19 |
| AZL Diplomadunak /Ing. Tek. Bazkideak | 1 | 1 | 2 | 4,87 |
| AZL Diplomadunak /Ing. Tek. Kontratatuak | 0 | 1 | 1 | 2,43 |
| AZL UBI/LHII/GMHZ Bazkideak | 1 | 2 | 3 | 7,31 |
| AZL UBI/LHII/GMHZ Kontratatuak | 1 | 0 | 1 | 2,43 |
| Guztira | 4 | 13 | 17 | 100% |
| % | 23,53 | 76,47 | 100% | |

| | 0-5 urte | | | 5-10 urte | | | 10-15 urte | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | Guzt | G | E | Guzt | G | E | Guzt | G |
| AZL Lizentziadunak Bazkideak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 5 | 5 | 0 |
| AZL Lizentziadunak Kontratatuak | 1 | 2 | 3 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| AZL Diplomadunak /Ing. Tek. Bazkideak | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 |
| AZL Diplomadunak /Ing. Tek. Kontratatuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| AZL UBI/LHII/GMHZ Bazkideak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 |
| AZL UBI/LHII/GMHZ Kontratatuak | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 2 | 3 | 5 | 0 | 1 | 1 | 1 | 6 | 7 | 0 |
| % | 11,76 | 17,64 | | 0 | 5,88 | | 5,88 | 35,29 | | 0 |

**6.5. taula.** AZLen irakas-esperientzia.

Azpimarratu nahi dugu atala honetan garbi ikusten dela langile irakasle eta ikerlariek gradu tituluarekin duten lotura estua. Ondoko koadroan langile horiek dituzten tituluen erreferentzia agertzen da:

**FAKULTATEKO LANGILE IRAKASLE ETA IKERLARIEN DATUAK LABUR ETA TITULUKA:**

**6.6. taula.** Pertsonal akademikoaren titulazioa.

| | G | E | Guzt |
|---|---|---|---|
| Psikologian doktoreak | 3 | 2 | 6 |
| Hezkuntza eta Pedagogian doktoreak | 1 | 1 | 2 |
| Psikodidaktikan doktoreak | 1 | 1 | 2 |
| Filologian doktoreak | 0 | 5 | 5 |
| Zientzia kimikoetan doktoreak | 0 | 1 | 1 |
| Filosofian lizentziadunak | 1 | 0 | 1 |
| Zientzia biologikoetan lizentziadunak | 1 | 0 | 1 |
| Filosofian lizentziadunak | 3 | 5 | 7 |
| Psikologian lizentziadunak | 2 | 2 | 4 |
| Zientzia politikoetan lizentziadunak | 0 | 2 | 2 |
| Geografian lizentziadunak | 0 | 1 | 1 |
| Filosofia eta Letretan lizentziadunak | 3 | 4 | 7 |
| Zuzenbidean lizentziadunak | 0 | 1 | 1 |
| Psikopedagogian lizentziadunak | 0 | 3 | 3 |
| Arte Ederretan lizentziadunak | 0 | 1 | 1 |
| Medikuntza eta Kirurgian lizentziadunak | 2 | 0 | 2 |
| Gorputz Heziketan lizentziadunak | 4 | 1 | 5 |
| Humanitate eta Enpresan lizentziadunak | 0 | 1 | 1 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsonala Guztira Lehen Hezkuntzako Graduan | 21 | 30 | 51 |

**6.2. IRAKASLEEN KONTRATAZIOA GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN IRIZPIDEEN ARABERA ETA EZINTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN BEREIZKERIARIK GABEKO PRINTZIPIOETAN OINARRITUTA EGITEN DELA ZIURTATZEKO ERABILTZEN DITUGUN MEKANISMOAK**

Hona hemen Fakultatearen araudiaren lege oinarriak gizonen eta emakumeen berdintasunari eta ezintasunen bat duten pertsonen bereizkeriarik ezari dagokionez:

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, gizon eta emakumeen arteko berdintasun-esparrua xedatzen duena.
- 51/2003 Legea, irailaren 2koa, ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuna, bereizkeriarik eza, eta sarbide unibertsala arautzen dituena.
- 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, ezintasunen bat duten pertsonen enplegu publikorako sarbidea eta lanpostu-hornikuntza arautzen dituena.

Gainera, Unibertsitateak, Mondragon Taldearen barruan egonik, bere egiten du Taldean formulatutako Atxikimendu Librearen Printzipioa, honela dioena:

*Mondragon Kooperatiba esperientzia zabalik dago Oinarrizko Printzipio hauek onartu eta sor litezkeen lanpostuetarako egokitasun profesionala erakusten duten gizon eta emakume guztiei. Bertako kide egiteko, beraz, ez da inolako bereizkeriarik egingo erlijio, politika, etnia edo sexuzko ezein arrazoirengatik. Bere barne eraketaren hastapenak errespetatzea, ez da besterik eskatuko. Atxikipen librea izango da eguneratzearen eta pertsonen arteko harremanaren printzipio orientatzailea garapen kooperatiboan.*

Printzipio hori Kooperatibaren Estatutuetan eta Barne Araudian islatzen da, zeinaren arabera kooperatibako lan-bazkideak izango dira

*Beren lana bertan egiteko eta garatzeko gaitasuna izan eta, Estatutu hauek izenpetzean bere gain hartutako eskubide eta betebeharren jakitun, lan horiek leialtasunez eta eraginkortasunez betetzeko konpromisoa hartzen duten pertsonak.*

Beraz, esan dezakegu egiten diren kontratazio guztiek premia profesional zehatz batzuei eta hautagaien profilaren eta premia horien arteko egokitasunari jarraitzen diotela, inolako bereizkeriarik egin gabe. Horren froga garbia dira ondoko taula honek eskaintzen dizkigun datuak, agerian uzten baitute bai fakultatearen zenbaketa orokorrean bai titulazioaren zenbaketan emakume-kopurua gizon-kopurua baino handiagoa dela:

| ESPARRUA | %G | %E |
|---|---|---|
| Langile Irakasleak eta Ikerlariak Lehen Hezkuntzako Graduan | 41,18% | 58,82% |
| Administrazio eta Zerbitzuetako langileak | 23,53% | 76,57% |
| Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko langile irakasleak eta ikerlariak guztira | 42,85% | 57,15% |
| Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko langileak guztira | 38,10% | 61,90% |

Nahiz eta ezinduen aipamen espliziturik egin ez, Printzipioak "*sor litezkeen lanpostuetarako egokitasun profesionala erakusten duten gizon eta emakume*" guztiez hitz egiten du. Beraz, lan profesional bat behar bezala betetzeko gaitasuna duen edozein pertsona gainerako hautagaien egoera berean egongo da, izan dezakeen ezintasuna gorabehera.

# 7.- BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK.

## 7.1. Erabilgarri dauden bitarteko materialak eta zerbitzuak plangintzako hezkuntza-jarduerak bermatzeko egokiak direlako justifikazioa.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bi eraikin ditu: Dorleta eraikia, 2.000 $m^2$-ko azalerakoa (500 $m^2$ solairuko) eta eraikin Nagusia, 5.544 $m^2$-ko azalerakoa (1.848 $m^2$ solairuko).

**<u>Egoeraren deskribapena</u>**

### 1. GELAK

Zenbait gela-mota bereizten dira edukiaren arabera:

1. **Talde handientzako gelak:** Lau gela dira guztira, eta hirurogeita hamar eta ehun ikasle bitarteko edukia dute. Ohiko altzariak dituzte (arbelak, mahaiak, aulkiak, esekitokiak, aterki ontziak), eta guztiak telebistaz, bideoz eta Interneterako konexioz hornituta daude. Gainera, mahaien tipologia dela eta, era batera edo bestera banatu daitezke, zer metodologia mota erabili nahi den.
2. **Talde ertainentzako gelak:** Gela gehienak talde honen barruan sartzen dira. 12 gela dira guztira, eta hogeita bost eta berrogeita hemeretzi ikasle bitarteko edukia dute. Ohiko altzariak dituzte eta guztiak telebistaz, bideoz, DVDz eta Interneterako konexioz hornituta daude. Gela handietako mahaiak bezala, hauek ere premien arabera banatu daitezke.
3. **Talde txikientzako gelak:** Bost gela txiki ditugu guztira. Hamasei eta hogeita lau ikasle bitarteko edukia dute.
4. **Gela aurrefabrikatuak:** Dorleta Eraikineko eta Eraikin Nagusiko gelez gainera, 2008-2009 ikasturterako zenbait gela prestatu dira unibertsitate-campusean: Hogeina ikasleentzako tokia duten 2 modulu, eta ehun ikasleentzako tokia duen

modulu bat. Azken hori berrogeita hamarna ikasleentzako bi gelatan banatu daiteke bereizgarri bati esker. Guztiak altzari erosoez hornituta daude eta hotz edo bero egiten duenerako prestatuta. Gela aurrefabrikatu horiek besteak hartuta daudenean baino ez dira erabiliko.

5. **Master gela:** 30 ikasleentzako tokia duen gela. Ohiko altzariez gainera (arbelak, mahaiak, aulkiak, esekitokiak, aterki ontziak), 12 ordenagailu, telebista, bideoa, DVD eta Interneterako konexioak ditu. Gainera, mahaien tipologia dela eta, era batera edo bestera banatu daitezke, zer metodologia mota erabili nahi den.

**6.** **Areto Nagusia:** Laurogei ikasleentzako tokia duen funtzio anitzeko areto bat da, eskolak emateko, hitzaldiak egiteko, jardunaldiak eta ekintza akademikoak antolatzeko, etab. Telebista, bideoa, DVD eta Interneterako konexioak ditu.

7. **Ekitaldi-aretoa:** 2008-2009 ikasturtean Fakultateak 159 $m^2$-ko areto berri bat izango du. Kapera zena erabat berritua izan da eta funtzio anitzeko areto moderno baten erosotasun guztiak eskaintzen ditu orain. Datorren ikasturtetik aurrera, ekintza akademikoak areto berri horretan ospatuko dira. 170 lagunentzako edukiera du. Gainera, ekitaldi-areto birmoldatu hau Areto Nagusiarekin lotua egongo da pantaila baten bidez. Hala, bi gelak bat eginda, 250 lagun baino gehiagorentzako tokia behar duten ekintzak antolatzeko aukera izango da.

Oro har, esan daiteke ezen, lan arriskuei aurrea hartzeko teknikariak egindako kontrolaren neurketen arabera, gelak nahiko ongi argiztatuta daude, intsonorizazio maila onargarria dute, larrialdietarako seinalez hornituta daude, eta osasungarritasun-baldintzak betetzen dituzte.

## 2. IKASLEEN LAN ETA IKASKETA EREMUAK

Hauek dira ikasleek lan egiteko eta ikasteko espazio gisa erabiltzen ditugun espazioak:

**Informatika-gelak:** Dorleta eraikinean hiru informatika-gela daude, 43, 22 eta 40 ordenagailurekin. Eraikin Nagusian, berriz, bat, Master gela, 10 ordenagailurekin.

Gelen ekipamendua bat dator prestakuntza-programatik eratortzen diren premiekin: sarerako konexioak, ordenagailuak, inprimagailuak, kanoiak, arbela. Informatika-gelek funtzionaltasun bikoitza dutela kontuan harturik (ikasgelak eta irakasgelak), gela bakoitzeko kronogramen bidez jasotzen dute ikasleek haien erabilgarritasunari buruzko informazio zehatza.

Ordenagailuz hornituriko espazioak (Dorleta eraikinaren hiru solairuetako atarteak): hogei toki guztira.

**Ordenagailu eramangarriak konektatzeko espazioak**, argindar-puntuz, sare-puntuz eta wifi-sarez hornituak (Dorleta eraikinaren hiru solairuetako pasilloak): 50 toki guztira.

Espazio guztietako (informatika-gelak eta ordenagailuz horniturikoespazioak) ordenagailu-kopurua kontuan harturik, 3,2 ikasleko ratioa kalkulatua da ordenagailu-postu bakoitzeko, kontuan hartu gabe wifi-sarea erabilgarri dagoen campuseko gainerako espazioak.

**Liburutegian** 60 banakako postu daude eta bi gela talde-lanerako.

Bestalde, ikasleek banakako edo taldekako lanleku gisa erabiltzen dituzte **gelak**, batzuetan berariazko esleipenez (ikasgaiak edo proiektuak), eta beste batzuetan modu zirkunstantzialean, erabilgarritasunaren arabera.

Fakultateak informazioa biltzeko erabiltzen dituen sistemek aukera ematen dute ikasleen atsegin-maila ezagutzeko, gela horien kalitatea eta kantitateari dagokionez.

**3. Bai espazioak bai ekipamendua behar bezalakoak dira PERTSONAL AKADEMIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALAREN garapenerako eta koordinaziorako.**

Badira ere zenbait espazio pertsonal akademikoaren eta administrazio eta zerbitzuetako langileen funtzioen garapen eta koordinaziorako, bi kategoriatan sailka daitezkeenak, deskribapena ulerterrazagoa egite aldera.

2. **Lan espezifikoko espazioak:** pertsona edo talde bakoitzari esleitzen zaizkionak. Honako espazio hauek sartzen dira kategoria horretan: zuzendaritza-bulegoak, administrazio-bulegoak, zerbitzuak eta idazkaritza akademikoa, irakasle-bulegoak.

   Pertsonal akademikoaren funtzioen garapenerako eta koordinaziorako erabilgarri dagoen azalera 590 metro koadrotakoa da. Hau da, 9,52 metroko ratioa pertsona bakoitzeko. Lanleku guztiek ordenagailua, sare-puntuak, eta inprimagailuak dituzte. Inprimagailuak partekatzeko dira, bulego bakoitzeko tamainaren eta postuen arabera.

   Administrazio eta Zerbitzuetako langileek 421 metro koadroko azalera dute beren lanak egiteko: hau da, 12 metro koadro pertsona bakoitzeko. Talde horren ekipamendua pertsonal akademikoak duen bera da.

3. **–Laneko espazio multifuntzionalak:** Kategoria horren barruan sartzen diren espazioak ez dagozkio kolektibo jakin bati, eta, beraz, langile guztiek erabil

ditzakete, zernahi jarduera egiteko. Espazio horiek 140 metro koadroko azalera hartzen dute guztira.

Bi urtez behin egiten den langileriaren satisfazio inkestan atal bat dago lanerako espazioaren kalitatea baloratzeko. 2007/2008 ikasturtean egindako inkestetan puntu horren inguruan lortutako satisfazio-maila bostetik 3,47koa da.

## 4. LIBURUTEGIA ETA FUNTS DOKUMENTALAK

Fakultateko liburutegi berria 2003-2004 ikasturtean jarri zen abian. Dorleta eraikinaren behe-solairuan dago. Toki argitsu eta zabala da, altzari modernoz hornitua, eta oso egokia da bai ikasten bai irakurtzen egoteko.

Liburutegiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu: irakurketa-gela, mailegua, multimedia eta informatika-ekipoak, hizkuntzen autoikaskuntzarako gela, talde-lanetarako gela eta erabiltzailea informatzeko zerbitzua.

Liburutegia goizeko zortzietatik gaueko bederatziak arte dago zabalik.

Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzaile guztien eskura dagoen triptiko batean zehaztuta daude. Fakultateko web-orriak ere liburutegiak eskaintzen duen zerbitzuaren inguruko informazioa eta berriak ematen ditu.

Titulazioarekin zuzen lotutako bibliografia-funtsak 26.296 liburu hartzen ditu (2007-2008 ikasturtean 1.200 liburu berri erosi dira).

Gure ustez, liburutegian eskuragarri dagoen gomendutako bibliografiaren portzentajea egokia da, nahiz ez den berrikuste sakonik egin.

Irakurketa-funtsen eta mailegu-funtsen katalogazio eta zaintza zerbitzu tradizionalez gainera, liburutegiak ahalegin handia egin du bere funtsak zabaltze eta dibertsifikatze aldera, eskura jarriz:

-aldizkari elektronikoak,

-punta-puntako datu-baseak,

-beste liburutegi batzuetako katalogoak, etab.

## 5. MULTIMEDIA ARETOA

Multimedia-aretoa 2005-2006 ikasturtean jarri zen abian. Honela dago banatua:

- **Multimedia gela:** Digitalizaziorako eta kopiak egiteko softwarez hornitutako hiru ordenagailu, aparatu elektroniko eta digitalak, TV, VHS, DVD eta mini DV erreproduzitzaileak eta grabatzaileak.
- **Edizio gela:** Grafismo lanak egiteko eta editatzeko softwarez hornitutako sei ordenagailu (Adobe Premiere, Adobe Photoshop, Adobe Afeter Effects), lau miniDV magnetoskopio, bozgorailuak, etab.
- **Irrati-estudioa:** platoa bost mikrofonoz, kontrol-areto batez, bere nahasketa-mahai eta guzti, eta soinu-talde profesional batez hornitua dago.
- **Ikus-entzunezko materiala:** sei ahots-grabagailu, lau kamera digital, 12 kamera digital Reflex, 14 bideo-kamera, 12 bideo-kamera profesional, lau argiztapen-ekipo, eta abar.

## 6. IKASLEEN ZERBITZURA JARRITAKO BESTE INSTALAZIO BATZUK

Ikasleen prestakuntza akademikoarekin edo irakaskuntza jakin batekin lotura zuzenik ez izan arren, ikasleak unibertsitate-campusean behar bezala integratzeko eta haien garapen pertsonala bultzatzeko balio duten espazio komun batzuk sartzen dira atal honetan:

- Pedro Viteri y Arana unibertsitate-egoitza, 280 ikasleentzako tokia duena. Ostatua eta prestakuntza osagarria eskaintzen die ikasleei.
- Unibertsitateko kide guztiek erabil ditzaketen tokiak, kafetegia eta jantokia (zerbitzu horien beharra duten ikasle eta langile guztiek erabiltzeko).
- Erreprografia-zerbitzua.
- Kirol eta Osasun Zerbitzua.
- Idazkaritza Akademikoko Zerbitzua eta Idazkaritza Birtuala.

- Teknologia Berrien Zerbitzua eta wifi sarea campus osoan.

## 8.- AURREIKUSITAKO EMAITZAK.

8.1. Adierazleentzat kalkulatutako balio kuantitatiboak eta haien justifikazioa.

Adierazleak:

- **Graduazio-tasa:** irakaskuntza ikasketa-planean aurreikusitako denboraren barruan (d) edo, titulazioan sartzeko kohortearen arabera, aurreikusitakoa baino urte akademiko bat gehiago eginda (d + 1) bukatzen duten ikasleen portzentajea da.

- **Uzte-tasa:** Titulua aurreko urte akademikoan atera behar zuten eta ez urte akademiko honetan ez aurrekoan matrikulatu ez diren ikasle berrien multzo bateko ikasle-kopuru osoaren erlazio portzentuala.

- **Eraginkortasun-tasa:** Urte akademiko jakin bateko gradudunen multzoak ikasketetan zehar matrikulatu beharra zeukan kreditu-kopuru osoaren eta benetan matrikulatu behar izan duten kreditu-kopuru osoaren arteko erlazio portzentuala.

Adierazle horiek egungo ikasketa-plangintzan aplikatzean, honako emaitza hauek lortzen dira:

| | **2003-04** | | **2004-05** | |
|---|---|---|---|---|
| | **Haur Hezkuntza** | **Hezkuntza Berezia** | **Haur Hezkuntza** | **Hezkuntza Berezia** |
| Graduazio-tasa | %100 | %100 | %91,48 | %90,9 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Uzte-tasa | %0 | %0 | %4,25 | %9.09 |
| Eraginkortasun-tasa | %98 | %97 | --- | --- |

Hauek izan litezke titulazio berrian aztertutako adierazleen aurreikuspenak:

- Graduazio-tasa: %95
- Uzte-tasa: %5
- Eraginkortasun-tasa: %98

8.2. Ikasleen ikaskuntzaren aurrerabidea eta emaitzak balioesteko unibertsitateak erabiltzen duen prozedura orokorra.

Fakultateak Kalitatearen Barne Bermeko Sistema (KBBS) bat du, prozesu horien kontrol orokorrerako mekanismoak eskaintzen dituena. Jarduera horien inguruan dauden prozesuen artean, hona hemen aipagarrienak:

M3.1. Prozesua. Emaitzen jarraipena eta azterketa: prozesuen eraginkortasuna bermatzea eta etengabeko hobekuntza bultzatzea du helburu. Aztertutako emaitzen artean "ikaskuntzaren emaitzak eta irakaskuntzaren garapenaren emaitzak" daude.

02.3. Prozesua. Orientabidea ikasleari eta irakaskuntzaren garapena: ikasleari titulazio akademikoa lortzeko prestakuntza-programaren garapenean laguntzea du helburu. Prozesu horretan honako adierazle hauek kudatzen dira:

- Eraginkortasun-tasa.
- Arrakasta-tasa.
- Uzte-tasa.

- Ikasle ratioa tutore bakoitzeko.
- Eskainitako tutoretza-orduak ikasle bakoitzeko.

## 9.- KALITATEAREN BERME SISTEMA.

Fakultateak Kalitatearen Barne Bermerako Sistema (KBBS) bat du, eta haren aplikazio-esparruak titulazio ofizial guztiak hartzen ditu. Sistema hori ANECAren AUDIT programaren jarraibideei jarraituz prestatu da, 2007/2008 ikasturtean diseinatua eta 2008/2009 ikasturtean abian jarria (ANECAren onespena jaso zuen 2008ko irailean). Sistema horretan funtsezkoa da prestakuntza-programen kalitatearen bermea, eta kontuan hartzen da bai prestakuntza-eskaintzaren plangintza, bai bere garapenaren ebaluazioa eta berrikuspena, bai prestakuntza hobetzeko erabaki-hartzea ere.

Kalitatearen Barne Bermerako Sistema eskuliburu batean dago dokumentatua. Bertan Fakultatearen politika eta kalitaterako helburu orokorrak daude jasota, bai eta titulazioei (diseinua, plangintza eta garapena, berrikusketa, eta hobekuntza eta etena), ikasleei (ikasleak erakartzea, hautatzea eta lan-munduan txertatzea), interes-taldeei (pertsonal akademikoak, irakaslanari laguntzeko langileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta enplegu-emaileak), baliabide materialei eta zerbitzuei, eta kontu bihurtzeari eta informazio publikoari buruzko prozesu batzuk. Prozesu horiek guztiek Kalitatearen Barne Bermerako Sistemari dagokion mapa eratzen dute, eta sistemaren eta, beraz, Titulazio honen etengabeko hobekuntza bermatzen duen neurketa-, azterketa- eta hobekuntza-prozesua elikatzen dute.

### 9.1. Ikasketa-plangintzaren kalitatearen bermerako sistemaren arduradunak.

Kalitateari dagokionez, Unibertsitateak antolaketa-egitura hau ezarri du:

| **MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN KALITATE BATZORDEA** | **HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAREN KALITATE BATZORDEA** |
|---|---|
| Errektorea | Dekanoa |
| Erretoreorde Akademikoa | Kalitatearen barne bermerako arduraduna |
| Mondragon Unibertsitatearen kalitatearen koordinatzailea | Hezkuntza Tituluen Zuzendaria |
| Fakultateko eta Eskolako Dekanoak eta Zuzendariak | Gizarte Zientzietako Tituluen Zuzendaria |
| Fakultateko eta Eskolako kalitatearen arduradunak | Irakasle eta Ikerlarien ordezkaria |
| Unibertsitatearen Idazkaritza Orokorra | Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria |

Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren eskuliburuaren laugarren kapituluak dioenez, Fakultateko Kalitate Batzorde horren funtzio nagusia sistema osoaren garapena bermatzeko egin beharreko jarraipena egitea izango da. Kalitate Batzordea izendatzea Zuzendaritza Batzordearen eginkizuna da.

Gainera, Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren parte diren prozesu guztietan, atal bat gehitzen da, prozesu horietan interesatuta dauden taldeen erantzukizunak eta parte hartze eta kontu bihurtze mekanismoa azaltzeko.

9.2. Irakaskuntza eta irakasleriaren kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko prozedurak.

9.1. taulan, ikasketa-plangintzaren eta titulazio horretako irakasleriaren irakaskuntza-kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko erabilitako prozedurak erakusten dira.

Irakaskuntzaren ebaluazioa eta kalitatearen hobekuntza direla eta, prozesu hauek aipa ditzakegu:

- 02.1. Prestakuntza-programen kalitatea bermatzeko prozesua.
- 02.2. Profilen definizioa eta ikasleen onarpena.
- 02.3. Ikasleari orientabidea emateko eta irakaskuntzaren garapena bideratzeko prozesua.
- 02.4. Ikaslearen mugikortasunaren kudeaketa.
- 02.4. Orientabide profesionalaren kudeaketa.
- 02.6. Kanpo-praktiken kudeaketa.
- M1.1. Intzidentzien, erreklamazioen eta iradokizunen kudeaketa.
- M2.1. Satisfazioaren neurketa.
- M3.1. Emaitzen neurketa eta azterketa.
- S1.1. Giza Baliabideen kudeaketa eta garapena: irakasleriaren irakaslanaren ebaluazioa biltzen du, 2007/2008 ikasturtean ANECAren DOCENTIA programak ezarritako betebeharren arabera.

Hainbat prozeduraren bidez titulazioaren arduradunak behar den informazio guztia biltzen du irakaskuntzaren kalitatea aztertzeko eta hobekuntza-ekintzak ezartzeko.

9.3. Kanpo-praktiken eta mugikortasun-programen kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko prozedurak.

Lehenago esan dugun bezala, bi prozedura daude kanpo praktiken eta mugikortasun programen kalitatea bermatzeko.

- **Kanpo praktiken kalitatea bermatzeko prozedura (02.6 prozesua):** prozesu horren helburua da ikasleen prestakuntza indartzea eta osatzea, bere jarduera titulazioarekin lotura zuzena duten eta egreso profilarekin bat datozen erakundeetan egindako kanpo praktiken bidez.

  Koordinazio orokorra Titulazioaren Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna da, betebeharrak, edukiak eta abar xedatzen dituenarena. Aldiz, lehendik planifikatua dagoena betearaztea, inplikatutako kolektibo guztien satisfazioaren neurketa barne, Praktiken Arduradunaren funtzioa da.

- **Mugikortasun-programen kalitatea bermatzeko prozedura (02.4 prozesua):** Prozesu honen helburua da ikasle-trukea bultzatzea eta kudeatzea nazioarteko esparru batean, ikaslearen prestakuntza modu integral batean osatzeko helburuarekin.

  Ikasleen mugikortasunari buruzko helburuen eta politiken definizioa Fakultateko Zuzendaritza Batzordeari dagokio, eta helburu eta politika horiek betearaztea, Fakultateko nazioarteko harremanetarako arduradunari. Azken horrek xede unibertsitateekin egin beharreko izapide guztiak egiten ditu, truke-ikasleei egin beharreko harrera-ekintzak definitzen ditu, eta inplikatutako kolektiboen satisfazio mailaren neurketaz arduratzen da.

9.4. Tituludunak lan-munduan txertatzeko neurriak eta hartutako prestakuntzaren satisfazio-maila aztertzeko prozedurak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Zerbitzuak (EGAILAN) lan-munduan txertatzeari buruzko inkesta egiten die bi urtez behin tituludun guztiei. Inkestak honako informazio hau eskaintzen du:

- Ikasketa-amaierako batez besteko nota tituluka.
- Batez besteko iraupena tituluka eta sexuka.
- Lan-munduan txertatzea eta enplegua:
    - Okupazio-tasa.

- Langabezia-tasa.
- Lan-jarduera.
- Lehen enpleguaren bilaketaren iraupena.
- Lehen enplegurako irispideak.
- Enplegu bideratua.
- Organizazioan betetako maila profesionala.
- Lana emandako enpresaren mota eta tamaina.
- Kontratu-mota eta batez besteko ordainsari-maila.
- Mugikortasun geografikoa.

- Unibertsitatearen balorazioa:
    - Irakasleriaren batez besteko balorazioa.
    - Hartutako prestakuntzaren satisfazioa, haren erabilgarritasuna lanean.
    - Unibertsitateko zerbitzuen balorazioa.
    - Eskuratutako gaitasunen balorazioa eta haien erabilgarritasuna lanpostuan.

Baiezta dezakegu jasotako informazioa oso erabilgarria dela bideratutako ikasleen lan-munduan txertatzea aztertzeko orduan, eta dokumentu hau adierazle gisa erabiltzen dela Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren zenbait prozesutan, hala nola lanbide-orientabidearen kudeaketari buruzko 02.5 Prozesuan

9.5. Inplikatuta dauden kolektiboen satisfazioa aztertzeko eta iradokizunei edo erreklamazioei erantzuteko prozedurak.

Fakultateko interes-taldeak Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren eskuliburuaren laugarren puntuan daude identifikatuta. Hona hemen haien satisfazio-maila neurtzeko eta haien erreklamazio eta iradokizunak bideratzeko ditugun prozedurak:

- M1.1. Intzidentzien, erreklamazioen eta iradokizunen kudeaketa.
- M2.1. Satisfazio-mailaren neurketa.
- M3.1. Emaitzen jarraipena eta azterketa.

Prozedura horietan honako adierazle hauek kudeatzen dira:

| Prozesua | Adierazlea | Adierazlea lortzeko formula | Jatorria eta lortzearen arduraduna | Neurketa |
|---|---|---|---|---|
| **M1.1.- INTZIDENTZIA, ERREKLAMAZIO ETA IRADOKIZUNEN KUDEAKETA** | Etengabeko hobekuntzaren kudeaketa | Erreklamazio-kopurua | Adm. eta Zerb. Sail. arduraduna | Sei hilabetean behin |
| | | Iradokizun-kopurua | | |
| | | Intzidentzia-kopurua | | |
| | Intzidentziak konpontzeko azkartasuna | Ekintza zuzentzaileak/prebentiboak hartzeko epea | Adm. eta Zerb. Sail. arduraduna | Sei hilabetean behin |
| **M2.1.- KALITATE-MAILAREN NEURKETA** | Ikasleen satisfazio-maila | inkesten satisfazioaren batez besteko ehunekoa | Titulazioaren Zuzendaria | Sei hilabetean behin |
| | Enplegu-emaileen satisfazio-maila | inkesten satisfazioaren batez besteko ehunekoa | Kalitate arduraduna | Urtean behin |
| | Langileen satisfazio-maila | Galdeketen balorazioaren batez besteko nota | Kalitate Arduraduna | Bi urtez behin |
| **M.3.1.- EMAITZEN** | Ekarpena etengabeko | Intzidentzia/ hobekuntza aukera bilakatutako | Kalitate Arduraduna | Urtean behin |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **NEURKETA ETA AZTERKETAK** | hobekuntzari | arazoen kopurua | | |

9.1. Taula. Hobekuntza prozesuen adierazleak.

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, hauek dira satisfazio-maila neurtzeko eskura ditugun tresnak:

- **Ikasleen satisfazio-mailaren azterketa:**
  - Satisfazio-mailari buruzko inkestak: seihileko bakoitzaren bukaeran, ikasleek satisfazio-mailari buruzko inkesta bat egingo dute.
  - Ikasgai bakoitzaren satisfazio-mailari buruzko inkestak: ikasgai bakoitzaren bukaeran, ikasleek inkestak beteko dituzte irakatsitako gaia baloratzeko: antolakuntza, metodologia, irakaslearen balorazioa eta abar.
  - Jarraipen Taldeak: ikastalde bakoitzeko ordezkarien bidez, ikasleek hobekuntza-talde hauetan hartuko dute parte, titulazioko zuzendariarekin eta koordinatzaileekin batera. Beste irakasle batzuek ere parte hartuko dute, bai irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bai titulazioaren eta Fakultatearen kudeaketa orokorrarekin zerikusia duten beste gai batzuk hobetzeko.

**Irakasle langileen satisfazio-mailaren azterketa:**

- Bilerak irakaslearekin: Irakasleria baloratzeko, ikasleei sei hilabetean behin egiten zaien inkestetan oinarrituta, irakasleek bilera egiten dute titulazioko zuzendariarekin eta saileko arduradunarekin balorazio horiek aztertzeko.
- Kurtso bilerak: Sei hilabetean behin, koordinazio-bilerak egiten dira irakastaldiko irakasle-taldearekin.

**Irakasle langileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen satisfazio-mailaren azterketa:** Bi urtez behin, langile guztien satisfazio-mailari buruzko inkesta egiten da.

**Enplegatzaileen satisfazio-mailaren azterketa:** Ikasleek beren praktikak egiten dituzten enpresa edo organizazioek inkesta bat betetzen dute egindako proiektua edota praktika ebaluatzeko eta ikaslearen balorazioa kualitatiboa emateko.

9.6. Titulua iraungitzen bada erabiliko diren irizpide espezifikoak.

Prestakuntza-programen kalitatea bermatzeko 02.1. prozesuan, Zuzendaritza Batzordeak titulua aldi baterako edo betiko iraungitzea erabakitzeko erabiliko dituen irizpideak edo adierazleak xedatzen dira:

- Akreditazio-txosten positiborik ez lortzea.
- Matrikulatutako ikasle-kopurua ondoz ondoko hiru ikasturte akademikotan eskainitako plazen %75 baino txikiagoa izatea.
- Bi ikasturte akademikotan uzte-tasa %50 baino handiagoa izatea.
- Tituluaren izaera eta helburuak nabarmen aldatzea.

Proposamen horretan bertan, ikasleek hasitako irakaskuntzen amaiera arteko garapen egokia eta eraginkorra bermatuko duten irizpideak sartu behar dira, honako honetarako aukera emango dutenak:

- Titulazioan ikasle berrien matrikulak ez onartzeko.
- Irakaskuntza mailaka-mailaka bertan behera uzteko.
- Ikasle errepikatzaileei tutoretza-ekintzak eskaintzeko eta orientabide espezifikoak emateko.
- Fakultateko araudi akademikoan arautatako deialdi guztiak agortu arte ebaluaziorako eskubidea bermatzeko. Kasu horretan, eta ikaslearen egoeran eragina duten zer-nolakoen arabera, irakaskuntza-ikaskuntza mekanismo

malguagoak erabiliko dira (tutoretza-arreta, taldeka edo banaka, etab.), ikasleak ikasten jarraitu ahal izango duela bermatzeko.

**Tabla 9.2.-** Relación entre los criterios del Programa Verifica, los procesos del SGIC y los indicadores utilizados en cada proceso.

| Prozesuak | Adierazleak | 2 Justif. | 3 Helburuak | 4 Sarbidea eta Onarpena | 5 Irakaskuntza plangintza | 6 Giza Baliabideak | 7 Baliabide Materialak eta Zerbitzuak | 8 Aurreikusitako emaitzak | 10 Ezarpen-egutegia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **PROZESU ESTRATEGIKOAK** | | | | | | | | | |
| **E1.1 –ESTRATEGIA PLANGINTZAREN ETA KUDEAKETA PLANGINTZAREN PRESTAKETA ETA JARRAIPENA** | Gauzatutako jarduerak (lerro estrategikoak) | | | | | | | | |
| | Gauzatutako jarduerak (Kudeaketa Plangintzaren helburuak) | | | | | | | | |
| | Desbideratze teknikoak | | | | | | | | |
| | Desbideratze ekonomikoak | | | | | | | | |
| **E2.1 – TITULAZIOEI BURUZKO** | Web orrirako sarbidea | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **INFORMAZIO ARGITARATZEAREN KUDEAKETA** | Liburuxka inprimatuak | | | | | | | | |
| | Ateak zabaltzeko jardunaldiak | | | | | | | | |
| **PROZESU GILTZARRIAK** | | | | | | | | | |
| **02.1- PRESTAKUNTZA PROGRAMEN KALITATEA BERMATZEKO PROZESUA** | Prestakuntza programari egindako aldaketak | | | | | | | | |
| | Prestakuntzaren eraginkortasuna | | | | | | | | |
| **02.2- PROFILEN DEFINIZIOA ETA IKASLEEN ONARPENA** | Ikasleen matrikulazioa | | | | | | | | |
| | Ikasleen izen ematea | | | | | | | | |
| **02.3- IKASLEARI ORIENTABIDEA EMATEA ETA IRAKASKUNTZAREN GARAPENA** | Eraginkortasun-tasa | | | | | | | | |
| | Arrakasta-tasa | | | | | | | | |
| | Uzte-tasa | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasle/tutore ratioa | | | | | | | | |
| | Eskainitako tutoretza-orduak ikasle bakoitzeko | | | | | | | | |
| **02.4- IKASLEEN MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA** | Ikasle-trukea | | | | | | | | |
| **02.5- LANBIDE ORIENTABIDEAREN KUDEAKETA** | Enplegagarritasun-tasa | | | | | | | | |
| | Orientabide saioak | | | | | | | | |
| **02.6- KANPO PRAKTIKEN KUDEAKETA** | Praktiketako ikasleak | | | | | | | | |
| **EUSKARRI PROZESUAK** | | | | | | | | | |
| **S1.1- GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA GARAPENA** | Pertsonen garapena lortzeko plangintza betetzea | | | | | | | | |
| | Absentismoa | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lan istripuak eta lan gorabeherak | | | | | | | | |
| | Barne igoerak bete beharreko lanpostuetarako | | | | | | | | |
| **S2.1- EKIPAMENDU, INSTALAZIO ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA** | Matxurak | | | | | | | | |
| | Erreklamazioak | | | | | | | | |
| **S4.1- DOKUMENTUEN KUDEAKETA** | Dokumentazioa onartzea | | | | | | | | |
| | Prozesu berriak | | | | | | | | |
| **HOBEKUNTZA PROZESUAK** | | | | | | | | | |
| **M1.1.- INTZIDENTZIA, ERREKLAMAZIO ETA IRADOKIZUNEN KUDEAKETA** | Etengabeko hobekuntzaren kudeaketa | | | | | | | | |
| | Intzidentziak konpontzeko azkartasuna | | | | | | | | |
| **M2.1.- KALITATE-MAILAREN NEURKETA** | Ikasleen satisfazio-maila | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Enplegu-emaileen satisfazio-maila | | | | | | | | |
| | Langileen satisfazio-maila | | | | | | | | |
| **M.3.1.- EMAITZEN NEURKETA ETA AZTERKETA** | Ekarpena etengabeko hobekuntzari | | | | | | | | |

## 10.- EZARPEN-EGUTEGIA.

10.1. Ezarpenaren kronograma.

Titulazioaren mailakako ezarpena egingo da, urterik urte.

| IKASTURTE AKADEMIKOA | TITULU BERRIA | AMORTIZATU BEHARREKO TITULUAK |
|---|---|---|
| **2009/2010** | Lehen Hezkuntza Graduaren Lehen maila | Lehen Hezkuntzako Irakasle Diplomaren Lehen maila |
| | | Hezkuntza Bereziko Irakasle Diplomaren Lehen maila |
| | | Atzerri Hizkuntzako Irakasle Diplomaren Lehen maila |
| | | Gorputz Heziketako Irakasle Diplomaren Lehen maila |
| | | Entzumena eta Mintzairako Irakasle Diplomaren Lehen maila |
| **2010/2011** | Lehen Hezkuntza Graduaren Bigarren maila | Lehen Hezkuntzako Irakasle Diplomaren Bigarren maila |
| | | Hezkuntza Bereziko Irakasle Diplomaren Bigarren maila |
| | | Atzerri Hizkuntzako Irakasle Diplomaren Bigarren maila |
| | | Gorputz Heziketako Irakasle Diplomaren Bigarren maila |

| | | |
|---|---|---|
| | | Entzumena eta Mintzairako Irakasle Diplomaren Bigarren maila |
| **2011/2012** | Lehen Hezkuntza Graduaren Hirugarren maila | Lehen Hezkuntzako Irakasle Diplomaren Hirugarren maila |
| | | Hezkuntza Bereziko Irakasle Diplomaren Hirugarren maila |
| | | Atzerri Hizkuntzako Irakasle Diplomaren Hirugarren maila |
| | | Gorputz Heziketako Irakasle Diplomaren Hirugarren maila |
| | | Entzumena eta Mintzairako Irakasle Diplomaren Hirugarren maila |
| **2012/2013** | Lehen Hezkuntza Graduaren Laugarren maila | |

10.2. Indarrean dauden ikasketen ikasleak ikasketa-plangintza berrira egokitzeko prozedura.

Ikasketa berriak mailaka ezarriko dira, ikasketa-plangintzan aurreikusitako denborazkotasunaren arabera. Aldi berean egungo ikasketak amortizatzea aurreikusita dago. Behin ikasturtea amortizatu ondoren, ez da irakaskuntza arauturik eskainiko ikasturte horri dagozkion ikasgaientzat. Dena dela, ikasgai desberdinetan matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera, eskolak eta tutoretza ezarri ahal izango dira, aurreko plangintzan matrikulatzea erabakitzen duten ikasleen zalantzak argitzeko eta haien kontsultei erantzuteko. Ikasleak lau deialdi gehigarri izango ditu irakaskuntzarik gabeko ikasgaia gainditzeko, eta, gainditzen ez badu, plangintza berriko ikasketak egin beharko ditu.

Egungo plangintzatik plangintza berrirako igarotzea ondoren zehazten den egokitzapen-eskema honen arabera egingo da:

| **IRAKASLE DIPLOMA-ESPEZIALITATEA: LEHEN HEZKUNTZA/ HEZKUNTZA BEREZIA/ ATZERRI HIZKUNTZA/ GORPUTZ HEZIKETA/ ENTZUMENA ETA MINTZAIRA**<br><br>*Enbor-irakasgaiak eta Espezialitatearen Enbor-irakasgaiak* | **LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLE GRADUA** |
|---|---|
| Hezkuntza Bereziaren oinarri psikopedagogikoak T (9) | Arreta goiztiarrerako oinarriak (6 ECTS) |
| Didaktika Orokorra I T (4,5) | Hezkuntza esku-hartzearen oinarrizko irizpideak (6 ECTS) |
| Didaktika Orokorra II T (4,5) | |
| Teknologia Berriak Hezkuntzari aplikatuak T (4.5) | Informazio eta Komunikazio teknologiak Hezkuntzan |
| Hezkuntzaren psikologia T (4,5) | Haur Hezkuntzaren oinarri psikopedagogikoak (8 ECTS) |
| Egungo hezkuntza-teoriak eta hezkuntza-erakundeak T(4.5) | Hezkuntzaren erronkak eta funtzioak (6 ECTS) |
| Hezkuntzaren soziologia T(4.5) | |
| Ikastetxearen antolakuntza T (4.5) | Eskola-antolakuntza eta familiaren parte-hartzea (6 ECTS) |
| Practicuma I TE (16) | Practicuma I (8 ECTS)<br><br>Practicuma II (6 ECTS) |
| Practicuma II TE (16) | Practicuma III (30 ECTS) |
| Izadiaren Zientziak eta bere didaktika I eta II TE (9) | Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (6 ECTS) |
| Gizarte eta kultur ingurunearen ezagutza I eta II TE (9) | |

| | |
|---|---|
| Hezkuntza Bereziaren didaktika-alderdiak eta antolakuntza-alderdiak | Laguntza-sistema XXI. mendeko hezkuntzan Esparru barne-hartzailea, esku-hartze esparruak, profilak eta zereginak<br><br>Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak (6 ECTS) |
| Adimen-urritasunaren bilakaera-alderdiak eta hezkuntza-alderdiak TE (6) | Laguntza behar espezifikoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna II<br><br>(6 ECTS) |
| Ikusmen-urritasunaren bilakaera-alderdiak eta hezkuntza-alderdiak TE (6) | |
| Adimen-urritasunaren bilakaera-alderdiak eta hezkuntza-alderdiak TE (9) | Laguntza behar espezifikoei eman beharreko hezkuntza-erantzuna I (6 ECTS) |
| Motore-urritasunaren bilakaera-alderdiak eta hezkuntza-alderdiak TE (6) | |
| Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen gorputz heziketa TE (4.5) | |
| Plastika-adierazpena eta musika-adierazpena TE (4.5) | Musika-, plastika- eta ikus-adierazpenaren oinarriak. |
| Jokabide-nahasmenduak eta nortasun-nahasmenduak TE (6) | Eskola-komunitatearen barruko aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategiak. (6 ECTS) |
| Hizkuntza idatziaren nahasmenduen hezkuntza-tratamenduak TE (9) | Ikasteko zailtasunetan esku-hartzeko estrategiak (6 ECTS) |
| Ingurune natural, sozial eta kulturalaren ezagutza TE (4.5) | Gizarte zientzien, zientzia esperimentalen eta teknologiaren irakaskuntza-ikaskuntza (6 ECTS) |
| Gorputz heziketa eta bere didaktika TE (4.5) | Gorputz-heziketa, osasuna eta ongizatea (6 ECTS) |
| Matematikak eta bere didaktika TE (4.5) | Matematiken irakaskuntza-ikaskuntza (6 ECTS) |

| | |
|---|---|
| Fonetika TE (4.5) | Ikasgai gisa desagertuta, eta zeharka landuko da "Hirugarren hizkuntzen didaktika: Hizkuntza eta curriculuma" gaian (6 ECTS) |
| Atzerri hizkuntza eta bere didaktika I eta II TE (18) | Eleaniztasunaren garapena hizkuntza gutxituen testuinguruetan (6 ECTS) |
| Hizkuntza eta Literatura eta bere didaktika TE (9) | Edukietako batzuk gai honetan aurkitzen dira: Hirugarren hizkuntzen didaktika: Hizkuntza eta curriculuma" (6 ECTS) |
| Hizkuntzalaritza TE (4.5) | Eduki horietako batzuk "Hizkuntza Hezkuntzaren garapenerako ikerketa eskolan" gaian daude. |
| Morfosintaxia eta semantika TE (9) | Eduki horietako batzuk "Eleaniztasunaren garapena hizkuntza gutxituen testuinguruetan" gaian daude (6 ECTS) |
| Ikaskuntza eta garapen motorea TE (6) | Haurraren garapena eta motrizitatea (6 ECTS) |
| Mugimenduaren oinarri fisiologikoak TE (6) | |
| Gorputz heziketa eta bere didaktika TE (18) | Gorputz heziketa eta bere didaktika I eta II (12 ECTS) |
| Egokitzapen fisikoaren teoria eta praktika TE (6) | Ikasgai gisa desagertu egiten da |
| Hizkuntzaren anatomia, fisiologia eta neurologia TE (4.5) | Aparatu fonoartikulatorioaren anatomiaren oinarriak, mintzatzeko zailtasunen patologiak eta hezkuntza-tratamendua |
| Pentsamenduaren eta hizkuntzaren bilakaera-alderdiak TE (4.5) | Pentsamenduaren eta hizkuntzaren bilakaera-alderdiak eta hizkuntza-arazoen hezkuntza-tratamendua |
| Hizkuntza-trebetasunen garapena TE (9) | Ikasgai gisa desagertuta, zeharka landuko da |
| Hizkuntzalaritza TE(9) | Pentsamenduaren eta hizkuntzaren bilakaera-alderdiak eta hizkuntza-arazoen |

| | |
|---|---|
| | hezkuntza-tratamendua |
| Entzumena eta mintzairaren psikopatologia TE (9) | Entzumen-aparatuaren anatomiaren oinarriak, entzumen-arazoen patologiak eta hezkuntza-tratamendua |
| Entzumenaren eta mintzairaren nahasmenduen hezkuntza-tratamendua TE (9) | |
| Ordezko komunikazio-sistemak TE (4.5) | Aparatu fonoartikulatorioaren anatomiaren oinarriak, mintzatzeko zailtasunen patologiak eta hezkuntza-tratamendua |
| Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren nahasmenduen hezkuntza-tratamendua TE (9) | Zailtasunak eta tratamendua irakurketa-idazketa trebetasunen garapenean |

## 10.3. Proposatutako titulua ezartzearen ondorioz desagertzen diren irakaskuntzak

- Irakasle Diploma – Lehen Hezkuntzako espezialitatea. (2005eko martxoaren 26ko Ebazpenez homologatutako ikasketa-plana. 2005eko ekinaren 16ko BOE)
- Irakasle Diploma – Atzerri Hizkuntzako espezialitatea. (1352/1998 Errege Dekretuz homologatutako Ikasketa-plana. 1998ko uztailaren 28ko BOE)
- Irakasle Diploma – Hezkuntza Bereziko espezialitatea. (1352/1998 Errege Dekretuz homologatutako Ikasketa-plana. 1998ko uztailaren 28ko BOE)
- Irakasle Diploma – Gorputz Heziketako espezialitatea. (2003ko iraileko Ebazpenez homologatutako ikasketa-plana. 2003eko irailaren 8ko BOE).
- Irakasle Diploma – Entzumena eta Mintzaira espezialitatea. (2005eko martxoaren 26ko Ebazpenak homologatutako ikasketa-plana. 2005eko ekinaren 16ko BOE)